100. *Azken bolada honetan egiten dituen gauzak ez dira normalak. Uste dut dagoela.*
- a) gaisoa
 - b) kili-kolo
 - c) burutik
 - d) kolokan

1.4. 1993/9/18

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Julianen bi liburuen inguruan zein da egia?
 - a) Argitaratu berriak dira biak.
 - b) Bata argitaratu berria da.
 - c) Biak duela bizpahiru urte argitaratu zituen.
2. Bi liburuok...
 - a) gaia ez ezik jatorria ere beretsua dute.
 - b) gaiz berdinak dira baina jatorriz ez.
 - c) jatorri berekoak dira baina gaiz desberdinak.
3. Neskaxaren adibideak zera frogatzen du:
 - a) lihagintza zeinen gogokoa zuten neskek.
 - b) emakumezkoa zeinen aparte zegoen baserrian.
 - c) lihagintza ez zela txantxetako eginkizuna.
4. Zer ematen zioten neskaxari 11 urte betetzean?
 - a) Lur-zati bat.
 - b) Erropa zuria.
 - c) Liho-hazia.
5. Beren baserriez galdetzean aitona-amonak...
 - a) orduko argitasunaz oroitzen ziren.
 - b) zuzpeltu egiten ziren.
 - c) beren eritasunez argi mintzo ziren.

6. Aiton-amona horien artean...
- a) batzuk maisu izandakoak ziren.
 - b) jatorrenak maisuak ziren.
 - c) euskararen eredu bikainak aurkitu zituen.

BIGARREN ATALA

7. Baserriko giro hura...
- a) ez zen batere ona salmentarako.
 - b) asko estimatzen du.
 - c) asko zabaldu eta aldatu da.
8. Anjel Lertxundiren aipamena zertara dakar?
- a) Arrantzale-kultura mesprezatzeko.
 - b) Gure basoen aberastasuna frogatzeko.
 - c) Baserriaren garrantzia frogatzeko.
9. Zein da egia?
- a) Kultura-arloan harrigarria da ikastolaren ekarpena.
 - b) Euskara gehiago lotu zitzaion nekazaritzari artzantzari baino.
 - c) Euskararen ondarea baserriak gorde du hobekien.
10. Julian Alustizak bere lana...
- a) batik bat etnografia-arlokoa dela aitortzen du.
 - b) saiakeratik hurbilago ikusten du.
 - c) ez du zorrotzegi mugatzen.

HIRUGARREN ATALA

11. Gure arbasoentzat sua eguzkiaren zen.
- a) ordezkoa
 - b) antzekoa
 - c) ondorengoa
12. Maizterrak etxetik alde egin behar izanez gero...
- a) ez zezakeen sua itzalita utzi.
 - b) sua berarekin eraman beharra zeukan.
 - c) maizter berria etorri zain egon behar zuen sua itzali gabe.

13. Suaren ardura...

- a) etxeko pertsona nagusienari zegokion.
- b) badirudi emakumezkoari zegokiola.
- c) zalantzarik gabe emakumezkoari zegokion.

14. *Arratsean bezti, goizean biluzi* esaerak zer adierazten du?

- a) Suaren eragina.
- b) Suaren misterioa.
- c) Suaren iraupena.

ENTZUTEZKO ARIKETAREN AMAIERA

15. *Oina zapaldu didazu!*
- a) Ez nintzen konturatu. Barka iezadazu!
 - b) Barka! Ez dizut nahita egin.
 - c) Sentitzen dut, baina ez nuen zapaldu nahi.
 - d) Nahigabea izan da, aizu!
16. Nola emango zenuke ezezko biribila?
- a) Ez, noski ezetz!
 - b) Ez, inondik inora ezetz!
 - c) Ez, inondik inora!
 - d) Ez, inola ere ez!
17. Ondoko zerrendetatik hiru ondo daude, baina batek tokiz kanpoko izen bat darama. Zein da zerrenda hori?
- a) Auzoa, udalerria, lurraldea, autonomi elkartea.
 - b) Txibirita, San Jose lorea, tulipana, eguzki-lorea.
 - c) Ibilgailua, bizikleta, autoa, gurdia.
 - d) Gorria, garrasia, horiska, zuri-beltza.
18. Zein da zuzena?
- a) Ni ez nijoan sariaren atzetik.
 - b) Ni ez nindoan sariaren atzetik.
 - c) Ni ez nihoan sariaren atzetik.
 - d) Ni ez ninhoan sariaren atzetik.
19. *Apal-apal etorri zaigu, , barkamen eske.*
- a) buruaz makurtuta
 - b) buruarekin makurtuta
 - c) burumakur
 - d) buru makurtuarekin
20. *Zelan utziko dizut,...*
- a) neuk behar dudanez!
 - b) neuk badaukat!
 - c) zeren nik behar bait dut!
 - d) neuk behar dut eta!
21. *Partidua ikusten ari ginela, bat-batean argia joan eta...*
- a) ilunean geratu ginen.
 - b) itzalpean geratu ginen.
 - c) ilunpetan geratu ginen.
 - d) itzaletan geratu ginen.

22. *Zer du zure lagun horrek hain isilik egoteko?*
- a) Lotsatzen da.
 - b) Lotsatuta dago.
 - c) Lotsak dago.
 - d) Lotsagarria da.
23. *Hil honen , Parisera joan behar dut.*
- a) 20ean, ostirala
 - b) 20a, ostirala
 - c) 20an, ostiralean
 - d) 20ean, ostiralean
24. *Ez zaitetz haserretu, Mikel!*
- a) Zera ez naiz haserretuko!
 - b) Nola ez naizela haserretuko!
 - c) Ez banaiz haserretzen!
 - d) Haserretuko ez naiz, ba!
25. Eguraldi txarraren ezaugarri:
- a) Brisara, kresala.
 - b) Oskorria, hego-haizea.
 - c) Oskarbia, ihintza.
 - d) Erauntsia, ekaitza.
26. *Artean lumatu gabeko txorikumeak ginen. Zer esan nahi du?*
- a) Jaiotzeke geundela.
 - b) Ume gaiztoak ginela.
 - c) Gazteegiak ginela.
 - d) Bihurri xamarrak bai, baina ez ginela hain gaiztoak.
27. *Baita zera ere! Ezkerreko hanka minduta daukat. Zein esaldi dagokio aurretik erantzun horri?*
- a) Sasoi onean ikusten zaitut.
 - b) Osasuntsu ikusten zaizu.
 - c) Zer moduz osasunez?
 - d) Sasoiko osasuna duzu.
28. *Lankideen hitzak zuzendariarenak baino zakarragoak izan ziren.*
- a) Zuzendariaren hitzak bezain zakarrak izan ziren lankideenak.
 - b) Zuzendariaren hitzak ez ziren lankideenak bezain zakarrak izan.
 - c) Lankideen hitzak zakarrak izan baziren, are zakarragoak zuzendariarenak.
 - d) Lankideen hitzak baino zakarragoak izan ziren zuzendariarenak.

29. *Legea irakurri zitzaion; hala eta guztiz ere, ez zuen amore eman. Aukeratu baliokidea.*
- a) Legea irakurtzeagatik, ez zuen amore eman.
 - b) Legea irakurriagatik, ez zuen amore eman.
 - c) Legea irakurriz gero, ez zuen amore eman.
 - d) Legea irakurtzearren, ez zuen amore eman.
30. Aukeratu zuzena.
- a) A zer lokuluxka gozoa egin dudan!
 - b) Lokuluxka gozoa egin dudan!
 - c) Zer lokuluxka gozoa egin dut.
 - d) Bai lokuluxka gozoa egin dut!
31. *Maitagarrien ipuinetan printzeak bihurtzen dira.*
- a) apoak
 - b) apoetan
 - c) apotan
 - d) apo
32. Kaltea izan zitekeena baino txikiagoa izan dela adierazteko:
- a) Auskalo!
 - b) Erdipurdikoa!
 - c) Eskerrik!
 - d) Gaitzerdi!
33. *Berea egin arte...*
- a) amore ematen ez dutenetakoa da.
 - b) bakerik hartzen ez duen horietakoa da.
 - c) ezin zaio lasai ikusi.
 - d) ez da inon gelditzen.
34. Ondoko zerrendetatik hiru ongi daude, baina batek tokiz kanpoko izen bat darama. Zein da zerrenda hori?
- a) Adierazi, itaundu, mintzatu, erantsi.
 - b) Gona, berokia, jaka, atorra.
 - c) Belarra, orbela, garoa, hostoa.
 - d) Minbizia, beherakoa, intziria, elgorria.
35. *Estilo handiko abeslaria dugu; , badu oraindik zer ikasirik.*
- a) ordea
 - b) aitzitik
 - c) nolana ere
 - d) baino

36. *Nor da hori egiteko gauza?*
- a) Ez, behintzat, ni.
 - b) Behintzat, ni ez.
 - c) Ni neu, behintzat, ez.
 - d) Ni ezta.
37. *Lehengo batean istripua izan eta lau hautsi zituen.*
- a) saiets
 - b) sahiets
 - c) saihets
 - d) saihetz
38. *Bilboko aurrekontuei zuzenketa-eske orokorra aurkeztu die alderdi batek. Zein da goiko esaldi honen esanahia?*
- a) Aurrekontuak eztabaidagarriak ikusten dituela.
 - b) Aurrekontuei zerbait erantsi behar zaiela.
 - c) Baztertu egiten dituela aurrekontuak.
 - d) Zenbait puntu orokorren aldaketa eskatzen duela.
39. *Non utzi dituzu betaurrekoak? Erantzun iezaiozu:*
- a) Jakingo bazenuke, sikiera!
 - b) Nik al dakit, ba?
 - c) Auskalo nondik dauzkazun!
 - d) Ikusteko bazeneuka behintzat!
40. *Errepidean auto batek oinezko bat harrapatu zuen eta...*
- a) gidaria joan egin zen iheskor.
 - b) gidaria joan egin zen.
 - c) gidariak ihes egin zuen.
 - d) gidariak ihesera jo zuen.
41. *Zer da Miren bere senarraren gurasoentzat?*
- a) Erraina.
 - b) Alaba-ordea.
 - c) Ezkon-andrea.
 - d) Suhia.
42. *Horiek baino nota hobeak atera beharko dituzu...*
- a) unibertsitatean nahi baduzu sartzea.
 - b) unibertsitatean sartzeko bazara.
 - c) unibertsitatean sartuko bazara.
 - d) unibertsitatean sartzea nahi baduzu.

43. *Leku ederrean utziko gaituzu, hori esaten baduzu.* Bestela esanda:
- Urrun utziko gaituzu.
 - Lotsagarri utziko gaituzu.
 - Leku egokian utziko gaituzu.
 - Gutaz iritzi ona izango dute.
44. *Guk ezin esan, ala?*
- leikegu ezer ere
 - dezakegu ezer ere
 - dezakegu ezer ez
 - dugu ezer ez
45. *Horri norbaitek esan beharko dio, ba, oker dabilela!*
- Esaten diozu zuk?
 - Esaiozu, ba, zeuk!
 - Esatea ere!
 - Esango ahal diot nik!
46. *Komeni da joatea; bestela...*
Zein da baliokiderik edo erantzunik egokiena?
- Badaezpada, joatea hobe. Osterantzean...
 - Zer gerta ere, joan gabe gelditu. Bestela...
 - Joan? Pentsatu ere ez!
 - Joaten bagara, joan...
47. *Ez kezkatu. Neure geratzen da arazo hau.*
- esku
 - eskuetan
 - eskutan
 - esku-eskuan
48. *Balizko olak burdinarik ez.* Zer esan nahi du?
- Eguneroko bizitza gogorra dela.
 - Baliabide egokirik gabe lanak eskasak gertatzen direla.
 - Ametsak amets direla.
 - Kalte handiak ekar ditzaketela ametsek.
49. Lagun batek esandakoak harrituta utzi zaitu. Zein esamolde ez zenuke erabiliko?
- Sor eta lor geratu naiz!
 - Hori izugarria da!
 - Aitaren eta semearen...!
 - Ez dut sinesten.

50. *Gaur goizeko euri-tantak ziren.*
- a) biribilak
 - b) sendoak
 - c) mardulak
 - d) gizenak
51. *Jende askok, , ez ikusiarena egiten zidan.*
- a) ezagututakoa
 - b) ezagututa ere
 - c) bera ere bai
 - d) hurbilekoa ere
52. Zein bikote dago oker?
- a) Tximinoa - hatzak.
 - b) Ahuntza - behatzak.
 - c) Behia - apatxak.
 - d) Katua - atzaparrak.
53. *Irakasleak haserre aldegin zuen ikasgelatik,...*
- a) bai eta esan ere biharamunean azterketa jarriko zigula.
 - b) eta esan zuen ere bai biharamunean azterketa jarriko zigula.
 - c) eta biharamunean azterketa jarriko zigula esan zuen ere.
 - d) eta biharamunean azterketa jarriko zigula esan zuen, ere bai.
54. *Erdia besterik jango ez baduzu ere, jan erdia. Zein da baliokidea?*
- a) Jan ezazu erdia, behintzat.
 - b) Ez duzu erdia besterik jan behar.
 - c) Lehengo erdia jan eta gero beste erdia.
 - d) Erdia jan baduzu, zergatik ez beste erdia?
55. Zuzen dagoena aukeratu.
- a) Basoan hartz eta otzoen haztarnak ikusi zituen.
 - b) Basoan hartz eta otsoen aztarnak ikusi zituen.
 - c) Basoan artz eta otsoen astarnak ikusi zituen.
 - d) Basoan hartz eta otsoen hastarnak ikusi zituen.
56. *Ireki al dute taberna berria?*
- a) Bihar irekitzen dute.
 - b) Bihar ireki egingo dute.
 - c) Bihar irekiko dute.
 - d) Bihar irekitzera doaz.

57. *Nekez izango dute berriro horrelako aukerarik. Aukeratu baliokidea.*
- a) Ez dute gehiago horrelako aukerarik izango.
 - b) Kostatuko zaie berriro horrelako aukerarik izatea.
 - c) Horrelako aukera ederki nekatuta izango dute hurrengoan.
 - d) Nekatuko dira berriro horrelako aukera bat eduki aurretik.
58. *Baserria erre ondoren ezer gabe geratu ziren.*
- a) Goian zerua eta behean lurra geratu ziren.
 - b) Goia eta behea hutsik zutela geratu ziren!
 - c) Den-dena hutsik geratu ziren!
 - d) Etxe osoan ezer gabe geratu ziren!
59. Esaldi hauetako bat **ez** da zuzena. Zein?
- a) Loreak, ureztatu ezean, zimeldu egingo zaizkizu.
 - b) Egunero ikasi ezezik, ez duzu kurtsoa aterako.
 - c) Lurra ondu barik, alferrik da landatzen hastea.
 - d) Hamaika bider deitu ezik, ez duzu ohetik kanpo ikusiko.
60. *Horixe besterik ez genuen behar; zeuk ere esan ezazu orain bazenekiela gertatuko zela!*
- a) Banekiela!
 - b) Jakingo ez nuen, ba!
 - c) Bai, jakin nuen.
 - d) Horixe baietz nekiela!
61. Aukeratu zuzena.
- a) Dehiadarka zegoen sasitartean.
 - b) Deiadarka zegoen sasi artean.
 - c) Deiadarka zegoen sasi-tartean.
 - d) Deiadarka zegoen sasi artean.
62. *Zer egin? Nori deitu? Zalantza horrekin geratu zen.*
- a) Zer egin eta nori deitu behar zion geratu zen.
 - b) Zer egin eta nori deitu ez zekielakoan geratu zen.
 - c) Zer egin eta nori deitu ez zekien moduan geratu zen.
 - d) Zer egin eta nori deitu ez zekiela geratu zen.
63. *Ume honek txorikumeak adina jaten du. Zer esan nahi du?*
- a) Umeak ez duela jaten.
 - b) Umeak txoriek bezala jaten duela.
 - c) Umeak oso gutxi jaten duela.
 - d) Umeak ez duela bizitzeko beste jaten.

64. *Aizu, mutiko, nirekin oraindik...*
- a) zorretan zaude.
 - b) zorrak agerian dituzu.
 - c) zor eta lor zaude.
 - d) zordun zara.
65. *Duela ordubete iritsi behar genuen, eta oraindik bi orduko bidea daukagu.*
- a) Lasai, ez digute espero etxean.
 - b) Bai, atzerapenarekin iristen gara etxera.
 - c) Dagoeneko ez gaituzte zainduko etxean.
 - d) Dagoeneko luzetsita egongo dira etxean.
66. *Gogaitu egin nau bere hitz-jarioak. Zer esan nahi du?*
- a) Aspertu egin nauela.
 - b) Liluratu egin nauela.
 - c) Arreta sortu duela nigan.
 - d) Gogoz entzun diodala.
67. *Bermeoko itsasuntzi guztiak...*
- a) atun-bilketan daude.
 - b) atunetan daude.
 - c) atunengana joan dira.
 - d) atunak bilatzera joan dira.
68. *Aukeratu zuzena.*
- a) Eskean genbiltzalarik txanponak maindire zurian generamatzan.
 - b) Eskean genbilelarik txanponak maindire zurian generamatzan.
 - c) Eskean genbiltzalarik txanponak maindire zurian generamazkien.
 - d) Eskean genbilela txanponak maindire zurian generamatzan.
69. *Noiz hasi zaio ezgul txar hori?*
- a) Erretzeari ekin zuenean.
 - b) Erretzen hasiz.
 - c) Erretzen hasteaz batera.
 - d) Erretzen hasterakoan.
70. *Hurrengo esaldietatik, zein dago oker?*
- a) Besteen lepotik barre egitea gustatzen zaio.
 - b) Begia begi truk ordaindu zuten.
 - c) Epetik kanpora iritsi omen da eskaria.
 - d) Gure gain utzi dute lan zail hori.

71. Asko jaten duen lagunari:
- Ez haiz makala jaten!
 - Hi jatuna haiz, hi!
 - Makala haiz jaten!
 - Sabelzorri halakoa!
72. *Kalean ikusiko autoan eramango...*
- bazintuztet nizueke.
 - bazintuztet zintuzketet.
 - bazintuztedan zintuzteket.
 - bazintuztet zintuzteket.
73. *'Kontuak zeuek atera behar dituzue.'* Hori ez zigun esan.
- Ez zigun esan kontuak geuk atera egin behar genituela.
 - Ez zigun esan kontuak zeuek atera behar zenituztenik.
 - Ez zigun esan kontuak geuk atera behar genituelarik.
 - Ez zigun esan kontuak geuk atera behar genituenik.
74. *Senar-emazteak berriro bildu ziren.*
- elkar
 - elkarrengana
 - elkarrengan
 - elkarrenganako
75. *Ez dute ahaleginik egin; , alferkeria hutsean ibili dira luzaroan.*
- baina
 - aitzitik
 - hala ere
 - nolabait
76. *Ordu erdi daramagu berriketan eta...*
- goazen lanean ekitera.
 - has gaitezen lanean.
 - goaz lanera.
 - lanari ekin dezagun.
77. Aukeratu zuzena.
- Eman idazu Kas bat limoizkoa.
 - Eman iezadazu Kas bat limoiana.
 - Emadazu limoizko Kas bat.
 - Emaidazu limoi-Kas bat.

78. Zein da zuzena?
- a) Denetarako izan genuen astia, baita lokuluxka gozoa egiteko ere.
 - b) Denetarako izan genuen astia; lokuluxka gozoa egiteko ere.
 - c) Denetarako izan genuen astia baita ere lokuluxka gozoa egiteko.
 - d) Denetarako gehi lokuluxka gozoa egiteko astia izan genuen.
79. *beldurra ere ematen du.*
- a) Begiratze bakarrak
 - b) Begiratze zuzenak
 - c) Begiratze hutsak
 - d) Hutsean begiratzeak
80. Alboan duzun lagun bati zer diotsazu? *Erabakitzeke unea da, beraz,...*
- a) zatoz ala zoaz?
 - b) bazatoz ala ez zatoz?
 - c) joan ala etorri?
 - d) zatoz edo ez?
81. Urdailean sentitzen den mina edo erresumina.
- a) Sabelmina.
 - b) Goragalea.
 - c) Sabelerrea.
 - d) Bihotzerrea.
82. *da gure txakurra ere.*
- a) Zuenaren modukoa
 - b) Zuena bezala
 - c) Zuenaren bezalakoa
 - d) Zuena moduan
83. *Festa egun handian, behintzat, azalduko zinetela uste genuen.*
- a) Festa egun handian, behinik behin, azalduko zinetelakoan geunden.
 - b) Ez genuen uste festa egun handian, behintzat, azalduko ez zinetela.
 - c) Festa egun handian, jadanik, azalduko zinetelakoan geunden.
 - d) Festa egun handian, behinik behin, zuek azaldu esperoan geunden.
84. Zein da zuzena?
- a) Hainbat bileratan gauz zelebrea entzuten dira.
 - b) Ahinbat bileretan gauza xelebrea entzuten dira.
 - c) Hainbat bileratan gauza xelebrea entzuten dira.
 - d) Ainbat bileratan gauz xelebrea entzuten dira.

85. *Ikasleok, zer deritzozue...*
- a) ibilaldi hori egitea.
 - b) ibilaldi hori egiteaz.
 - c) ibilaldi hori egiteari.
 - d) ibilaldiari buruz.
86. *Herrian ala kanpoan pasatuko al dugu asteburua? Erabaki behingoz!*
- a) gaitezen
 - b) dezagun
 - c) dezagula
 - d) ditzagun
87. Zenbait hilabetetan elkar ikusi gabe egon eta berriz ikustean, bi gaztek elkarri esandakoa:
- a) Ene adiskide aspaldikoa! Hurbil zakizkit, arren.
 - b) Hau ohorea hau, zu berriz ikustea!
 - c) Kaixo, aspaldiko, bizi al zara?
 - d) Tira ba, ondo?
88. *Lekutan ibili dira! Adierazi esanahia.*
- a) Leku askotan ibili dira.
 - b) Oso urrun ibili dira.
 - c) Oso desbideratuta ibili dira.
 - d) Oso urruti ez dagoen toki batean ibili dira.
89. *Aizue, ez gara denok etorri!*
- a) Bat gora-behera, berdin dio!
 - b) Bategatik berdin zaio!
 - c) Zer axola bat!
 - d) Bat izan edo ez izan!
90. Zein da zuzena?
- a) Poliziak ezustean geldiarazi zigun.
 - b) Poliziak ez ustean geldi arazi gintuen.
 - c) Poliziak ezustean geldiarazi gintuen.
 - d) Poliziak ezustean geldi arazi zigun.
91. Zein da zuzena?
- a) Horiek dira zapata dotoreak, erosi dituzunak!
 - b) Ze zapata dotoreak erosi dituzu!
 - c) Zein zapata dotore erosi dituzun!
 - d) Horiek dotoreak, erosi dituzun zapatak!

92. *Lehengo bizimodutik gaurkora...*
- a) itzelezko aldeak daude!
 - b) desberdintasunak daude!
 - c) ez dago alde makala!
 - d) ez dago alde gutxi!
93. *..... madari gogorrenak ekarri dituzu gaur azokatik!*
- a) Denik eta
 - b) Hainbat eta
 - c) Inon diren
 - d) Ahalik eta
94. *Oin hotsak entzuten dira eskaileretan; ordu honetan...*
- a) nor al da?
 - b) nor ote da?
 - c) nor omen da?
 - d) nor ahal da?
95. *Esan duzun hori, , ez da egia.*
- a) niretzat
 - b) niretzako
 - c) nire ustez
 - d) deritzot
96. Ondoko zerrendetatik denek tokiz kanpoko izen bana daramate, batek izan ezik. Zein?
- a) Aitita, lehengusina, izekoa, kumea.
 - b) Baserria, borda, abeltegia, etxaldea.
 - c) Txepetxa, birigarroa, kardantxiloa, muskerra.
 - d) Gibela, odolberoa, giltzurruna, sabela.
97. Zein da zuzena?
- a) Damu dut atzo bera mindu nuela.
 - b) Damu dut atzo bera mindu izana.
 - c) Damu dut atzo bera mintzea.
 - d) Damu dut atzo bera mindu izatea.
98. *Aurpegia geratu zaizu, neska!*
- a) zuri-zurituta
 - b) zuri baino zuriago
 - c) zuria bezain zuria
 - d) zurietan zuriena.

99. *Sake ona du, gero, mutil horrek!* Zer esan nahi du?

- a) Pelotari ona dela.
- b) Sakela ondo beteta duela.
- c) Asko jaten duela.
- d) Ateraldi onak dituela.

100. Hurrengo esaldietatik, zein dago oker?

- a) Egin duzuna ez dut uste ondorio larriak edukiko dituela.
- b) Egin duzunak ez dut uste ondorio larririk edukiko duenik.
- c) Egin duzuna ez dut uste ondorio larriak edukiko dituenik.
- d) Egin duzunak ez dut uste ondorio larririk edukiko dituenik.

1.5. 1994/4/16

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Misioetan parte hartzeari dagokionez, zer dio?
 - a) Neurritz kanpoko jokabideak aipatzen ditu.
 - b) Nahitaez hartu behar zela parte.
 - c) Taberna guztiak ixtera behartuak zeudela.
2. Non egiten zitzairen harrera misiolarietara?
 - a) Elizan.
 - b) Bidegurutzetan.
 - c) Elizatik kanpo.
3. Orduko misiolariak...
 - a) autobusez ibili ohi ziren gehienak.
 - b) patxaran zaleak ziren.
 - c) ez zituen denborak kezkatzen.
4. Nekazal herrietan, zein izaten zen ekitaldi nagusia?
 - a) Goizekoa.
 - b) Arratsaldekoa.
 - c) Gauekoa.
5. Zer dela eta aipatzen ditu Aia eta Zegamako herriak?
 - a) Oso elizkoiak zirelako.
 - b) Nekazal herriak zirelako.
 - c) Bertako jendea fabriketan hasia zelako.

6. Misio-egun horietan jendeak...
- a) eguna elizan ematen zuen.
 - b) ez zuen lotarako nahiko denborarik.
 - c) ez zion lanari uzten.

BIGARREN ATALA

7. Erabilitako gaiak zirela eta, zer dio?
- a) Gaur ez lituzkeela modu berean azalduko.
 - b) Ez zituztela soilik erlijio gaiak erabiltzen.
 - c) Jendeak ez zituela oso gogoko.
8. Heriotzaz, zer azpimarratzen zuten?
- a) Alderdi izugarrienak.
 - b) Erlijioaren ikuspegi pozgarria.
 - c) Munduko bizitzaren erlatibotasuna.
9. Infernuaren gaia...
- a) gaurko ikuspegiaren arabera kendu egingo luke.
 - b) gaur ez luke orduan bezala azalduko.
 - c) gaurregun ere berdin deskribatuko luke.
10. Seme galduaren parabola...
- a) infernuaren gaia ilustratzeko erabiltzen zuten.
 - b) herrietan inor gutxik ezagutzen zuen orduan.
 - c) Jainkoaren errukia sinbolizatzen erabiltzen zuten.
11. Gazteei emandako hitzaldiez mintzatzean, zer dio seigarren aginduaz?
- a) Tratamendu garrantzitsua zuela.
 - b) Gehienetan hutsegiten zela.
 - c) Gazteak ezkontzara bultzatzen zituela.

HIRUGARREN ATALA

12. Bekatariaren kanpaiak zer gogoratzen zuen?
- a) Aitortzera joateko ordua.
 - b) Bekatariaren aldeko otoitza.
 - c) Bekatariak belaunikatzeko unea.

13. Barkazioko hitzaldiak garrantzi berezia zuen batez ere...
- a) inguruko herrietako jendearentzat.
 - b) gerra ondorengo garai hartan.
 - c) asko sufritzen zuten haientzat.
14. Barkazioko elizkizunean hauetako zeinek zeini eskatzen zion barkamena?
- a) Misiolari batek besteari.
 - b) Herriak misiolariei.
 - c) Apaizak herriari.
15. Benetan bakeak egiten zituztela adierazteko keinu hauetako zein ez da aipatzen?
- a) Besarkatzea.
 - b) Eskua ematea.
 - c) Agur egitea.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

16. *Hi bizi haiz hi!* Nori esango zenioke esaldi hau?
- a) Istripu larri batetik atera berri den adiskideari.
 - b) Ingurukoei beti «Ondo!» esaten ibiltzen den lagunari.
 - c) Lanez gainezka bizi den lagunari.
 - d) Patxadatsuari.
17. Zein da zuzena?
- a) Nahikoa lan duzue umeak zaintzen.
 - b) Nahiko lana duzue umeak zaintzen.
 - c) Nahikoa lana duzue umeak zaintzen
 - d) Nahiko lanik duzue umeak zaintzen.
18. «Arnas hartze larria, nekeak edo eritasunak eragina»:
- a) Arnasotsa.
 - b) Arnasbidea.
 - c) Arnasestua.
 - d) Arnasketa.
19. *Tontorreraino iristeko egin behar dituzue aurrera.*
- a) kilometrotan eta kilometrotan
 - b) kilometrotik eta kilometrotara
 - c) kilometroak eta kilometroak
 - d) kilometroz eta kilometroz
20. *Ordu betean sei kilometro egingo nituzke oinez.*
- a) Mila duro ezetzari!
 - b) Mila duro ezetz!
 - c) Mila duro ez egin!
 - d) Mila duro ez duzula egingo!
21. Aukera ezazu:
- a) Joan behar zara, bai, lehenbailehen. Ezin duzu etxean geratu.
 - b) Joan behar duzu, bai, lehenbailehen. Ezin zara etxean geratu.
 - c) Joan beharko zinateke, bai, lehenbailehen. Ezin zara etxean gera.
 - d) Joan behar duzu, bai, lehenbailehen. Ezin duzu etxean geratu.
22. *Indurainek irabazi al du erlojuaren kontrakoa?*
- a) Irabazi balu!
 - b) Irabazi badu!
 - c) Baietz irabazi duela!
 - d) Irabaziko ez zuen, ba!

23. «Bere ondasunak musutruk ematen dituenari dagokio»:
- a) Lotsagabea.
 - b) Maitakorra.
 - c) Eskuzabala.
 - d) Inozoa.
24. *Aspertuta nauka bere kontu horiekin; luke isildu eta lan gehiago egitea.*
- a) onena
 - b) hobe
 - c) hobeto
 - d) hobe
25. Zein da lau esaldi hauetan zuzena?
- a) Geuk ere jakin dugu gertatutakoa.
 - b) Gertatutakoa jakin dugu guk ere bai.
 - c) Gertatutakoa guk ere jakin dugu baita.
 - d) Guk baita jakin dugu gertatutakoa.
26. Lagun zirikatzaileari:
- a) Niri adarrik ez jo, gero!
 - b) Ez ilerik hartu!
 - c) Broma gutxiago!
 - d) Ez pasatu, gero!
27. *Poltsa horiek neuk eramango ditut; gainerakoak, berriz, zeuk dira.*
- a) eramatekoak
 - b) eramnikoak
 - c) eramandakoak
 - d) eramanak
28. *Ehun metroak hamar segundutik behera korritu ditu; , lehenengoa izan da.*
- a) orduan
 - b) horrenbestez
 - c) berriz
 - d) alajaina
29. «Euri-urak nahiz komunetako hondakinak bideratzeko lurrazpiko isurbide edo hodia»:
- a) Erretena.
 - b) Estolda.
 - c) Ubidea.
 - d) Uharka.

30. *Pelloc eta Julianek galdu egin dute konfidantza.*
- elkarrenganako
 - elkarri
 - elkar
 - elkarrentzako
31. *Ederra egin duk! Nork esaten du?*
- Mesederen bat eskertu nahi dizunak.
 - Zorionak eman nahi dizkizunak.
 - Gaizki eginen bat aurpegiratzen dizunak.
 - Ahalegin handiz egindako zerbait gorai patzen dizunak.
32. *Zer egingo orain Mertxe agertuko...*
- zenuen balitz?
 - zenuen bazen?
 - zenuke balitz?
 - zenukeen bazen?
33. Lau zerrenda hauetako batean, bada hitz bat ondo ez datorrena besteekin. Zeinetan?
- Hitzaurrea, aurkibidea, orria, atala.
 - Orkatila, ukendua, okotza, eskumuturra.
 - Umezurtza, alarguna, ezkondua, banatua.
 - Alkandora, atorra, zira, eskularrua.
34. Bilera deia:
- Bihar, irailaren 16an, asteazkenez, 7'00retan.
 - Bihar, Irailak 16an, (asteazkena) 7,00-tan.
 - Bihar, irailaren 16, asteazkena, 7.00tan.
 - Bihar, irailak 16, asteazkena, 7.00etan.
35. *Mundua hankaz gora jar daiteke, petrolioa...*
- agortzekotan.
 - agortzen bada.
 - agortuko balitz.
 - agortu ezker.
36. *Zer moduz?*
- Primeran!
 - Modu onean!
 - Hala nola!
 - Hainbatean!

37. *Ospitalean hiru egun mutikoa etxera.*
- a) egin eta bidali zuten
 - b) eginda bidali zuten
 - c) eginda eta bidali zuten
 - d) egin ondoren eta bidali zuten
38. Aukeratu zuzena.
- a) Haize erauntzi hark eragin zituen txikizioak.
 - b) Aize herautsi harek eragin zituen txikizioak.
 - c) Haize erauntsi hark eragin zituen txikizioak.
 - d) Haize herautzi hark eragin zituen txikizioak.
39. *Jonek, etxeko lanez , badu hainbat zeregin.*
- a) batera
 - b) gainera
 - c) eta guzti
 - d) barik
40. *Maria Rodrigo neska bat ezagutu dut.*
- a) izeneko
 - b) deritzaion
 - c) delako
 - d) den
41. Aukera ezazu egokiena:
- a) Nola maleta ikaragarri handia da, ez dago autoan osorik sartzerik.
 - b) Maleta ikaragarri handia denez gero, ez dago autoan osorik sartzerik.
 - c) Zelan maleta handi-handia da, ezin da autoan osorik sartu.
 - d) Maleta ikaragarri handia denez, ezin da autoan osorik sar.
42. Zein dago **oker**?
- a) Elurra barra-barra egin (ugarri baina astiro eroriz).
 - b) Mauka-mauka jan (zati handika, aho beteka).
 - c) Di-da amaitu lana (bizkor).
 - d) Tipi-tapa joan (apurka-apurka, poliki, astiro).
43. *Zelan amaitu zen futbol partidua?*
- a) Hutsik.
 - b) Hutsean.
 - c) Hutsera.
 - d) Husna.

44. «Bere burua den bezala agertzen beldur edo lotsa dena»:
- a) Ezkurra.
 - b) Ezkorra.
 - c) Uzkurra.
 - d) Uzkerra.
45. *Horiek hitz-aspertu galantak egiten dituzte elkarrekin. Zer ulertu behar da?*
- a) Elkarrizketa luzeak izaten dituztela.
 - b) Asper-asper eginda bukatzen dutela.
 - c) Mintzagai gogaikarriak darabiltzatela.
 - d) Biziki haserretzen direla.
46. *..... ez dizut ezer esango eta!*
- a) Alfer-alferrik zabilta,
 - b) Alferrik zaude,
 - c) Oker zaude,
 - d) Eserita egon,
47. *Adituei sinestera, arazo horrek luze joko du. Hau da:*
- a) Adituak direla eta, arazo horrek luze joko du.
 - b) Adituen ondorioz, arazo horrek luze joko du.
 - c) Adituen esanetan, arazo horrek luze joko du.
 - d) Adituak aditu, arazo horrek luze joko du.
48. *Lanean barik gora begira zegoen. Zer esan nahi du?*
- a) Ez zela lanean ari.
 - b) Lanean ari zela.
 - c) Lanik gabe zegoela.
 - d) Lanik ezean, gora begira zegoela.
49. *Alderdi bietakoak akordio batera iritsi zurrumurrua zabaldu da.*
- a) direlakoaren
 - b) direlaren
 - c) direnaren
 - d) diren
50. Hauetako bat ez da iraingarria. Zein?
- a) Astakirtena.
 - b) Babo alaena.
 - c) Artaburua.
 - d) Astalarrosa.

51. *Gurekin jai duzu esaten dizunak...*
- a) beren ondoan barrea eta algara ziurtatzen dizkizu.
 - b) beraiekin zer eginik ez duzula esaten dizu.
 - c) beraienean jaieguna dela jakinarazten dizu.
 - d) beraiek ezer ez dakitela ohartarazten dizu.
52. Zein da zuzena?
- a) Zure hatzaparren ikutua haizkoraren zartada bezain leguna da.
 - b) Zure atzaparren ikutua aizkoraren zartada bezain leuna da.
 - c) Zure hatzaparren ikutua aizkoraren sartada bezain lehuna da.
 - d) Zure atzaparren ikutua haizkoraren zartada bezain leguna da.
53. *Uholdeak izan ziren aspaldi, baina jasango ditugu.*
- a) osterantzean ere
 - b) ostean ere
 - c) atzera ere
 - d) bestela ere
54. Aukera ezazu zuzena:
- a) Ez dakit etorri den.
 - b) Ez dakit etorri bada.
 - c) Ez dakit etorri denik.
 - d) Ez dakit etorri baden.
55. *Jostuna bizi da.*
- a) josten
 - b) josteko
 - c) jostetik
 - d) jostean
56. *Zergatik egin duzu hori?*
- a) Zergatik bai.
 - b) Zeren beharrezkoa delako.
 - c) Horrexegatik.
 - d) Zeren beharrezkoa da.
57. *Mundua zazpi egunetan sortua dela sinesteak lan du. Bestela esanda: Mundua zazpi egunetan sortua dela...*
- a) ez da erraz sinesten.
 - b) ezin da sinetsi.
 - c) sinesteak nekeak ekarri ditu.
 - d) sinetsita oker gaude.

58. Hauetatik zein ez da intsektua?
- Mandeulia.
 - Kakarraldoa.
 - Labezomorroa.
 - Sugandila.
59. *Arzakenean kokotxa ederrak eta legatza jan daitezke. Hots: Kokotxak ezezik,...*
- Arzakenean ere legatza jan daiteke.
 - Arzakenean legatza ere jan daiteke.
 - Arzakenean legatza jan daiteke ere.
 - ere jan daiteke legatza Arzakenean.
60. *Mikelek arratsaldean ospa egin zuen. Hau da:*
- Zerbaitetan kale egin zuen.
 - Alde egin zuen.
 - Ospea lortu zuen.
 - Zerbait ospatu zuen.
61. *Zer esan Begoñari horrela haserre...*
- zenioten zedin?
 - zenien zedin?
 - zizuen zedila?
 - zenioten zedila?
62. Zerua ilun-ilun ikusten duen batek esango luke:
- Euria agintzen du.
 - Euria dakar.
 - Euria dagoke laster.
 - Euria iragartzen da.
63. Aukera ezazu zuzena:
- Gose daukat eta beldurra ere bai.
 - Gose nago eta beldur ere.
 - Gose naiz eta beldur handia dut.
 - Gosetuta nago eta beldur asko dut.
64. «Ilea orrazteko, zapatak txukuntzeko, arropen hautsa kentzeko eta abarretarako den zurda edo hari-zuntzeko gailua»:
- Orrazea.
 - Erratza.
 - Eskubila.
 - Eskoba.

65. *Zuk ez dakizu ezertxo ere ez. Zerbait al du gaizki esaldi horrek?*
- Zuzena da.
 - Ordena.
 - Zuk* ordez *Zeuk* behar luke.
 - Azkeneko *ez* hori.
66. *Zer hartuko duzue?*
- Kafe bakarra.
 - Kafe hutsa.
 - Kafea hutsik.
 - Kafe bakarrik.
67. *Jendaurreko hitzaldi bati hasiera emateko:*
- Jaun-andreok, zer moduz?
 - Anai-arrebak: ongi etorriak.
 - Jaun-andreok, arratsalde on.
 - Jaun-andreok, kaixo eta agur bero bat.
68. *Lau zerrenda hauetako batean, bada hitz bat ondo ez datorrena besteekin. Zeinetan?*
- Trumoi, oinaztarria, euritea, txingorra.
 - Behelainoa, lanbroa, ihintza, izotza.
 - Oskarbi, sargoria, galdara, ostartea.
 - Kazkabarra, haize-erauntsia, euri-jasa, elur bustia.
69. *Jarri letraz: 665.*
- Seiehun eta hirurogeita bost.
 - Seirehun hirurogei eta bost.
 - Seiehun eta hirurhogeitabost.
 - Seiehun hirurogei eta bost.
70. *Zirt edo zart egin beharko duzu. Zein da baliokidea?*
- Jo egin beharko duzu.
 - Ebaki egin beharko duzu.
 - Erabaki egin beharko duzu.
 - Zarata atera beharko duzu.
71. *Ene, zuk hori entzun duzu? Bada,...*
- niri bestera esan didate.
 - ez da, ba, egia izango!
 - ez da horrelakorik izaten.
 - nik beste gauza entzun dut.

72. Esaldi hauetako bat ez da zuzena. Zein da?
- Badira bost urte lanean hasi nintzela.
 - Orain bost urte hasi nintzen lanean.
 - Orain bost urte hasi nintzela lanean.
 - Bost urte egin ditu lanean hasi nintzela.
73. *asmatu ditu horrek emaitzak.*
- Erabatekoan
 - Bete-betea
 - Zehaztuta
 - Puntu-puntu
74. *Felix Ugartemendia hautatu dute herriko...*
- alkatetzat.
 - alkate.
 - alkatea.
 - alkate bezala.
75. *Gure dendan bada hamaika karpeta. Ez zuk behar duzun kolorekorik,...*
- ordea.
 - horregatik.
 - horrenbestez.
 - horrela.
76. *baino zailagoa ari zait gertatzen lan hori eta nabil.*
- Ustez ezinda
 - Ustez ezinean
 - Uste ezinda
 - Uste ezinean
77. *Irene eta Julen Bilbora ezkondu dira.*
- Ezkontza Bilbon izan da.
 - Ezkondu ondoren Bilbora joan dira.
 - Ezkondu ondorengo bidaiari Bilbora joango dira.
 - Ezkondu eta Bilbon biziko dira.
78. Bilatu *bizitasun edo indarrik gabea* esan nahi duen hitza, esaldi honetarako: *Oso ibili da bolada honetan, baina orain bizkortu egin da.*
- gartsu
 - geldo
 - tajuz
 - bare

79. *Etorri zara eta eskertzen dizugu. Bestela esanda:*
- a) Estimaten dizugu guri etortzea.
 - b) Estimaten dizugu etorri izana.
 - c) Estimaten zaitugu etortzea.
 - d) Estimaten dizugu guri etorria.
80. *..... esan digu hori.*
- a) Joxeren Xalbador semeak
 - b) Joxeren seme Xalbadorrek
 - c) Joxeren semea Xalbadorrek
 - d) Xalbadorrek, Joxeren semea
81. *Hainbat gertatzen omen dira guraso eta seme-alaben arteko komunikazio arazoak.*
- a) familitan
 - b) familiatan
 - c) familietan
 - d) familian
82. *Kanpoan ibili dira, hara eta hona...*
- a) inora joan ezik.
 - b) inora joan gabe.
 - c) zirkinik ere egin gabe.
 - d) noraezean.
83. *Bera iritsi zenerako, ez zegoen inor etxean. Hau da:*
- a) Bera etxera iritsi baino lehen, alde eginak ziren besteak.
 - b) Bera etxera iristen ari zela alde egin zuten besteak.
 - c) Bera etxera iritsi bitartean ez zegoen inor etxean.
 - d) Bera etxera iristeaz batera alde egin zuten besteak.
84. *Zein da zuzena?*
- a) Udazkenean zuhaitzetako horri oriskak erortzear egoten dira.
 - b) Udazkenean zuhaitzetako orri horixkak erortzear egoten dira.
 - c) Udazkenean zuhaitzetako horri horiskak erortzear egoten dira.
 - d) Udazkenean zuhaitzetako orri horizkak erortzear egoten dira.
85. *Ahalik eta lasterren esan genion.*
- a) irteteko
 - b) irtetea
 - c) irten dadin
 - d) irten zezan

86. *Pello astakirten ederra dela? Bada,...*
- semea ere ez dator makala.
 - umea, aitaren semea.
 - umea ere ezpal beretik dihoakio.
 - semea ere ez da atzean gelditzen.
87. *Oso nekatuta zegoen eta bazkalondoan.*
- loa hartu zen
 - loa hartu zuen
 - loak hartu zuen
 - loak hartu zituen
88. *Ondorengo elementuak dira ura osatzen dutenak:...*
- hidrogenoa eta oxigenoa.
 - Hidrojenoa eta oxijenoa.
 - Hidrogenoa eta Oxigenoa.
 - «Hidrogenoa eta Oxigenoa».
89. *Lagunarteko istiluak konpondu behar dira.*
- onarekin
 - onik
 - onean
 - onetik
90. *Estraineko aldiz ikusi dut horrelako ikuskizuna. Zer esan nahi da?*
- Maiz ikusi duela.
 - Batzuetan ikusten duela.
 - Gutxitan ikusi duela.
 - Lehen aldiz ikusi duela.
91. *Jonek ez dauka behar adina diru. Bestela esan:*
- Jon ez dabil ondo dirutik.
 - Jon diruagatik itota dabil.
 - Jon diruz eskas dabil.
 - Jon diruaz gaizki dabil.
92. *Norbaitek zerbait edo beste norbait begiz jota duela esaten duenean, pertsona edo gauza hori duela esan nahi da.*
- aukeratua
 - baztertua
 - ikusia
 - ezaguna

93. Aukera ezazu zuzena:
- a) Ezagutzen dut mutil bat bizikletez dena dakiena.
 - b) Ezagutzen dut mutil bat bizikletetaz dena dakiela.
 - c) Ezagutzen diodan mutil batek bizikleten gainean dena daki.
 - d) Ezagutzen dudan mutil batek bizikletetaz dena daki.
94. Esaldi hauen artean bakar batek du zentzua. Zein da?
- a) Eguzkiari muxin egiteko beste itzalperik ez duzu.
 - b) Eguzkitik gerizatzeko beste itzalperik ez duzu.
 - c) Eguzkitan babesteko beste itzalperik ez duzu.
 - d) Eguzkiaz ezkutatzeko beste itzalperik ez duzu.
95. *Egurrik , neguan hotz.*
- a) ezik
 - b) ezean
 - c) ezen
 - d) ez ezik
96. *Gatz gehiegi bota didazu, aizu!*
- a) Bai zera!
 - b) Ez, gero!
 - c) Ez, ba!
 - d) Ezta antzik ere.
97. *Gaur ez dut astirik izan lana bukatzeko, jarraituko dut.*
- a) bestean
 - b) beste eguna
 - c) beste egunean
 - d) beste egun batean
98. Aukera ezazu zuzena:
- a) Uste dut ez noala, zeren oso nekaturik nago.
 - b) Pentsatu dut ez naizela joango, zergatik nekaturik nago.
 - c) Ez dut uste joango naizenik, nekaturik nago eta.
 - d) Uste dut ez noala, ze nekatuta nagoen.
99. *Askotan esaten diogu, baina entzungor egiten du. Bestela esanda: entzungor egiten du.*
- a) Askotan esandakoan
 - b) Askotan esateagatik
 - c) Askotan esatearren
 - d) Askotan esanagatik

100. *Ez dakit non sartu diren, dakidan gauza bakarra da gau osoa dutela kolean, parrandan.*

- a) bota
- b) erabili
- c) ibili
- d) eman

1.6. 1994/4/23

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Bere ohizko egunak nolakoak diren adieraztean, zer ez du esaten Retegik?
 - a) Goizean goiz jaikitzen dela entrenatzeko.
 - b) Beste edozeinek bezalako bizimodua egiten duela.
 - c) Gauean ez dela berandu etxeratzen.
2. Zer dio Retegik lortu duen bederatzigarren txapelaz?
 - a) Aurrekoak baino garrantzitsuagoa dela.
 - b) Lortu dituen beste guztien arteko bat baino ez dela.
 - c) Bederatzi txapela lortu ondoren, erlajatuta sentitzen dela.
3. Hamargarren txapela, aldiz:
 - a) Hurrengo urterako jarri duen helburua da.
 - b) Ez da Retegiren kezka nagusia.
 - c) Oso marka handia izanik, lortzeko obligazioa sentitzen du.
4. Hauetako zein da egia?
 - a) Retegik 33 urte dauzka eta Leitzan bizi izan da oraintsu arte.
 - b) Retegiren sorterrria Erasundik 17 kilometrotara dago.
 - c) Retegi Iruñean bizi da, baina sortzez herri txiki bateko semea da.
5. Zer gertatzen zen Retegiren gaztaroko mutilekin?
 - a) Pelotazaleak zirela batez ere.
 - b) Ez zirela oso ikasle saiatuak.
 - c) Haietako batzuk lehen mailan zebiltzala pelotan.

BIGARREN ATALA

6. Pelotari profesionala izan aurretik, hauetako zein lanetan ez zen ihardun?
 - a) Basomutil lanetan.
 - b) Hargintzan.
 - c) Artzantzan.

7. Noiz aritu zen Julian nekazaritzan?
 - a) Beste herri bateko senitartekoei laguntzen zienean.
 - b) Txikitan, fabrika hasi baino lehen.
 - c) Inoiz ere ez.

8. Noiz ibili zen Frantzian lanean?
 - a) Fabrika utzi ondoren, urtero zortzi hilabete egiten zituen.
 - b) Hogei urte bete baino lehen.
 - c) Neguan izan ezik, urte osoan 19 urte bete zituen arte.

9. Nola hasi zen berriro pelotan?
 - a) Osabak berarekin entrenatzera eraman zuenean.
 - b) Bere osabak txapelketako finala jokatu behar zuela ikusi zuenean.
 - c) Frantzian egindako lanari esker hobeto prestatuta zegoela konturatu zenean.

10. Zer dio pelotaria izateko familiak eman dezakeen laguntzaz?
 - a) Oso garrantzitsua dela beti.
 - b) Bere alde on eta txarrak izaten dituela.
 - c) Beti ez dela segurua izaten.

HIRUGARREN ATALA

11. Nola lortu zuen lehen txapela?
 - a) Debutatu zuen lehen urtean bertan.
 - b) Zarautzen, bigarren mailan jokatzeko ari zenean.
 - c) Artean ere berde xamar egon arren.

12. Zer dio bere osabaren kontra jokatu zuen partiduez?
 - a) Jendea orduantxe konturatu zela haren kalitateaz.
 - b) Duela hogeitabi urte gertatu zela eta 22-1 geratu zirela.
 - c) Emaitzak ez duela ongi erakusten partidua nolakoa izan zen.

13. Bere botileroa oso garrantzitsua izan da beretzat. Zergatik?
- a) Bere osaba zelako.
 - b) Oso aholkulari ona delako.
 - c) Oso gizon lasaia delako.
14. Zer dio partidu batean aldageletara sartzeko ohituraz?
- a) Ez dela bere gustukoa.
 - b) Batez ere Galartzaren ohitura dela.
 - c) Premiakoa izaten dela lasaitzeko.
15. Hauetako zein trikimailu ez da aipatzen, aurkariaren erritmoa mozteari dagokionean?
- a) Pelota garbitzen luzatzea.
 - b) Aldageletara sartzea.
 - c) Frontoian geratzea, bestea aldageletan dagoen bitartean.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

16. Aukera ezazu zuzena:
- Atzerrian bizi zen bitartean sarritan oroitzen zen etxekoetaz.
 - Atzeherrian bizi zen bitartean zarritan oroitzen zen etxekoez.
 - Atzerrian bizi zen bitartean sarritan oroitzen zen etxekoez.
 - Atzerrian bizi zen bitartean sarritan oroitzen zen etxekoetaz.
17. *Aita, utziko al didazu lagunekin irteten?*
- Ezta pentsatu ere!
 - Ezetz ba!
 - Ezetz eta ezetz! Ezin da izan.
 - Ezezkoan nago.
18. *Ez dago debekatuta hori...*
- egiteko.
 - egiten.
 - egiterik.
 - egitea.
19. *Harri eta zur geratu dira. Bestela esan:*
- Mela-mela geratu dira.
 - Zirt eta zart geratu dira.
 - Irri eta mirri geratu dira.
 - Sor eta lor geratu dira.
20. *Zer, bazatozte gurekin ala ez?*
- Bai, bagoaz.
 - Bai, goaz.
 - Bai goazela.
 - Bai, goazela, ba.
21. «Burdinaz eta karbonoz osatutako aleazioa»:
- Altzaria.
 - Altzairua.
 - Haltza.
 - Azeria.
22. Hitzaldi baten hasiera egokia:
- Arratsalde on, jaunak. Donostiar bat gogoratzuz hasiko naiz.
 - Arratsalde on, jaun-andreok. Donostiar bat gogoratzuz hasiko nauk.
 - Arratsalde on, jaun-andreok. Donostiar bat gogoratzuz hasiko naiz.
 - Kaixo, jaun-andreok. Donostiar bat gogoratzuz hasiko naiz.

23. Harridura adierazi nahi duzu, Bilbon gertatu den ezohizko gauza bati buruz:
- a) Non eta Bilbon gertatu behar!
 - b) Nola ez, ba, Bilbon gertatu bailitzan!
 - c) Zergatik gertatu behar Bilbo batean?
 - d) Non edo non, Bilbon gertatu da!
24. Nola esaten zaio ilargi berritik ilargi betera doan aldiari?
- a) Ilgora.
 - b) Ilbehera.
 - c) Ilberri.
 - d) Ilargialdi.
25. *Atzo guztia ulertu nion irakasleari; gaur, , tutik ez.*
- a) ordez
 - b) orobat
 - c) ostera
 - d) gainera
26. Zer esango zenuke jatekoren bat irentsi eta behar ez den lekutik joaten zaizunean, ondoeza sortuz?
- a) Atzekoz aurrera jan dut.
 - b) Mihia jan dut, ia-ia!
 - c) Okerreko zulotik ez zait joan, ba!
 - d) Aldrebesetik joan zait!
27. *Haserre antzean baina azkenean joan esan du.*
- a) zaitezten
 - b) zaitezketela
 - c) zinateketela
 - d) zoaztela
28. Senideren bat galdu berri duen ezagun edo adiskide bat ikustean, zer esango diozu?
- a) Bejondeizula, adiskidea!
 - b) Laguntzen dizut nahigabeen.
 - c) Bihotzean min dut zuri gertatua ikustean.
 - d) Damu dut zuri halakorik gertatua.
29. *Bost mila pezeta ordaindu eta jenero ezin eskasagoa eman zidan.*
- a) Lapurra hori!
 - b) Lapurra nolakoa!
 - c) Lapurra halakoa!
 - d) Bada lapurra!

30. *Gure bankuan, 10.000 pta. besterik ez duzu ordainduko milioi...*
- hileroko bakoitza.
 - hilero bakoitzean.
 - hileko bakoitzarengatik.
 - hilean bakoitzeko.
31. «Itzasuntziak loturik eta ondo finkaturik uzteko erabiltzen den burdinazko tresna astuna»:
- Krisketa.
 - Morroiloa.
 - Aingura.
 - Langa.
32. Zein egunetan iritsi zen Kristobal Kolon Ameriketara?
- 1492.eko urriaren 12a.
 - 1492eko urriaren 12.
 - 1492ko urriaren 12an.
 - 1492garreneko urriak 12an.
33. Zerbait posibletzat jotzen denean:
- Bai, sinesgaitza da.
 - Bai, noski.
 - Baliteke.
 - Zalantzarik ez egin.
34. Norbait *goian zerua eta behean lurra gelditu* dela esaten dugunean, zer esan nahi dugu?
- Dena galdu duela.
 - Etxera sartu gabe gelditu dela.
 - Hilda dagoela.
 - Urrun dagoela.
35. *Marta* *bizi da*.
- Andereino Oinatin
 - Andereino Oñatin
 - Andereño Oinatin
 - Andereño Oñatin
36. *Jakinaren gainean zaude eta, , badakizu zer egin.*
- beraz
 - hala ere
 - ezpabere
 - ordea

37. *Salto egin zuen uretara...*
- a) galtzerdiekin eta guzti.
 - b) galtzerdi eta guzti.
 - c) galtzerdiak eta guzti.
 - d) galtzerdiz eta guzti.
38. *Zaharrak berri* esanez erantzun dakioke galdera honi:
- a) Nola dihoakizu?
 - b) Bizi al haiz?
 - c) Zer moduz?
 - d) Zer berri?
39. *Erresuma Batuko ordezkariak malgutasuna eskatu zien Edinburghen Europako Elkartearen finantziaketa negoziatzen ari ziren hamaika kideei.*
- a) gainontzeko
 - b) bestelako
 - c) aparteko
 - d) ondoko
40. «Izpiritu hutsezko izakia, Jainkoa eta gizon-emakumeen arteko bitartekoa»:
- a) Intxixua.
 - b) Aingerua.
 - c) Gotzaina.
 - d) Aztia.
41. *Gainontzekoei begira egon gabe...*
- a) norbera zaintzea hobe.
 - b) bakoitzak norbera zaintzea hobe.
 - c) nork bere burua zaintzea hobe.
 - d) norbera bere kasa zaintzea hobe.
42. *Zelan galdu?,...*
- a) irabazi badu!
 - b) irabazi duela!
 - c) irabazi egin badu!
 - d) irabazi egin du eta!
43. «Gauzen alderdi txarra edo ekintzen alderdi zaila baino ikusten ez duen pertsona»:
- a) Suminkorra.
 - b) Ezkorra.
 - c) Ezkertiarra.
 - d) Erretxina.

44. «Play-boy» jantzita zihoan.
- bat antzera
 - bat moduan
 - bezala
 - baten gisa
45. Zer esan nahi du hurrengo esaldiak? *Izan ere, asko da zu garaiz heltzea!*
- Garaiz heldu zarela, betiko moduan.
 - Benetan harrigarria dela zu garaiz iristea.
 - Izatez puntuala zarela, eta ez dela gutxi.
 - Gaur berandu heldu zarela, baina gehienetan garaiz.
46. *Nagusiak erabateko konfiantza dauka Ez du beste inor hartu nahi.*
- zuregatik.
 - zukan.
 - zutan.
 - zutaz.
47. *Txapelketan parte hartzeko epea amaituko da.*
- hileko 15ean
 - 15 egunean
 - hilak 15ean
 - hilaren 15ean
48. *Sailburuak euskal enpresei proiektu berrietan inberti aholkatu...*
- dezaten diete.
 - dezaten dizkie.
 - dezatela die.
 - dezatela du.
49. *Azken egunetan ez dut lo askorik egin eta gaur...*
- ezin dut gehiago.
 - loari eutsi ezinik nabil.
 - loak hartzen nau.
 - lotan nago.
50. *Nik, egia aitortuko dizuet, ere ez dakit gai horretaz.*
- zirkinik
 - zerarik
 - idearik
 - deusik

51. Zer esan nahi dute *EAE* siglek?
- a) Euskal Autonomi Elkarte.
 - b) Elkarre Autonomo Euskalduna.
 - c) Euskalerriko Autonomiko Elkarte.
 - d) Euskadiko Autonomiadun Elkarte.
52. *baduzu, mesedez galde...*
- a) Galdetzerik iezazu.
 - b) Galdetzea ezaiozu.
 - c) Galdetzerik iezaiozu.
 - d) Galderarik ezaiozu.
53. *Ez etsi, eutsi!* Bestela esanda:
- a) Heldu horri, ez erortzen utzi!
 - b) Ez duzu utzi behar, gorde baino!
 - c) Ez daukazunean, neuk emango dizut!
 - d) Adorerik galdu gabe, ekin!
54. *Busti-busti eginda* esateko beste modu bat:
- a) Plasta-plasta eginda.
 - b) Gulu-gulu eginda.
 - c) Blai eginda.
 - d) Txutxu-putxu eginda.
55. *Eta uda joan eta uda etorri, estuagoak egin ziren bien arteko harremanak.*
- a) zenbat eta
 - b) gero eta
 - c) horrela eta
 - d) estu eta
56. Hitz multzo hauetan, zein dago ongi?
- a) Hurrengoa, hurrun, hirria, horria, hurria.
 - b) Urrengoa, urrun, hirria, horria, hurria.
 - c) Hurrengoa, hurrun, hirria, orria, urria.
 - d) Hurrengoa, urrun, irria, orria, urria.
57. *Banoa,...*
- a) Nekane itxaroten ari zait eta.
 - b) Nekane esperoan daukat eta.
 - c) Nekane itxoin egiten dago eta.
 - d) Nekane zain daukat eta.

58. *Nazio Batuek hainbat ebazpenetan Iraken aurka agindu dituzten zigorrak betetzeke daudela ikusteak berealdiko kezka sortzen diola adierazi du Europako Komunitateak. Hortaz:*
- Nazio Batuek agindutako zigorrak ez dira bete.
 - Iraken ebazpenek kezka sortarazi diote Europari.
 - Europak ezarritako zigorrak bete egin dira.
 - Nazio Batuen zigorrak ebazpenen bitartez bete dira.
59. *Autopistetako abiadura:...*
- gehiegizko ordurako 120 km.
 - gehienezko orduko 120 km.
 - gehiegiko 120 km. orduan.
 - gehiagoko 120 km. ordura.
60. *Tira, umeok, gu kanpoan gauden bitartean zuek...*
- zelatatzen egon.
 - on egin.
 - zaudete kontuz.
 - txintxo ibili.
61. *Mila esker mesedeagatik!*
- Ez dago arrazoirik.
 - Ez horregatik.
 - Ez dago zertan.
 - Bai, noski.
62. *Euskadiko Txapelketarako sailkapenean alde handiz aurreneko postuan dira Arrieta eta Mendiluze, bost partidu jokatu eta bostak...*
- irabazi.
 - irabazita.
 - irabaziz.
 - irabazitakoan.
63. *Aukera ezazu zuzena:*
- Nahi bazenuten, galdera guztiak erantzungo zenituzten.
 - Nahi izango bazenute, galdera guztiak erantzungo zenituzkete.
 - Nahi bazenute, galdera denak erantzungo zenituzkete.
 - Nahi baduzue, galdera guztiak erantzungo zenukete.
64. *Ez hartu horrenbeste pisu,...*
- ez zaizula komeni.
 - ez zaizuna komeni.
 - ez zaizu komeni eta.
 - ez zaizu komenitzen.

65. *Goizetik gauera lanean aritu da eta eginda etorri zaigu etxera.*
- a) nekatu
 - b) nekatuta
 - c) neka-neka
 - d) nekatu-nekatu
66. *Nik zizak lehenbizi Bentaberrin jan nituen,...*
- a) eta gustora jan.
 - b) eta ere gustora jan.
 - c) eta gustora ere jan.
 - d) eta gustora jan ere.
67. «Urak bigunduz eta pisuaren pisuaz gertatzen den lur multzoen irristadura»:
- a) Luberria.
 - b) Luebakia.
 - c) Lurrikara.
 - d) Lubizia.
68. *Adarra jo nahi zidaten, euskaraz ez nekielakoan, baina bizkaieraz hasi nintzen eta...*
- a) hutsaren pare geratu ziren.
 - b) aho bete hortz utzi nituen.
 - c) aho-zabalka geratu ziren.
 - d) iruzurra egin nien.
69. *Aurki dugu Martin gurekin! Hortaz:*
- a) Laster etorriko da.
 - b) Auskalo noiz etorriko den.
 - c) Hemen dago dagoeneko.
 - d) Hemen dago baina ez dakigu zehazki non.
70. *Fernando eta Isabel Katolikoak dira.*
- a) Errege
 - b) Errege-Erregin
 - c) Erret
 - d) Errege-Erregina
71. *Galdezka hasiko edozeini, arrazoia emango liguke.*
- a) bagina
 - b) bagenio
 - c) bagintzaio
 - d) bagintzaizkio

72. *Kontu hori nik ere entzun dut baita. Esaldi hau okerra da. Zein da zuzena?*
- a) Kontu hori nik baita entzun dut.
 - b) Kontu hori baita entzun dut nik.
 - c) Neuk ere entzun dut kontu hori.
 - d) Entzun nik baita egin dut kontu hori.
73. *Norbait etortzeko irrikatzen zaudenean:*
- a) Etorriko ahal da!
 - b) Etor ledin nahi nuke!
 - c) Baietz etorri!
 - d) Datorrela mesedez!
74. *Zein da egokiena?*
- a) Jakingo banu esango nizun.
 - b) Jakin banu esaten nizun.
 - c) Banekike esango nizuke.
 - d) Esango nizuke, bai, neuk baneki.
75. *Zer esan duzu?*
- a) Zer esan dudala?
 - b) Zer esan dut?
 - c) Zer esan dudan?
 - d) Zer esan duten?
76. *Adierazi duena egia bada ere, ez diote sinestu. Aukeratu baliokidea.*
- a) Nahiz eta adierazi duena ez den egia, sinestu egin diote.
 - b) Ez diote sinestu, adierazi duena gezurra zelako.
 - c) Adierazi duena egia zen arren, ez diote sinestuko.
 - d) Adierazi duena egia izanik ere, ez diote sinestu.
77. *Zein dago oker?*
- a) Ainhoa eta Mikel neba-arrebak dira.
 - b) Neska horren arreba da Maria.
 - c) Neska horiek ahizpak dira.
 - d) Itziar Jonen arreba da.
78. *Ez iezadazu postrerik atera,...*
- a) aho-beteka bazkaldu dut eta!
 - b) ase-asetan nagoelako!
 - c) gainezka bainago!
 - d) bete-bete eginda nago eta!

79. *Oilaskoa jan arraultzeak jan berdin zitzaiela esan zidaten.*

- a) ala
- b) nola
- c) ez ezik
- d) edo

80. *Aurtengo Malagara joango gara.*

- a) aste santuan
- b) Astesantuan
- c) Aste Santuan
- d) «aste santuan»

81. *Ez da erraza iturria aurkitzea zenbait...*

- a) herrietan.
- b) tokietan.
- c) hiritan.
- d) kaleetan.

82. *Aurten ere elur ugari dakar!*

- a) Horixe baietz.
- b) Ez, noski.
- c) Bai, antza.
- d) Bai, dakar...!

83. *Saria lortzekotan, jokatu egin beharko duzu. Bestela esanda:*

- a) Saria lortzeko nahian, jokatu egin beharko duzu.
- b) Saria lortuz gero, jokatu egin beharko duzu.
- c) Saria lortuko baduzu, jokatu egin beharko duzu.
- d) Saria lortu baduzu, jokatu egin beharko duzu.

84. *Aukera ezazu zuzena:*

- a) Erlojuaren horratzak ezkerretik eskuinera mobitzen dira.
- b) Erlojuaren orratzak ezkerretik eskuinera mugitzen dira.
- c) Erlojuaren orratzak eskerretik eskuinera mogitzen dira.
- d) Erlojuaren orratsak ezkerretik ezkuinera mugitzen dira.

85. *Norabait sartzeko eskaria, orohar:*

- a) Mesedez, utziko didazu sartzen?
- b) Tira, utzi sartzen!
- c) Aizu, uzten sartzen?
- d) Mesedez, uzten al didazu sartzea?

86. *Umeak beti ume, baina bada aldea!*
- ume artean
 - umearekiko
 - umearengandik umearengana
 - umetik umerara
87. *Lehen soldata jasotzeaz liburutan xahutzea erabaki du.*
- bezain azkar
 - gero
 - berehala
 - bat
88. Zein da zuzena?
- Zazi artean galdu nuen saskia ahizparena zen.
 - Sasi artean galdu nuen zaskia aizparena zen.
 - Sasi artean galdu nuen saskia ahizparena zen.
 - Sazi artean galdu nuen zaskia aizparena zen.
89. Motorra saltzeko iragarkia:
- Motorra saltzen dut eta ezinago merkea.
 - Motorra salmentan; aukerakoa.
 - Motorra salgai: aukerako prezioa.
 - Motor salgarria: prezioa eztabaidagai.
90. *Etxe honetan diru asko dago, nonbait* esaten denean, zer esan nahi da *nonbait* hitzarekin?
- Ez dakigula zein lekutan dagoen dirua.
 - Antza denez, badagoela diru asko.
 - Ziur dakigula dirua dagoela.
 - Benetan ez dagoela diru askorik.
91. Hurrengo esaldietatik, zein da **okerra**?
- Mugako bestaldean ezkutatu ziren gudari batzuk.
 - Txitxardin bila ibiltzen dira batzuk Gabonetan.
 - Zure antzera nabil neu ere.
 - Jonez landa ez zegoen inor han.
92. *Bihar Bilbora joatekoak dira.* Zer esan nahi du?
- Bihar Bilbora joango direla.
 - Bilbora joatekotan, bihar joango direla.
 - Joatekotan, bihar joango direla Bilbora.
 - Bihar Bilbora joateko asmoa dutela.

93. *Zuenean jandakoak...*
- a) ez dit onik egin.
 - b) kaltetu nau.
 - c) kaltetan utzi nau.
 - d) txarto egin dit.
94. Eskutitz formal baten bukaeran, eskaera bat egin ostean:
- a) Eskaeraren ziurtasuna bermatzen duzulako ustetan, agurtuz...
 - b) Gure eskaera aintzat hartuko duzulakoan, agurtzen zaitugu...
 - c) Emango diguzula esperoan, agur t'erdi...
 - d) Lortuko dugulakoan, pozik agurtzen gara...
95. *Atzo ez egun osoan ikusi.*
- a) zaituztedan
 - b) zintuztedan
 - c) nizuen
 - d) nizkizuen
96. *Etxea ilun-ilun zegoen, eta zarata entzutean, aldegin zuen.*
- a) tximistak jota
 - b) beldur-damuz
 - c) ikarak aidean
 - d) izugarri
97. *Ez jan gehiago...*
- a) bukatu ezinik bazabiltza.
 - b) bukatu ezinez bazaude.
 - c) amaitzear baduzu.
 - d) akabatu ezinik bazabiltza.
98. Zein da lumagabea?
- a) Hegaluzea.
 - b) Txonta.
 - c) Kaioa.
 - d) Birigarroa.
99. *Umeez hondartzara joan nahi zuten. Gurasoek, , mendira.*
- a) bestalde
 - b) ordea
 - c) berez
 - d) behinik behin
100. Zerbait askotan esan duzula adierazteko:
- a) Hogei bider esana dut!
 - b) Hamar bider esana dut
 - c) Zazpi bider esana dut!
 - d) Hamaika bider esana dut!

1.7. 1994/9/17

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Zer da A. Irigoien ogibidez eta afizioz?
 - a) Ogibidez, eskultore eta pintore; afizioz, ikertzaile.
 - b) Ogibidez, poeta; afizioz, eskultore eta pintore.
 - c) Ogibidez, ikertzaile; afizioz, poeta.
2. Non ikasi zuen euskara A. Irigoienek?
 - a) Deba parteko Elorrixa bailaran.
 - b) Bilbon.
 - c) Billaroko baserri batean.
3. Gerra hasi zenean nora abiatu zen Alfontso Irigoien?
 - a) Amaren jaioterrira.
 - b) Aitaren jaioterrira.
 - c) Bilbora.
4. A. Irigoienek zer gogoratzen du Bilbon bizi izandako gerra garaiaz?
 - a) Txantxetan esaten zietela abioiak zetozela.
 - b) Tunel batean bizi behar izan zuela.
 - c) Abioiak zetozenean abisua ematen zutela.
5. Gaztetan, hogeita hamar urte izan baino lehen, zer ikasi zuen A. Irigoienek?
 - a) Ezer ez; lanean ari zen.
 - b) Batxilerra, baina Filosofia eta Letrarik ez.
 - c) Holakoak eta halakoak, baina ikasketa formalik ez.

6. A. Irigoienek ikasgaiz ikasgai egin behar izan zituen ikasketak. Zeintzuk?
- a) Filosofia eta Letrak.
 - b) Batxilerra.
 - c) Salamancako unibertsitate-ikasketak.

BIGARREN ATALA

7. Zer egin zuen 1952-1953 urteetan?
- a) Orduan sartu zen Euskaltzaindiaren inguruan.
 - b) Orduan hasi zen Euskaltzaindian liburuak erosten.
 - c) Unibertsitate ikasketak egiten ari zen.
8. Zer harreman izan zuen pinturaren munduarekin?
- a) Pintura erakusketa batean ere parte hartu zuen.
 - b) Krutwigekin batera pintatzen zuen.
 - c) Ibarrolaren taldean sartu zen.
9. Zer dio Ateneoaren sorreraz?
- a) Pintore eta artistak biltzeko sortu zela.
 - b) Bilboko Cintureria kalean zegoela.
 - c) Krutwig izan zela sortzaileetako bat.
10. Ateneoaz ari dela, zer dio?
- a) Ateneoan euskara batua bultzatu eta irakatsi nahi zela.
 - b) Ateneoaren hasierako bidea agorturik geratu zela.
 - c) Ateneoak hasieratik jaso zuela agintarien onspena.
11. A. Irigoien eta Krutwigen arteko berriketaldi gehienak zertaz izaten ziren?
- a) Politika eta kulturaren ingurukoak izaten ziren.
 - b) Hizkuntza eta kulturaren ingurukoak izaten ziren.
 - c) Hizkuntza eta politikaren ingurukoak izaten ziren.
12. Euskaltzaindian emandako zein hitzaldi aipatzen du?
- a) Villasantek eman eta Krutwigek erantzundakoa.
 - b) Berak eman eta Villasantek erantzundakoa.
 - c) Krutwigek eman eta Villasantek erantzundakoa.

HIRUGARREN ATALA

13. Antolatu zituzten gerra osteko lehen bertsolari txapelketak, hurrenez hurren, zeintzuk izan ziren?
- a) Gipuzkoakoa, Bizkaikoa, Nafarroakoa, Euskal Herrikoa.
 - b) Euskal Herrikoa, Bizkaikoa, Gipuzkoakoa, Nafarroakoa.
 - c) Bizkaikoa, Nafarroakoa, Gipuzkoakoa, Euskal Herrikoa.

14. Gipuzkoako txapelketa izan zen antolatzen zailena. Zergatik?
- a) Gipuzkoan euskara galerazita zegoelako.
 - b) Bertsolariek nahi ez zutelako.
 - c) Entzuleen erantzunik ez zegoelako.
15. Zergatik bultzatu zuten, besteak beste, bertsolaritza?
- a) Politikan sartu nahi ez zutelako.
 - b) Euskalgintza eta politika egiteko modu bat zelako.
 - c) Euskararen alde batasunik ez zegoelako.
16. Zergatik hartu zituen Euskaltzaindiak bereak ez ziren lanak?
- a) Hartarako beste erakunderik ez zegoelako.
 - b) Hiritarren eskaririk ez zegoelako.
 - c) Hizkuntz Akademia zelako.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

17. *Istripua izan omen du Felipek.*
- a) Horixe besterik ez zuen behar!
 - b) Koittadua!
 - c) Ze dohakabea!
 - d) Ez gara inor!
18. Zein da zuzena euskara batuaz?
- a) Oso azkar dihoazte.
 - b) Gehiegi edaten dute gazte hoiek aste bukaeran.
 - c) Kultur handiaren jabea zen gure aitona.
 - d) Hainbat testu zaharretan irakur daiteke.
19. «Hainbat zereginetarako eta apaingarri legez erabiltzen diren etxe barruko tresna mugigaietako bakoitza»:
- a) Altzaria.
 - b) Altzairua.
 - c) Haltza.
 - d) Azeria.
20. Nola irakurtzen da hau? $(16 \times 100) / 80 = 20$
- a) Hamasei ehuneko laurogeitan zatiturik da hoge.
 - b) Hamasei aldiz ehun zatiketa laurogei ematen hoge.
 - c) Hamasei biderkatuz ehunengatik zatituz laurogeigatik berdin hoge.
 - d) Hamasei bider ehun zati laurogei berdin hoge.
21. Hauetatik zein ez da bidea?
- a) Bide zidorra.
 - b) Estrata.
 - c) Galtzada.
 - d) Geruza.
22. *Ikasgelan ez zegoen ikasle bakar bat ere Lope de Agirre nor zen...*
- a) zekiela.
 - b) zekien.
 - c) zekienik.
 - d) zekienak.
23. *Etxe bat erosteko irrikitan zaude. Bestela esan:*
- a) Etxe bat erosteko gogo bizia duzu.
 - b) Etxe bat erosteko gogoak dituzu.
 - c) Etxe bat erosteko asmotan zabilta.
 - d) Etxe bat erosteko ahaleginetan zabilta.

24. *Israel eta Libanoren arteko mugan bizi den tentsioak jarraitzen du oraindik ere.*
- a) ozta-ozta
 - b) gorri-gorri
 - c) gori-gori
 - d) estu-estu
25. Ondokoetariko batean puntua eta koma **gaizki** erabili da. Zeinetan?
- a) Honako hauek aukeratu zituzten ordezkari: Arrieta, Araban; Mardones, Gipuzkoan; Martinez, Bizkaian; eta Ibisate, Nafarroan.
 - b) Hiru kirolari joan ziren mahai-ingurura: Indurain, txirrindularia; Zubizarreta, futbolaria; eta Perurena, harri-jasotzailea.
 - c) Ez da zuk esan duzuna, ez; nik esan dudana da.
 - d) Harako esaldi zaharraz baliaturik laburtuko nuke neure hitzaldia; «Xo-xoak beleari ipurbeltz».
26. Zer adierazten du esaldi honek? *Ministroak dio bera ez dela arazo hori argitzeko giltzarria.*
- a) Norbaitentzat izatekotan, berarentzat dela posible arazoa argitzea.
 - b) Ez dagoela bere esku arazo horren argitzea.
 - c) Bere burua gai ikusten duela arazo horren argitzerako.
 - d) Arazoaren argitzea irekita dagoela guztientzat, ministroarentzat izan ezik.
27. *Kokoteraino nago kontu horrekin...*
- a) Hobeto da hizketaz aldatzea.
 - b) Hobe da beste zerbaitez mintzatzatea.
 - c) Hobe da beste arazorik aipatzea.
 - d) Hobe da hitzaldiaz aldatzea.
28. *Eta argi esan zigun berriz ere puskatzen , ordaindu egin beharko...*
- a) bagenuen genuela.
 - b) bagenu genuela.
 - c) bagenuen genukeela.
 - d) bagenituen genuela.
29. Hurrengoetatik zein **ez** da zuzena gutun batean?
- a) Eskari bat egiteko asmoz jotzen dut zuregana.
 - b) Zuregana zuzentzen natzaizu ondokoak jakinarazteko.
 - c) Lerro hauen helburua ondokoak jakinaraztea da.
 - d) Honen bidez ondokoak jakinarazi nahi dizkizut.

30. *Ikaragarria izan zen orduan gertatu zitzaiguna...*
- Halakorik!
 - Hau larritasuna!
 - Hori larritasuna!
 - Beldur handia!
31. *Hor ari zaizkigu noiz alboka, noiz txirula jotzen. Nola esan daiteke beste era batera?*
- Hor ari zaizkigu alboka eta txirula batera jotzen.
 - Hor ari zaizkigu alboka eta txirula etengabe jotzen.
 - Hor ari zaizkigu batean alboka, bestean txirula jotzen.
 - Hor ari zaizkigu alboka eta txirula jotzen.
32. *Norekin bazkaldu zenuen?*
- Santi osabarekin.
 - Osaba Santirekin.
 - Santi eta Mikel osabekin.
 - Nire Santi osabarekin.
33. *Horrek gezur galantak esaten ditu; honek, , bat ere ez.*
- hala ere
 - ostera
 - besterik
 - orobat
34. Ondoko izenotatik batek ez du *h*-rik behar: zein da?
- Horria.
 - Hostoa.
 - Horma.
 - Hesia.
35. Gizabidearen ikuspegitik, zein esaldi da egokiena Hirigintza-bulegoan sar-tzean?
- Esango didak non ematen duten obra txikietarako baimena?
 - Non ematen dute obra txikietarako baimena?
 - Egun on! Esango didazu, mesedez, non ematen duten obra txikietarako baimena?
 - Eup! Obra txikietarako baimena non?
36. Albiste emanaldi batean, zein ez da zuzena?
- Istilu gogorak gertatu ziren.
 - Gatazka handiak gertatu ziren.
 - Ez ziren nolana hiko iskanbilak izan.
 - Kristorenak gertatu ziren.

37. *Mesedez, Arte Ederretako Museora joateko...?*
- Jo ezkerretara, segi zuzen eta hartu bigarrena eskuinetara.
 - Hartu ezkerre, segi zuzenean eta dobla bigarrena eskuinera.
 - Lehen ezkerre, jarrai zuzena eta bigarrena eskuinez.
 - Eman ezkerrez, jo aurrera eta desbideratu eskuineko bigarrenez.
38. «Ibaietan bizi den suge gisako arraina, azal likin labankorra duena»:
- Ezkailua.
 - Ugaraba.
 - Izokina.
 - Aingira.
39. Zer adierazten du esaldi honek? *Nik, neure artean, Cubara joatea egoki zela esan nuen.*
- Nik, neure haserrean, ez nuela onetsi Cubara joatea.
 - Nik planteatu nuela lehenengoz Cubara joatea.
 - Famili giroan esan nuela Cubara joatea gauza egokia zela.
 - Neure barrurako esan nuela ondo neritzola Cubara joateari.
40. Zer esan nahi du hurrengo esaldiak? *Izan ere, asko da zu garaiz heltzea!*
- Garaiz heldu zarela, betiko moduan.
 - Benetan harrigarria dela zu garaiz iristea.
 - Izatez puntuala zarela, eta ez dela gutxi.
 - Gaur berandu heldu zarela, baina gehienetan garaiz.
41. Bilatu *bizkortasuna galdu* esan nahi duen hitza, esaldi honetarako: *Aitzur-lanean ibilita eskuak egin zaizkit.*
- baldatu
 - baldartu
 - balditu
 - baldrestu
42. Telefonoz galdetzen dizutenean *Iker etxean al dago?*, nola erantzuten duzu?
- Ez, ez dago; nahi baduzu esaten diot deitzeko.
 - Ez, ez dago; nahi al duzu deitzeko esatea?
 - Ez, ez dago; esan ahal diot deitzea.
 - Ez, ez dago; esan ahal diot deitzea zuri.
43. Alferraren leloa:
- Ez dut lanik egitea nahi.
 - Ez dut lanik egiterik nahi.
 - Ez dut lanik egin nahi.
 - Ez dut lana egin nahi.

44. *Hitza beteko dutela sinesteak lan du.* Bestela esanda:
- Lan handia egin behar da hitza betetzeko.
 - Ez da erraza hitza beteko dutela sinestea.
 - Erraza da haiei sinestea.
 - Hitzeko gizonak dira.
45. Ondokoetariko hitz sorta batean ortografi **huts** bat dago. Zeinetan?
- Harrotu, hurrun, herdoildu, hondartza, sehaska.
 - Suziria, sabaia, sustraia, sasia, zozoa.
 - Itsaso, garrantzitsua, bitsa, mahatsa, itsatsi.
 - Gaixoa, andereño, Oñati, Iruñea, milioia.
46. *Kontakatu ederra da Jon.* Zer adierazten du esamolde honek?
- Itxurazko tresneria duela.
 - Ipuin kontalari ona dela.
 - Ez dakiela sekreturik gordetzen.
 - Sukaldari ona dela.
47. Erabaki beharrekoak bertan behera utzi eta kontu-kontari hasten denari nola esango zenioke mindu gabe?
- Ez ibil adarretatik!
 - Astuna zara, gero!
 - Utzi berriketak!
 - Goazen harira!
48. *Azkarra da, eta, , ez du tutik ulertzen.*
- halaber
 - beraz
 - hala ere
 - bada
49. *Ados zaude, ezta?*
- Noski baietz.
 - Noski ezetz.
 - Bai, noski.
 - Alajaina!
50. Nola esaten da «itsasontzi batetik lurrera jaitsi»?
- Lurra jo.
 - Lehorreratu.
 - Lurrartu.
 - Lehortu.

51. *Jai duzu beti berandu etortzen direnekin. Bestela esan:*
- a) Jai-eguna emango dizute zuri ere beraiekin ibiltzen bazara.
 - b) Beti haserretzen zara beraiekin berandu etortzen direlako.
 - c) Ez duzu zer lorturik ez zer eginik berandu etortzen direnekin.
 - d) Egon lasai berandu etortzen direnekin.
52. *Laranja jaten hasi baino lehen...*
- a) zuritu egiten dugu.
 - b) azala ateratzen diogu.
 - c) azala zuritzen diogu.
 - d) kitatu egiten diogu azala.
53. *Arazo hori dela eta ez du erruki erakutsi.*
- a) asko
 - b) haundia
 - c) askorik
 - d) handirik
54. *Arazo hori gaur bertan konpondu behar dugu; gorriak ikusiko ditugu...*
- a) horrela.
 - b) bestalde.
 - c) horrenbestez.
 - d) bestela.
55. *Eusko Jaurlaritzaren ezin izan daitezke Autonomi aurkakoak.*
- a) dekretuak Estatutuaren
 - b) dekretoak Estatutoaren
 - c) dekretuak Estatutoaren
 - d) dekretoak Estatutuaren
56. *Itzal handiko gizona. Zer esan nahi du?*
- a) Gizon itzela, oso handia.
 - b) Gizon izugarria, beldurtzeko modukoa.
 - c) Jendeak begirunez tratatzen duen gizona.
 - d) Garrantzi handiko gizona, handikia.
57. *Espero **ez** duzun zerbait ona gertatzen zaizunean:*
- a) Nolako poza hartu dut!
 - b) Nik hartu dut poza handia da, gero!
 - c) Nik hartu dut poza!
 - d) Nork hartu du poz handia?

58. *Botu gehien atera zuena izendatu dute...*
- arduraduntzat.
 - arduradun bezala.
 - arduraduna.
 - arduradun.
59. *Andregairik aurkitu mutilzahar geratuko zaigu lñaki.*
- ordez
 - ez ezik
 - ezean
 - ostean
60. *Ez haserretu, neska!*
- Ez nadin haserre?
 - Ez haserretzea?
 - Ez haserre?
 - Ez haserretzeko?
61. Zer gertatzen zaio esnari masa trinko bihurtzen dugunean?
- Gatzatu egiten dela.
 - Garrastu egiten dela.
 - Gazitu egiten dela.
 - Gozatu egiten dela.
62. Aukeratu gutun hasiera eta bukaera egokiak.
- | | |
|-------------------------|-------------------------|
| a) Kaixo, aspaldiko! | Hurrengora arte, neska! |
| b) Jaun txit agurgarria | Ongi ibili. |
| c) Adiskide mina | Adeitasunez. |
| d) Zer moduz, Jon? | Begirunez. |
63. *Inork ez zidan entzun...*
- neure buruarekiko esan nuelako.
 - neure artean esan nuelako.
 - neuretzat esan nuelako.
 - neure barruetarako esan nuelako.
64. Norbaitekin zer eginik ez daukazula adierazteko:
- Libre nago horrekin.
 - Jai dut horrekin.
 - Ez daukat horrekin konpontzerik.
 - Bost axola hori niri.


65. Zer esan nahi du *suhi* hitzak?
- a) Norbaiten alabaren senarra.
 - b) Norbaiten senarraren anaia.
 - c) Norbaiten emaztearen ahizpa.
 - d) Norbaiten semearen emaztea.
66. *Gaur ekarritako liburuak izan beste guztiak irakurri ditu.*
- a) ez ezik
 - b) ordez
 - c) ezik
 - d) beharrean
67. *Gaur ez bada,...*
- a) ikus ahal zaitut bihar?
 - b) ikusi zaitzaket bihar?
 - c) ikusten zaitut bihar?
 - d) bihar ikusiko zaitut?
68. *Lan gogorra gerta Patxiri emandakoa.*
- a) litekeena
 - b) dakioke
 - c) zitzaion
 - d) zen
69. Zein esaldi da zuzena?
- a) Otso bat bihurtu zen.
 - b) Haizete batek bota zuen arbola.
 - c) Baditut hori egiteko gogo batzuk!
 - d) Eguraldi on bat izan genuen bidaian.
70. Ondokoetariko batean ortografi huts bat dago. Zeinetan?
- a) Banan-banan.
 - b) Hitzez-hitz.
 - c) Bat-batean.
 - d) Batik bat.
71. Zer adierazten du esaldi honek? *laz erdietsitako mailari eutsi, besterik ez dute egin behar.*
- a) Maila hobetu ezik, erdian geldituko direla.
 - b) Aski dela lehengo mailarekin jarraitzea.
 - c) Erremediorik gabe, maila jaistera doazela.
 - d) Zalantzarik gabe, iazko mailan egongo direla.

72. Mirenek: *Gizona, zer da zatarkeria hau?* Kepak:
- a) Zer dela?
 - b) Zer da?
 - c) Zer den?
 - d) Zer ote?
73. Zein da zuzena?
- a) Hiru t'erdietatik bostak eta laurdenetara.
 - b) Hirurak t'erdietatik bostak eta laurdenetara.
 - c) Hiru ta erdietatik bostak eta laurdenera.
 - d) Hiru t'erdietatik bostak laurdenera.
74. *Deitu nizun baina ez entzun.*
- a) zenidazun
 - b) zidazun
 - c) ninduzun
 - d) zenidan
75. Lau zerrenda hauetako batean, bada hitz bat ondo ez datorrena besteekin. Zeinetan?
- a) Semebitxia, seme besoetakoa, amabitxia, aitabitxia.
 - b) Sendagaia, sendagailua, erremedioa, botika.
 - c) Otoi, arren, mesedez.
 - d) Lapurtu, ebatsi, ostu, pitzatu.
76. *Kirola egin , telebistan ikustera mugatzen gara askotan.*
- a) beharrea
 - b) ordea
 - c) aldiz
 - d) lekuan
77. *Zenbat seme dituzu?*
- a) Hiru: Martin, Joxe eta Begoña.
 - b) Bi: Lurdes eta Jon.
 - c) Lau: Joxe Antonio, Felipe, Mikel eta Alfontso.
 - d) Bost: Felipe, Mikel, Andoni, Joxepa eta Txaro.
78. *Medikua etorri zenerako ez zegoen...*
- a) zer eginik.
 - b) zereginik.
 - c) zer egitekorik.
 - d) zer egiterik.

79. Zer adierazten du esaldi honek? *Narratzailearen orojakiletasunak elaberriaren irakurketa moteldu egiten du.*
- a) Kontatzaile jakitunek lasaitu egiten dutela elaberria.
 - b) Narratzaileak dena jakiteak azkartasuna kentzen diola nobelari.
 - c) Liburuaren erritmo azkarra narratzaile orojakilearengan datzala.
 - d) Elaberria motelagoa litzatekeela narratzaileak dena ez baleki.
80. *Oraindik ere ez dakit zergatik ez zinen afaltzera etorri.*
- a) Esatea nahi?
 - b) Esateko nahi duzu?
 - c) Esaten nahi?
 - d) Esan dezala nahi duzu?
81. Nola deitzen zaio bost pezetako txanponari?
- a) Txakur-txiki.
 - b) Laurleko.
 - c) Txakur-handi.
 - d) Hogerleko.
82. Zer adierazten du esaldi honek? *Ertainetako Irakaskuntzaren Erreformatak hobekuntza garrantzitsuak dakartza.*
- a) Aurki Ertainetako Irakaskuntzak ez duela edukiko nondik oratu.
 - b) Irakaskuntzaren hobekuntzak erdi mailakoak izango direla.
 - c) Erdi mailako Irakaskuntzak hobera egingo duela nabarmenki.
 - d) Erreformatak arazoak planteatuko dituela erdi mailako irakaskuntzan.
83. *Inoiz ez ziren ondo moldatu Mikelekin; izan ere,...*
- a) begitan zeukaten.
 - b) begiko zuten.
 - c) begi txarrekin ikusten zuten.
 - d) begiz jota zeukaten.
84. *Ez hartu horrenbeste pisu,...*
- a) ez zaizula komeni.
 - b) ez zaizuna komeni.
 - c) ez zaizu komeni eta.
 - d) ez zaizu komenitzen.
85. Ondokoetariko batean komaren erabilera zuzena da. Zein esalditan?
- a) Mikel, Jon, eta hirurok joango gara.
 - b) Gurekin bizi denak, badaki hori.
 - c) Gaur egun, arazo hau, ez da larria.
 - d) Min ematen dit, neuri behintzat, hori entzuteak.


86. *Gu ixil-ixilik laster konturatu zen non ginen gu gordeta.*
- a) egon ere
 - b) egonda ere
 - c) egoteagatik
 - d) egotearren
87. *Ez ginen nahi orduko iritsi Donostiara.* Bestela esan:
- a) Ez ginen ordurako heldu.
 - b) Nahi baino goizago iritsi ginen Donostiara.
 - c) Nahi baino azkarrago iritsi ginen Donostiara.
 - d) Lehenago iritsi nahiko genukeen.
88. *Ez zen batere lan zaila; amaitu nuen.*
- a) aitaren batean
 - b) arineketan
 - c) abiada handiz
 - d) presaka
89. *Atzo bazkaldu genuena.*
- a) Arroza txirlekin, legatza zaltzan eta mahatza.
 - b) Arroza txirlekin, legatza saltsan eta mahatza.
 - c) Arroza txirlekin, legatza saltsan eta mahatsa.
 - d) Arrotza txirlekin, legatza saltsan eta mahatsa.
90. *Haritz egurrez eginiko mahai dotore hori jota dagoela esan digute.*
- a) bipiarekin
 - b) bipiz
 - c) bipiak
 - d) bipikadaka
91. Zein da esaldi zuzena?
- a) Eztizko zazpi koilarakada.
 - b) Zazpi ezti beteko koilarakada.
 - c) Zazpi koilarakada ezti.
 - d) Eztiaren zazpi koilarakada.
92. Nola egiten du oilarrak?
- a) Kikiriki.
 - b) Kokoriko.
 - c) Kukurruku.
 - d) Kakaraka.

93. *Nik da ordenagailu hori.*
- daukadan bezala
 - daukadana bezalakoa
 - daukadana bezala
 - daukadan bezalakoa
94. *Barkatu, baina ezingo dizut egin nahi duzuna,...*
- galtzak bete lan daukat.
 - toperaino nago lanetaz.
 - bururaino nago lanarekin.
 - oso lanpetua daukat.
95. Ondokoetariko batean ortografi **oker** bat dago. Zeinetan?
- Aingeruen sexuaz izan zen eztabaida.
 - Fakultateko gazteena aukeratu zuten dekanok.
 - Ondo zaindu beharko genuke gelditzen zaigun oxigeno apurra.
 - Marsismoaz idatzi zuen aspaldian Gotzon Garatek.
96. Zer adierazten du esaldi honek? *Aurtengoa ez ezik, urte guztietakoa ere ona izaten da.*
- Urte guztietakoa izaten dela ona, aurtengoa barru.
 - Aurtengoa ez, baina beste urte guztietakoa ona izaten dela.
 - Urte honetakoa izan ezik, urterokoa ona izaten dela.
 - Urte guztietakoa ona izaten dela, aurtengoa ezik.
97. Aitorrek: *Hurrengo batean emango didazu.* Maitek:
- Gaur ematea nahiago nuke.
 - Gaur eman diezazudala nahiago nuke.
 - Gaur eman diezazudan nahiago nuke.
 - Gaur emateko nahiago nuke.
98. Lanabes hauetako bat **ez** da erabiltzen lurra lantzeko. Zein?
- Aitzurra.
 - Laia.
 - Goldea.
 - Ingudea.
99. *Bai ederra paraje hori uda partean!*
- da
 - den
 - dena
 - dela
100. *Bi aspirina hartu beharko ditut.*
- Zein buruko mina!
 - Nik dudan buruko mina!
 - Hau buruko mina!
 - Zer buruko mina!



2. IDATZIZKO AZTERKETAK *

* Atal honetan azken bi urteotako, hots, 1993-94etako, idatzizko azterketak eta, horiekin batean, goiz berean bakoitzaren aurretik egin ohi den entzutezko ulermen-ariketa jasotzen dira.



2.1. OHARRAK

1993an lehendabiziko aldiz idatzizko azterketa gainditzeko ortografiaren zuzentasunean gutxienezko maila eskatu zen. Eta 1994an *Esaldiak berridatzi* eta *Sinonimoak* ariketak azterketa guztietan hasi ziren agertzen berriro. Azterketa, dena den, ez da luzatu. Aldaketa horien xehetasunik nahi duenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren honako ale hauetara jo beza: 10 zkia., (1993ko urtarrilaren 18a); bertan agertzen dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren bi Agindu, biak 1992ko abenduaren 28koak. 217 zenbakian (azaroaren 11koa, hain zuzen ere) 1994 urteko azterketei dagokien Agindua agertzen da. Bestetik, idazlanen gaiak emateko era berri da 1994an.

Ondoko bi azpi-ataletan jasotzen dira, hurrenez hurren, 1993 eta 1994 urteetako azterketa idatzietan azterketariei jarri zitzaizkien oharrak, aldaketak argiago gera daitezten.

2.1.1. 1993

OHARRA: 2 ordu eta 20 minutu dituzu idatzizko azterketa hau burutzeko. Libre zara denbora nahi duzun moduan banatzeko eta azterketa nahi duzun ordenan egiteko, baina gogoan izan aztertzaileek aurrez pentsatutako denbora eta puntu-banaketa:

Azpiatala	Gehienezko puntuazioa	Gutxienezko puntuazioa	Proposaturiko denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	—	—	3 min.
1.- Idazlana:			55 min.
idazlana	25	15	
ortografia	5	1	
2. Eskutitza, Laburpena, Esaldiak berridatzi, edo Sinonimoak	10	5	25 min.
3. Irakurmena	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	—	—	12 min.
Denera	50	29	2 or., 20 min.

Idatz ezazu garbi eta tintaz: aztertzaileek ez dute irakurri ezinezkorik zuzenduko. Ariketa guztietan atera behar duzu gutxienezko puntuazioa azterketa gainditzeko.

2.1.2. 1994

OHARRA: 2 ordu eta 20 minutu dituzu idatzizko azterketa hau burutzeko. Libre zara denbora nahi duzun moduan banatzeko eta azterketa nahi duzun ordenan egiteko, baina gogoan izan aztertzaileek aurrez pentsatutako denbora eta puntu-banaketa:

Azpiatala	Gehienezko puntuazioa	Gutxienezko puntuazioa	Proposaturiko denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	—	—	3 min.
1.- Idazlana:			55 min.
idazlana	25	15	
ortografia	5	1	
2. Esaldiak berridatzi	5	2,5	25 min.
3. Sinonimoak eman	5	2,5	
4. Irakurmena	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	—	—	12 min.
Denera	50	29	2 or., 20 min.

Idatz ezazu garbi eta tintaz: aztertzaileek ez dute irakurri ezinezkorik zuzenduko. Ariketa guztietan atera behar duzu gutxienezko puntuazioa azterketa gainditzeko.

2.2. 1993KO AZTERKETAK

2.2.1. 1993/5/8

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Laponia...
 - a) zirkulu polar arktikoan dago.
 - b) Errusiako ekialderaino zabaltzen da.
 - c) Eskandinaviako penintsula bat da.
 - d) muga finkorik gabeko lurraldea da.

2. Laponiako zatirik handiengan...
 - a) elurrak dena estaltzen du urte osoan.
 - b) neguari gau polarra deitzen zaio.
 - c) udako egun askotan gauerdiko eguzkia ikus daiteke.
 - d) zortzi hilabetez egoten da eguzkia estalita.

3. Laponiarrak...
 - a) hizkuntza eta arraza askotakoak dira.
 - b) 40.000 dira, gehienak Suedian bizi direlarik.
 - c) zenbat diren zehazki jakiterik ez dago, baina berrogei bat mila izan daitezkeela uste da.
 - d) besteak beste, Norvegian, Suedian, Finlandian eta Errusian mugitzen dira.

4. Laponiarren artean lau talde nagusi bereiz daitezke...
- a) bizileku eta iharduerak kontutan hartuta.
 - b) integrazio mailaren arabera.
 - c) egonkorrak edo ibilkariak diren begiratuta.
 - d) antzinako ohiturak zenbateraino gorde dituzten ikusita.
5. Antzinako laponiarrak...
- a) inork ez daki nola bizi ziren.
 - b) elur oreinen migrazioek eraginda, nomadak ziren.
 - c) arrantzale, nekazari eta ehiztariak ziren.
 - d) bereziki arrantzaleak ziren.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Laponiarren ezaugarri fisiko nabarmenenak:
- a) metro t'erdi inguruko altuera eta itxura bereziko buruhezur txikia.
 - b) aurpegi biribila eta begi ilunak.
 - c) olio koloreko azala eta ile kizkurra.
 - d) emakumezkoak, batez beste, gizonezkoak baino txikiagoak eta ile leu-nekoak izatea.
7. Lehen aipatutako ezaugarriez gain,...
- a) ibilera arinekoak dira eta lasterketa asko irabazi ohi dute.
 - b) hotzari aurre egiteko moldaera bereziak dituzte odol-sisteman.
 - c) eski gainean erakusten duten maisutasunak ez du parekorik.
 - d) ikusmen zorrotza dutenez, miatzaile onak gertatzen dira.
8. Zein da laponiarren jatorria?
- a) Duela 2.000 urte heldu ziren gaur egungo lurraldeetara.
 - b) Hegoaldekoak dira izatez, baina gainerako eskandinaviarrek goraldara bota zituzten.
 - c) Gaur egungo lurraldeetara beste herrien erasoetatik ihesi heldu zirela uste da.
 - d) K.a. 2000. urtean sortu zirela dirudi.
9. Laponiera...
- a) suomieraren hiru dialektoetako bat da.
 - b) hiru laponiarretatik bik egiten dute.
 - c) Laponiako hizkuntza ofiziala da.
 - d) hizkuntza fino-ugriarretako bat da.

10. Laponiarren hizkuntza(k)...
- lexiko konplexua du.
 - bederatzi eratara izendatzen du elur oreina.
 - lexiko urrikoa da.
 - bederatzi izenordain pertsonal ditu.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIENEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- Guztiok iritsi nahi genuke zahartzarora, baina inork ez du zahartu nahi.
- Aspaldion ezertarako astirik gabe nabil.
- Autoak gero eta arinagoak; abiadura mugak gero eta baxuagoak.
- Musika molde berriak atsegin dituzu?

ESKUTITZA

Oso telebistazalea zara, baina azkenaldian ez zaude oso konforme ETBren programazioarekin. Idatz iezaiozu zuzendariari eta adierazi egingo zenituzkeen aldaketak eta azaldu zergatik eta zertarakoak.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutizari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

SAGARRAREN ORPOTIK DATOR MAMA GOXOA

Urte berriak ekarri du aurten ere sagardozaleen grina asetzeko aukera. Hiru hilabete luzez sagardotegiak irekita egongo dira, eta txotx garaia amaitutakoan, gero eta sagardogile gehiagok, upelak hustu eta botiletara pasatuz, sasoiko

sagardotegia urte osoko jatetxe bihurtzeko bidea aukeratzen dute. Gainontze-koek, aspaldiko ohiturari jarraiki, sagardoa saldu baino ez dute egingo.

Baina ohiturak ahaztuz doaz, azken urteotan sagardotegi gehienek birzik-lapena ikusirik. Aipatu bilakaera horren lehen ondorioa ohizko sagardotegietako prezioak jatetxe arruntetakoekin parekatzea izan da, epe laburrean hiru aldiz biderkatu baita lehengo prezioa. Eraldaketaren beste ondorio bat ugalketa izan da. Betidanik ezaguna den Urnieta, Astigarraga eta Oiartzun arteko ardatzetik at sagardotegi ugari sortu dira azken urteotan Gipuzkoako beste hainbat herri-tan. Eta Bizkaian ere bada horrelakorik, Larrabetzun. Hauetako gehienek ezau-garria jatetxe itxura nagusitzea izan da eta, ohizkoen artean berregokitu direnak bezala, urte osoan zabalik egoten dira, garaia denean txotxetik edateko eta beste bederatzi hilabeteetan botilatik.

Berrikuntza teknikoek ere zeresan handia izan dute sagardotegien «belau-naldi berri» honen ezaugarriak finkatzeko orduan. Sagardogile askok beren tres-neria berritu egin dute, dolare zaharrak berrituz eta berriak zaharren arabera eginez, baina lehengoak akatsak saihestuz, altzairuzko upelak erabiliz... Argi dago sagardogileak ez direla konformatzen moda hutsa izatearekin.

Mikel Zapiain, sagardogileek osatutako Taldea elkarteko lehendakaria, sa-gardoaren aldaketaz mintzo zaigu: *Baldintza desberdinek sagardo desberdina ekarri dute. Garai batean goxoagoa zen, baserriko dolarean egiten baitzen etxe-rako soilik, baina egun, ekoizpen kopuru eta tresneria desberdinak izanik, ga-zitasun gutxiago du.* Hala ere, dirudienez, jendeari ez zaio gazitasun falta gehiegi axola, eta andanaka hurbiltzen dira hiru hilabete horietan Donostialdean ba-rreiatutako sagardotegietara.

Lehen, sagardoazalea euskalduna eta ia bakarrik gizonezkoa zen, herri txi-kietakoa eta baserri girokoa. Baina Donostia eta herri handietatik gero eta ge-hiago dira bertaratzen direnak. Kaletarrak. Gainera, gero eta arruntagoa da as-tegunetan Bizkaiko autobusen bat ikustea sagardotegietara bidean. Beraz, sagardotegiek egokitu behar izan dute, jende uholde hori asimilatu ahal izateko eta, ondorioz, ordutegia eta eskaintza zabaldu egin dituzte. Horretxetan aurkitu dute Ostalaritza Elkarteko mesfidantza eta kritika.

Ostalaritzako beste sektoreek aspaldi agertu dute beren kezka sagardote-gien gorakadaren aurrean. Baimen eza zela eta eraso egiten diete jatetxe eta taberna arruntek. Orain, berriz, bi elkartetan bildurik daude sagardotegi gehie-nak eta gutxienezko baldintzak —baimena izatea, osasun-neurriak betetzea eta lokala egokitzea— errespetatzen dituztenez gero, ez dute uste aurrerantzean Ostalaritza Elkartearekin arazorik izango dutenik. Baina arazoa ez da atzo gaue-koa: Mikelek dioenez *orain 25 bat urte arte baserrietako beste lan bat zen sa-gardoa egitea. Baina orduan baserriak espezialdu egin ziren, eta aurrera ate-ratzeko, gure aukera sagardoa egitea izan zen.*

Egoera berriaren aurrean, sagardotegiek egokitu beharra izan dute: *Gipuz-koan 70 bat sagardotegi izango gara, eta konpetentzia desleiala egiten diegula*

salatzen dute. Sagardotegi batzuk jatetxe egin dira, baina gure kasuan hiru hilabetez ireki, larunbat eta jaietan itxi, sagardozaleek zutik egon behar dute, eta ez dugu kaferik edo koparik zerbitzen. Beraz hori ez da konpetentzia. Urte osoan gure sagardoa botilatan kontsumituko duten bezeroak bilatzen ditugu txotxaren bidez.

Euskal Herrian nabarmena da sagar falta. Gipuzkoan lursail egoki askorik ez dago eta azken urteetan 60.000 landare aldatu dira, baina ez da nahikoa izan. Bestalde, sagardoak urte hobe eta txarragorik ere izaten du. Otsua-Eneko Ximon Etxebarriak esan digunez, iazko sagarra oso ona izan zen, *guri goimailakoa egokitu zitzaigun. Normandiako sagar motelari Galiziako sagar bizia nahastu genion eta horiekin batera Asturiaskoa eta gurea, biak elkarren antzekoak.* Nahasketan aurkitzen du Ximonek kalitateko edaria lortzeko modua. *Nere ustez, sagarra nahastuz lortzen da sagardorik onena, klase bakoitzak ditu bere alde on eta txarrak, baina elkarren osagarri dira. Bestalde, jatekoak direnak, golden eta horiek, ez dira egokiak sagardotarako.*

Sagardozaleen jatorria ere egunetik egunera aldatzen ari da. *Gero eta erdara gehiago entzuten da* —esaten digu Ximonek— *baina egunaren arabera oso bestelako giroak topa daitezke. San Sebastian bezperan, adibidez, euskaraz bai-zik ez zen entzuten. Asteburu askotan, ordea, ia erdara hutsa entzuten da.* Mikel Zapiain ere kezkatu dago, sagardotegiak ia-ia gauza folklorikoa bihurtu direlako: *Jendeak ez dio begiratzen sagardoari produktu on bezala, kolorea, usaina... Kontua sagardotegian parranda egitea da; sagardoa ez da estimatzen, aitzakia hutsa da.* Hortaz, kanpoko jendea etortzeak ohituren ezjakitunak hurbiltzea dakar, eta pixkanaka nagusitzen ari omen da zabarkeria eta sagardoa-rekiko errespetu falta.

Arrunt aldatu da, beraz, sagardotegien giroa. Lehen, afaltzen amaitu bezain laster upelen artean bertsoan gelditzea edo etxeratzea ziren ohitura; gaur, aldiz, jendea tabernetara jaisten da eta, kafeaz gain, kopak edateko ohitura zabaltzen ari da. Horrek, gainera, kaleko taberna zaharren gorakada ere ekarri du.

Orain dela gutxi, sagardogileak, elkarren arteko ezadostasunak zirela eta, bi taldetan banatu ziren. *Gure sektorearen arazoak konpontzeko gogorik ez genuen ikusten* —dio Mikel Zapiainek—, *oso interes ezberdineko jendea zegoen eta baja eman genuen beste talde bat osatzeko, profesionalagoa, konprometituagoa sagardogileari begira. Urtean zehar sagardoa botilatan saltzea da gure helburua eta ez jatetxe bihurtzea.*

Garbi dago urte batzuetatik hona berrikuntza ugari izan dituela sagardoaren munduak. Eta iskanbilak iskanbila, jendez gainezka egoten direla, jatetxe arruntetako prezioan daudela edota giroa aldatu dela ere, goraka doa, eta sagardorako grina handia dago. Beraz, animo denoi eta txotx egin!

1. Sagardotegi asko nola moldatu dira negozioekin aurrera jarraitu ahal izateko?
 - a) Sagardoa birziklatu behar izan dute botilatan saldu ahal izateko.
 - b) Bizkaian sagardotegiak egokitu behar izan dituzte, bere garaian txotxetik edan ahal izateko.
 - c) Sagardoa egiteko modua bera gure garaietara moldatu dute, eskuarte teknikoei dagokienez.
 - d) Prezioak handitu behar izan dituzte, jatetxeen pare egon ahal izateko.
2. Nolako berrikuntza gertatu da sagardotegien munduan azken garai honetan?
 - a) Haietako batzuetan, orain sagardoa saldu besterik ez da egiten.
 - b) Sagardotegi asko urte osoan irekita daude orain.
 - c) Orain, hainbat jatetxe sagardotegi bihurtu dira.
 - d) Azken urteotan, hiru hilabete luzez egoten dira irekita.
3. Baina arazoak ere sortu dira.
 - a) Sagardotegi askok jatetxeei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen ez dituztelako.
 - b) Oraingo sagardoak gazitasun gutxiago duelako baserriko dolarean egiten zenak baino.
 - c) Duela 25 urte, baserri askok ere sagardoa egiten hasi behar izan zutelako aurrera ateratzeko.
 - d) Sagardotegiak bi elkarte desberdinetan banatuta daudelako.
4. Sagardotegietako bezeroak ere aldatu dira.
 - a) Oraingo bezeroek sagardo desberdina nahiago dute, gaziagoa.
 - b) Sagardozaleak orain urte berrian ere joaten dira sagardoa edatera.
 - c) Orain, Gipuzkoako ohizko lekuetan ez beste herri batzuetan dauden sagardotegietara joaten da jendea.
 - d) Orain hirietako jendea askoz gehiago joaten da sagardotegietara.
5. Nolako kritikak jaso dituzte sagardotegiek?
 - a) Legearen barruan ari diren jatetxeekin lehia gaiztoan hasi direla.
 - b) Baserriek kompetentzia egiten dietela Gipuzkoan dauden 70 bat sagardotegiei.
 - c) Bezeroek zutik egon behar dutela eta ez zaiela kaferik edo pattarrik zerbitzen.
 - d) Ez dituztela betetzen merkatuaren exigentziak.
6. Zer gertatzen da Euskal Herriko sagarrarekin?
 - a) Lehenagokoa gozoagoa zen, eta oraingoa, aldiz, gaziagoa, baina jendea ez zaio axola.
 - b) Hemengo sagarra jatekoa da nagusiki, eta ez da ona sagardoa egiteko.

- c) Beste herrialde batzuetakoa erabiltzen denez gero, gero eta gutxiago landatzen da.
 - d) Euskal Herriko sagar uztak ez du asetzen sagardoa egiteko dagoen eskaria.
7. Sagardotegietako giroa ere aldatu da.
- a) Herri txikietako eta baserrietako jendea ez da orain joaten.
 - b) Lehengo bezeroak sagardoa bera estimatzen zutelako joaten ziren batez ere sagardotegietara.
 - c) Jendea parrandan aritzen da, eta errespetu falta nabarmentzen ari da.
 - d) Bezero asko erdalduna denez gero, orain sagardotegietan ez da bertsozik entzuten.
8. Sagardoaren kalitatearekin zer gertatzen da?
- a) Gipuzkoako sagarra nahiko gutxi kontsumitzen dela.
 - b) Urtetik urtera aldeak egoten direla.
 - c) Sagar mota desberdinak nahastearen ondorioz, urtero aldatzen dela.
 - d) Botiletakoa hobea dela txotxetik edaten dena baino.
9. Sagardogileen artean ere aldeak daude.
- a) Badira sagardotegien jatorrizko izaera aldatu dutenak.
 - b) Batzuk kanpoko sagarra erabiltzen dute, hemengoarekin nahasteko.
 - c) Sagardogile batzuk ez dituzte ohiturak ezagutzen eta ez dira profesio-nalak.
 - d) Elkarre batekoek baimena lortu dute, bestekoek ez.
10. Zergatik aldatu da sagardoa egiteko modua?
- a) Sagardotegien artean belaunaldi berri bat sortu delako, eta moda bihurtu delako.
 - b) Sagardo kopuru handiagoa lortzeko, lehengo tresneria zaharkituta zegoelako.
 - c) Sagardotegiak gaur egungo behar eta eskarietara moldatzeko.
 - d) Orain, sagardo gehiena botilatan saltzen delako.

2.2.2. 1993/5/15

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. «Narciso berriaz gogoetak» izenburupean...
 - a) elaberrri bat idatzi du Juana Atxabalek.
 - b) Pedro Axular sariak banatu ditu Eusko Jaurlaritzak.
 - c) gaurko gizarteari buruzko hausnarketa egin du J. Atxabalek.
 - d) filosofia eta etikako testu-liburua argitaratu da.
2. Zer adierazi nahi du «Narciso berria» kontzeptuak?
 - a) Bere buruaz maitemindu zen Greziako mito zaharra.
 - b) Europako edozein hiritar.
 - c) Gure gizartean gaur egun nabari den jarrera bat.
 - d) Gaur egungo edozein gizabanako.
3. Narciso berriaz hitz egitean...
 - a) egilea gizon eta emakume bakartiez ari da.
 - b) bereziki gizasemeak aipatzen dira, ez hartaraino emakumeak.
 - c) gizon eta emakume dirudunak direla pentsatu behar dugu.
 - d) ez da gizon eta emakume arteko bereizketarik egin nahi.
4. Zergatik heldu dio Juana Atxabalek posmodernitatearen gaiari?
 - a) Bere ikasle gazteentzat oso hurbileko gaia delako.
 - b) Ebanjelizazioa zein bere irakasle-lana tokian tokiko eta garaian garaiko kulturari lotuak ikusten dituelako.
 - c) Beste eginkizun batzuen artean lan hori ere egingo zuela hitz eman zuelako.
 - d) Bere lanak kultura-maila handia eskatzen duelako.
5. Besteak beste, zer gertatu da edo gertatzen ari da posmodernitatean?
 - a) Gizartearekiko eginbideak alde batera utzi dira.
 - b) Ideologia zaharkituak baztertu egin dira eta berriak indartu.
 - c) Jarrera utopikoak hobetsi dira.
 - d) Gizabanakoaren eskubideak kontu handiz zaintzen dira.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Juana Atxabalek dioenez, badira mugimendu batzuk...
 - a) posmodernotasunaren ezaugarriak dituzten arren, munduaren onerako sortu direnak.
 - b) posmodernotasunaren garaikideak izan arren, beste helburu batzuk dituztenak.

- c) bat egin dutenak posmodernotasunaren aurka.
 - d) orain posmodernotasuna baino ahulagoak izan arren, gehiago iraungo duenak.
7. Zer dio Juana Atxabalek talde ekologistei buruz?
- a) Ez ditu aipatu ere egiten.
 - b) Etorkizunera begira lan egiten duten mugimenduen artean kokatzen ditu.
 - c) Ez die aparteko garrantzirik ematen.
 - d) Eragin handia dutela, feministen eta kristauen pare.
8. Juana Atxabalen esanetan, talde kristauek...
- a) batez ere feminismoaren eta ekologismoaren barnean egiten dute lana.
 - b) Hegoamerikan indarra badute ere, hemengoek ez dute aipamen berezirik merezi.
 - c) parroketan bakarrik egiten dute lana.
 - d) hemen Hegoamerikan adinako indarrak ez izanda ere, badihardute zer-baitetan.
9. Nola ikusten du feminismoarekin Elizak duen jarrera?
- a) Jesusen benetako jarraitzaileak feministak dira.
 - b) Elizak ezkutuan gorde du Jesusen mezua, Jainkoa aldi berean dela aita eta ama alegia.
 - c) Feminismoak ez dauka lekurik Elizan, hori gizartearen arazoetako bat baino ez da.
 - d) Gizartea aldatuz doan neurrian gerta liteke Elizan ere emakumeek noiz-bait beste erantzukizun batzuk izatea.
10. Apaizak ezkongabeak izatea...
- a) gaur egungo kezka berria da.
 - b) betidaniko kontua da.
 - c) duela bederatzi bat mendeko erabakia da.
 - d) Jesusen mezuaren kontra doa.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIENEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Tokitan dira gerraren tximista-trumoiak hemen hainbesteraino arduratzeko.
Badugu bertan ere nahiko lan.
2. «Zer ikusi, hura ikasi»
Atsotitz honek adierazi nahi duenak ba al du zerikusirik umeen eta gazteen heziketan eta portaeran?
3. Gauean ateratzeko beti irrikitan. Zer du gauak zuretzat?
4. «Zapping»-a: telebista ikusteko modu berria.

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

LI TXANDING

Urtean behin, Antikuarien elkarteak hertsu ohi zituen hiriko dendak. Beretzat **aztura** denez eta halako **paradari** dagokion **patxadaz**, Li Txanding, bere kutxatik arropa harturik, eroslez beztitu zen.

Gero bere dendako **gibeleko** atetik **atera** zen **karrikara**.

Goiz erdia **eman** zuen paseian karriketaren barrena. Gero, **dirudun** baten **plantan**, bere dendara jo zuen. Sartzearekin, atariko txilintxak iragarri zuen haren bisita. Ezagupideko gizon baten **maneran**, zernahi gauza ukitu eta preziatu zuen. Bere iduriko prezioak ematen zituen; sosik ere ez gehiago.

Li Txanding **ohartu** zen erosle hura ezagupideko lagun bat zela. Interesazteko **xedetan**, prezioko piezen gorabeherak kondatzen zizkion **xehekiro**. Eroslea, ordea, ez zen saltzailearen **eleketaz** liluratzen. Berriz itzuliko zela eta ez adiorik. Li Txanding-ek egin zizkion **begiramen** handiko gur zenbait.

Li Txanding baitaraturik gelditu zen eta halako plantan eman zuen egunaren **hondarra**; ezezagunari interesatu gauzakiez oroitzuz eta haiei **begira**.

Biharamunean, denda **ireki** zuen. Erosle **apartaren igurikan** egon zen Li Txanding. Urte oso bat eman zuen oroigarri horren esperantzaz.

J. L. MERINO

DAGAZINDA ETA BESTE IPUIN BATZUK, Eduardo GIL BERAREN itzulpena.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

MAGREB: HAUTAKETAREN AURREAN

Aurreko urteetan bezala, oraingoan ere Magreb iparrafrikar herrialdea bisitatzeko ekin diot urteari. Ez, zoritxarrez, turismo egiten, lan-egutegiak markaturiko egitarauari jarraikiz baizik.

Magreb bost estatuk osatzen dute, mendebaldean Mauritaniatik hasita Libiaraino iritsiz mediterranean kostaldean, Marokko, Algeria eta Tunisiatik igarota. Distantzia handiak eta kontraste izugarriak, nahiz eta magrebiarrak eurak lehengusu balira bezala kontsideratu. Jakina da, noski, edozein senditako lehengusuen artean ere desberdintasun sakonak eman daitezkeela. Dena den, egia da magrebiarrak, gehien batez, lotuta daudela hizkuntza eta erlijioaren bitartez eta klimak ere zerikusirik baduela euren ohituren antzerakotasunean. Laurogei bat milioi magrebiar bizi dira, Europako Ekonomi Elkarteara bikoizten duen lur-eremu zabalean.

Eraketa politikoari begira, berriz, espektruak apur bat zabala badirudi ere, praktikan erregimenak berdintsuak dira: errege-diktadura, militar-diktadura, partidu-diktadura... Tunisiako kasua omen da 'demokratikoena', baina han ere gauzak ez dira errazak; lehengo egunean, telefonodun auto batean nindoan Tunis hiriburuan bertako lagun batekin eta elkarrizketak, errepublikako lehen-dakaria den Ben Ali aipatzera eraman gintuen. «Badirudi anaia lapur galanta duela, ezta?» galdetu nion lagunari. Eman zidan ukondoa! Eta atzamarrak isiltasuna erregutzen zidan bitartean telefonoa seinalatu zuen begiekin: polizia gure solasaldia entzuten egon zitekeen.

Iparra eta Hegoa, magrebiar herria argi eta garbi bereizten duten errealitateak dira: nolabaiteko garapen ekonomikoa iparraldean eta etsipen eta desertizazioa hegoan. Itsasoaren aukerari atxikia aurkitzen da herrialde erraldoiaren mugimendu ekonomikoa. Hari eta, zalantzarik gabe, Europatik itsas-mila gutxitara kokatuta egoteari, batipat Tunisia, Algeria eta Marokkoko kasuei dagokienez.

Orain lau urte MAB (Magreb Arabiarraren Batasuna) deritzan elkarteak sortu zuten bost estatuek, euren arteko alderdi ekonomiko, sozial eta humanitarioei irtenbideak elkarrekin emateko. Baina, itxura guztien arabera, elkarteak ez doa behar zuen abiaduran; eta eszeptizismoa da nagusi hiritarrengan. Bienbitartean, estatu bakoitzak —batez ere Marokko eta Tunisia— harreman berriak ireki nahi ditu europar komunitatearekin eta horretan dihardute, nork bere aldetik. Badi-

rudi Europa ere prest ageri dela hartueman horiei bide emateko eta, dagoeneko, aldebiko zenbait hitzarmen sinatu dira. Begi bistan dago merkatal itun soilak ez duela alde bateko zein besteko nahia asetzen. Magrebiarrak industri-garapenean pentsatzen ari direlako lehendabizi, horrek ekar ditzakeen gainerako abantailekin: teknikoak, ikerpen aurreratua, finantzabideak, ingurugiroa... Europarrek, berriz, jadanik buruhauste franko sortu dizkien arazoari aurre egin nahi diotelako: Magrebetik Europara iristen ari den giza-jarioa biderkatu egin liteke hurrengo urteetan. Beraz, 'arriskua' ekidin asmoz baliabideez hornitzeko gertu dago kontinente zaharra.

Baina magrebiarren berezko akatsei izurrite berria gehitu behar zaie gure egunotan: integrismoa. Ekonomia ahuleko erroetan indartua, arabiar fundamentalismoaren itzal gero eta zabalagoa iger daiteke herrialde hartan. Kasurik larriena Algeriakoa baldin bada ere, Tunisia eta Marokkoko kartzelak integratuz beteta daudela gogoratu behar dugu. Lur ongarrিতua, beraz, Jainkoaren Alderdi Guztiahaldunean sinesten duten herritarrentzat. Eta magrebiar biztanlegoaren hazkunde-indizea 4,2 dela kontutan izanik, garbi dago estatu horietako gobernuen euren hiritarren gutxieneko esperantzari eustea zail xamar ipintzen ari zaiela.

Magreben bizi izaten ari den fenomeno munduko desorekaren zenbait kontraesanen eredu gardena da. Alde batetik, gizarte arabiar eta musulmanaren emantzipazio kultural, sozial eta ekonomikoaren bilakaera dute helburu. Bestetik, ordea, Europarantz begiratzen ari dira, Afrikako errealitateari bizkar eman nahi baliote bezala.

Josemari Velez de Mendizabal
EGUNKARIA, 1993, urtarrilak 23 (moldaturik)

1. Magreb,
 - a) Europa osoa halako bi den lur-eremua.
 - b) bost herrialdez osatutako Afrikako lurraldea.
 - c) Mauritania eta Libiarekin muga egiten duen lurraldea.
 - d) Ipar Afrikako bost estaturen erakundea.
2. Magreben, alderik handiena...
 - a) Ipar eta Hegoaldearen artekoa da.
 - b) ohituretan dago.
 - c) eraketa politiko ezberdinak eragindakoa da.
 - d) estatu bakoitzak Europarekiko duen ikuspegian datza.
3. Magrebiarren artean...
 - a) hain dira handiak kontraesanak, non ezinezkoa baita elkartzea.
 - b) bada loturarik hizkuntza, erlijio eta ohituren aldetik.
 - c) hizkuntza eta erlijioa dira lotura bakarrak.
 - d) kultura ezberdin asko dago, nahiz eta eurek kontrakoa sinetsarazi nahi.

4. Bost estatuen eraketa politikoei dagokienez...
 - a) ezberdintasunak funtsezkoak dira.
 - b) itxuraz ezberdinak izan arren, antzekoak gertatzen dira.
 - c) batean baino ez dago benetako demokrazia.
 - d) guztiak daude diktadura beraren pean.

5. Idazleak berari Tunisian gertatutakoa azaltzen duenean...
 - a) argi uzten du han oso aurreratuta bizi direla.
 - b) polizia gain-gainean ibili zitzaiola esaten du.
 - c) bizi izan zuen beldurra adierazten du.
 - d) bertako demokrazia zalantzan jartzen du.

6. MAB elkarteak...
 - a) behin-betiko batasuna lortu du bost estatuen artean.
 - b) ez ditu gogoan hartu hiritarren beharrak.
 - c) bost estatuentzako irtenbideak bilatzea du helburu.
 - d) ez du lau urte besterik iraun.

7. Ekonomia garapenerako...
 - a) itsasotik bizitzea beste aukerarik ez dute.
 - b) badirudi europarren laguntza ezinbestekotzat jotzen dutela.
 - c) estatuak hitzarmen bana sinatu dute Europarekin.
 - d) Europako merkatuan sartu dira bete-betean.

8. Hitzarmenak sinatzean magrebiar eta europarren interesak...
 - a) berberak dira.
 - b) ezberdinak dira.
 - c) kontrakoak dira.
 - d) antzekoak dira.

9. V. de Mendizabalen iritziz...
 - a) integrismoak izan dezakeen eragina aintzakotzat hartu beharrekoa da.
 - b) gaizki jokatzten ari dira gobernuak integristak kartzeleratuz.
 - c) ezer gutxi espero dezakete fundamentalistengandik gobernuak.
 - d) Magrebek ez dauka inolako irtenbiderik integrismoak hartu duen in-darrarekin.

10. Zein da V. de Mendizabalek aipatzen duen kontraesana?
 - a) Europar izan nahi dutela arabiar izateari utzi gabe.
 - b) Industriaren garapena nahi dutela oinarrizko beharrei kontu egin gabe.
 - c) Europak zer eman zain daudela eurek ezer egin gabe.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.

2.2.3. 1993/10/2

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Noiztik du K. Argiñanok sukalderako zaletasuna?
 - a) Txapista zenetik.
 - b) Zarautzen sukaldaritza ikasten hasi zenetik.
 - c) Mutil-kozkorretatik.
 - d) Ez zuela ikasteko balio ikusi zuenetik.
2. Gizonezko izan eta sukaldaritza ikastea...
 - a) gauza arrunta izan da betidanik Argiñanoren ustez.
 - b) ez da sekula lotsarako bidea izan Argiñanorentzat.
 - c) lotsagarri samarra gertatu zitzaion Acción Católica-k antolatutako ikas-taroetan.
 - d) ez da egunero 3.000 lankiderekin elkartzea bezain gogorra.
3. Bere jatetxea zabaldu zuen.
 - a) 26 urte zituela
 - b) beste era bateko hainbat lan egin ondoren
 - c) duela 26 urte
 - d) hainbat urte beste jatetxe batzuetan egin ondoren
4. Noiz utziko du lana?
 - a) Oraingo ez.
 - b) Ahalik eta lasterren.
 - c) Seme-alabak hazitakoan.
 - d) Aspertzen hasitakoan.
5. Arrakasta lortu izanaren arrazoietakoa bat zein da?
 - a) Zintzotasunez jokatu izana.
 - b) Ezkongabea izatea.
 - c) Telebistan agertu izana.
 - d) Txantxatan ibili izana.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Zer dio «Menú del día» telesaioari buruz?
 - a) Janari-kontuak bene-benetan hartzekoak direla.
 - b) Adiskide artean egindako programa dela.
 - c) Telebistari esker 3.500 errezeta erakutsi dituztela dagoeneko.
 - d) Laster Espainia osoan aldatuko direla jateko moduak.
7. Harro sentitzen omen da Argiñano. Zergatik?
 - a) 15 urteotan bere sukaldetik 1.000 sukaldari pasa direlako.
 - b) Beraiek sortutako mugimenduak euskal sukaldaritzari nazioarteko maila eman diolako.

- c) Euskal Herriko sukaldariak edozein pintore, idazle edota artistaren mailara igo direlako.
 - d) Noizbait historiako liburuetan bere izena agertuko delako.
8. Sukaldaritza-ikasketak behar bezala burutzeko...
- a) herri bakoitzeko eskola bat behar da, polikiroldegiak bezala.
 - b) ikasle gehiegi hartzen dituzten eskolak ez dira egokiak.
 - c) oraingo eskolek ez dute batere balio.
 - d) bakoitzak ahal duena egin behar izaten du.
9. Eskolatik irten berriek...
- a) hemengo antolaketa ezagatik Valentziara jo ohi dute esperientzia bila.
 - b) lotsagarri uzten dute euskal sukaldaritza.
 - c) sendagileen laguntza behar lukete, nutrizioaz gehiago jakiteko.
 - d) ez lukete erantzukizun handiko lanik hartu behar esperientzia eduki arte.
10. Telebistan eta publizitatean egiten duen lanagatik...
- a) ez du ezer kobratzen.
 - b) noizean behin dirua jasotzeko prest dago.
 - c) bere nortasuna ez da aldatuko.
 - d) komunikatzen ikasi nahi du.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIENEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Heriotzarik ez balego...
2. Nolakoa izango litzateke mundua telebistarik gabe?
3. Ez luke gartzelarik egon behar.
4. Egizu irakurri duzun liburu baten laburpena eta eman berari buruzko iritzia.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. *Etzetik irten eta berehala hasi zuen euria.*

_____ *Etzetik irten bezain* laster hasi zuen euria _____ .

1. Nobela guztiak mintzatzen dira nola edo hala gaurko Euskal Herriari buruz. Ez dago _____ .

2. Protagonistak ihes egin nahi du eta ez dauka nora joanik. Hori da nobelak kontatzen digun istorioa.

_____ norbaiten istorioa _____ .

3. Nola pentsa dezakezu gaueko orduotan kalera ateratzea?

_____ ere!

4. Bere jokamoldea zuzentzen ez zuen bitartean ezin esan zitekeen elkartekide leiala zenik.

_____ ezean _____
_____ ...-tzat.

5. Umea negar-malkotan zegoen.

_____ zerizkion _____ .

6. Tximista kiskalgarria alboan erori zitzaiola zirudien. Horrelaxe hartu zuen berria Joxek.

_____ ba... _____ .

7. Kanpoan ere zakurrak oinutsik dabilzala ikustean aldatuko zaio, agian, hemengo bizimoduari buruz duen iritzia.

Baliteke _____
_____ aldaraztea.

8. Bizimodu berria aurkitzeko asmotan hartu omen zuen Ameriketarako bidea.

_____ ...lakoan _____ .

9. Eztabaidetan nahiz solasaldi gozoetan beti ere apaltasuna adierazten zuen.
 _____ baita _____ .
10. Nire mendizaletasunaren jatorria umetan aitonarekin egin ohi nituen joan-
 etorrietan dago.
 _____ datorkit _____ .
11. Zoritxarrez ez daukagu umeak nork zaindu.
 _____ ...nik.
12. Zabaleta baserritik urruntzen zen neurrian bizimodu nagiagoa egiten zuen
 gure gazteak.
 Zenbat _____ .
13. Berrogeita zortzi ordu beharko dira dituen zauriak zeinen larriak diren jakin
 ahal izateko.
 _____ buruan _____ .
14. Gure umeek, musikarako joera izanda ere, ez lituzkete utzi beharko beste
 lanak. Ni, behintzat, horretan nago.
 _____ ba... _____
 ez dut uste _____ .
15. Ez zen laztan eta igurtzi gutxi jasotakoa haur hura!
 Hamaika _____ .
16. Hogei urterekin zuek baino lan gogorragoak egiten genituen.
 _____ aldean _____ .
17. Batak besteari «Aurkituko ote dugu konponbidea?» galdetuz amaitu zuten
 solasaldi luzea.
 _____ elkarri _____ .
18. Ikusgarriak benetan zuen altzari berriak; modako aldizkarietan ikusten di-
 renak bezalakoak dira.
 _____ bezain _____ .
19. Aspaldian dabil hori lanean.
 _____ berria.

20. Azken hamar urteotan ez da liburu berririk agertu «euskara-iberoa» teoriari buruz.

Badira _____ .

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

GAURKO KRISIAREN DIAGNOSTIKO APAL BAT

Edozein gaitz sendatzeko hiru gauza jakin behar ditugu: bat, gaiso dagoen gorputz atalak —adibidez, bihotzak— zer egiten duen, zertarako den (sendakuntzaren jomuga, helburua); bi, zelan dagoen (errealitatearen ezaguera); hiru, zein eragiketa, zein sendagai dagokion (zientzi teknologiazko jakintzak).

Ekonomian berdin gertatzen da. Gaur egun iharduera ekonomikoa ondoezik baldin badago, hirurak jakin behar ditugu: ekonomia normala, egokia —gure helburua— zein den, oraingo egoeraren berri zehatza eta zientzi teknikak, hemendik aurrera bere onera eramateko.

Guk orain lehenbiziko gaiari gainbegirada bat emango diogu. Hor ere jakin behar dugu nora jo nahi dugun, non gauden, eta zer egin behar dugun.

Bigarren puntua jorratuko dugu: non gaude ekonomiaren jomugei dago-kienez?

Lau ekonomi mota orokor ezagutzen ditugu:

— Jomuga nagusia, eboluzioak darabilen bideari jarraituz, aurrerabideari lotzea da. Hayek da ekonomia honen aitzindaria gaur egun. Merkatua da batuta, eta gu dantzari soilak. Ez du ardurarik gizaki batzuen galeraz, ezta giza-talde edo herri oso edo zatien eutanasiaraz, «selekzio naturalaren eraginez» izango bada. Gure ekonomia internazionalan bizi-bizi dagoena.

— Azken jomuga Gizartea da. Hau izan da sozialismoaren oinarritzko joera. Batzuetan gizakia Gizartearen menpe dagoela esanez, besteetan Gizarteak, ondo eratuta egongo denean, gizakia askatu egingo duela aldarrikatuz. Sozialismo ekonomikoak zentralismora jo izan du, planifikazio orokorrera. Jomuga honek gure garaiko praxian porrot egin duela esan daiteke.

— Liberalismo mota bat. Liberalismo ekonomikoak bi adar ditu, enbor beretik sortuak. Batak zera dio: gizaki soilaren askatasuna lortzeko, Estatuaren eraginak ahalik eta txikiena izan behar du. Beste adarrak, berriz: gizaki soilaren askatasuna lortzeko, Estatuaren eginbeharra oso garrantzitsua da. Benetako

liberalismo ekonomikoa, tradizioz besterik ez bada ere, lehena da. Estatuaren zeregina erabat murriztearen aldekoa, Adam Smith-ekin bat datorrena, gaur egungo mendebaldean teoria gidari dena gehienbat.

— Liberalismo ekonomikoaren bigarren adarra ezkerreko liberalena da. Keynes da ekonomi mota honen buru. Batez ere General Theory bere liburu garrantzitsuenean esan zuenagatik:

«Geroari eta onura sozial orokorrari so egiteko eta efizientzia marginala kalkulatzeko egoera egokian dagoenez, Estatua luzerako inbertsiogintzan gero eta gehiago zuzenean arduratzen ikustea espero dut».

Hori da munduko politiko eta funtzionari gehienen maisu eta profeta den Keynes-ek eginiko aldarrikapena. Eta hortxe gaude gu, keynesismoan murgilduta, baina ur liberal klasikoetan kontraesan nabarian. Eta hor egoteaz bat datoz gobernuak eta langile-sindikatuak. Eta sarritan baita enpresariak ere.

Gobernuek protagonismoa nahi dute: gauzak asmatzen, esaten eta egiten azaldu. Keynesen profezia bete.

Langile-sindikatuak, berriz, aldaketa erakusten dute krisi-garai honetan: lehen, enpresak sozializatu, soldatak jaso eta lan-egunak gutxitu nahi izaten zuten gehienbat. Baina orain, oster, zera nahi dute: Gobernuek enpresak lanpostuak mantentzera behartzea.

Eta enpresariak ere beti ari dira gobernuari zerbait eskatzen, gobernuari zeregin gehiago ematen. Eta hemen dator, jomugen aldetik, krisi honen larritasun nagusia: ez dela enpresari berririk sortzen, ogibidetzat enpresa-bidea hartzearen aurka jarri dugulako den-dena. Enpresari berriak oztopo izugarri hauek ditu:

Gobernuaren aldetik, zerga izugarriak, gobernu izugarri «eraginkorrak» mantentzeko.

Langile eta sindikatuen aldetik, enpresari-bidea hartzen duenari ezarri nahi zaion zama itzela da: hartuko dituen langileen erantzule izan behar du betibetirako, ogibidea hil arte eskainiaz. Hori da lanpostu finkoa exigitzean enpresariari eskatzen zaiona.

Denok gizatasunik gabeko txartela eseki diegu lepoan.

Gaurko mundu zabaleko giroan eta sisteman, azoka librearen garaian, enpresari berririk gabe gure ekonomia atzera eta atzera joango da. Enpresa berririk gabe ez dago ekonomia indartzerik eta gutxiago berritzerik. Hori garbi dago. Gaizki dihardugu, beraz, gure errentadun izan nahiaz arriskua eta berriztea eragozten. Zer pentsatu haundia dago hor. Zer sistema-modu nahi dugu etorkizunerako?

1. HAYEKEN ekonomia sisteman...
 - a) merkatuaren legeetara makurtu beharra dute denek.
 - b) garrantzi handia du merkatuaren baturak.
 - c) azoka batuta, aurrerabidea lortzen da.
 - d) azoka batzea da jomuga nagusiena.

2. Zer dio giza-talde edo herrien eutanasiak?
 - a) Hayek aitzindaria den ekonomia sistemaren ardura nagusienetako delako.
 - b) Nazioarteko ekonomian bizi-bizi dagoen kezka delako.
 - c) Hayek aitzindari den ekonomia sistemak ez diola arretarik eskaintzen.
 - d) Naturala delako egungo ekonomia sistemetan.

3. Zein da sozialismoaren oinarritzko ideia?
 - a) Gizartea gizakiaren menpe jartzea.
 - b) Helburutzat gizartea bera hartzea.
 - c) Gizakia gizartearen menpetik askatzea.
 - d) Gizakiaren askatasuna aldarrikatzea.

4. Zein da liberalismo klasikoaren aldarrikapen nagusia?
 - a) Estatuaren babesak garrantzia handia du.
 - b) Estatuaren eraginak gizakia lotu egiten du.
 - c) Estatuak ahalik eta hanka-sartze txikiena izan behar du.
 - d) Estatuaren eraginak ahalik eta murriztena izan behar du.

5. Zer ez du aldarrikatzen Adam Smith-en teoria ekonomikoak?
 - a) Gizakiaren askatasuna.
 - b) Estatu eragilea.
 - c) Estatu egonkorra.
 - d) Eraginik gabeko Estatuak.

6. Luzerako inbertsiogintzan Estatuaren ardura...
 - a) gero eta indartsuagoa izatea espero du Adam Smith-ek.
 - b) gero eta gutxiago somatzea espero du ezkerreko liberalismoak.
 - c) gero eta haundiagoa izatea espero du ezkerreko liberalismoaren buruak.
 - d) gero eta haundiagoa izatea espero dute liberalek.

7. Zertan ari dira langile-sindikatuak?
 - a) Soldatak mantentzearen aldekoak dira.
 - b) Lanpostuak dituzte helburutzat.
 - c) Aldatu egin dute krisiaren norabidea.
 - d) Gobernua lanpostuak sortzera behartzen dute.

8. Zer dago argi ekonomiaren krisi honetan?
- a) Gobernuaren eragin izugarria.
 - b) Enpresarien larritasuna.
 - c) Enpresariak gobernuari egozten dioten errua.
 - d) Enpresari berrien sorrerarako oztopoak.
9. Zer dio Gobernuak ezartzen dituen zergei buruz?
- a) Eraginkor bihurtzen dutela Gobernua.
 - b) Asaldatu egiten dutela enpresari berria.
 - c) Oztopo izugarriak direla langileentzat.
 - d) Zaildu egiten dutela enpresa berriak sortzea.
10. Artikulu osoa begiratu idazleak honako hau aztertzen du:
- a) Egungo ekonomiaren egoeraren nondik-norakoa.
 - b) Egungo krisiaren balizko irtenbideak.
 - c) Ekonomiaren historia.
 - d) Egungo ekonomilari garrantzitsuenen iritziak.

2.3. 1994KO IDATZIZKO AZTERKETAK

2.3.1. 1994/4/30

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Zerk osatzen du Bernardo Atxagaren materiala?
 - a) Anarkismoari eta ETari buruzko oharrek.
 - b) Trenean doanean hartutako zenbait oharrek.
 - c) Handik eta hemendik bidalitako eskupaperak.
 - d) Era bateko eta besteko burutazio eta oharrek.
2. Nolakoa izango da Atxagaren hurrengo poesi liburua?
 - a) Ostrukaren bizimodua kontatuko du.
 - b) Ostruka nola handitzen den adieraziko du.
 - c) Ostrukarekin zerikusia izango du.
 - d) Errezitaldiak emateko ere erabiliko du.
3. Zer leporatzen dio euskal munduari *Behi euskaldun baten memoriak* liburuari dagokionez?
 - a) Kritika gogorak jaso izana.
 - b) Irakurleek gutxi erosi izana.
 - c) Kritikak berari kolpea emateko erabili izana.
 - d) Kritikarik jaso ez izana.
4. Zer aurkitu izan du askotan hemendik kanpo?
 - a) Elkartasuna.
 - b) Hurbiltasun handiagoa.
 - c) Irakurle gehiago.
 - d) Mirespena.

5. Zertarako aipatu du Atxagak bertokoen eta kanpokoan arteko desberdintasuna?
- a) Bere bizitzan duen eragina adierazteko.
 - b) Bertokoak beste jarrera bat hartzera bultzatzeko.
 - c) Datu horiek eraginkorrak zaizkiolako.
 - d) Errealitatea adierazteko, besterik gabe.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Atxagak onuragarritzat zer jotzen du idazlearentzat?
- a) Ideologia nazionalista izatea.
 - b) Ideologia gehiegirik ez izatea.
 - c) Ideologia nazionalista ardatz gisa.
 - d) Euskaldunberri izatera eramaten duen ideologia.
7. Zer dio alegi edo fabulei buruz?
- a) Animalien oso laguna dela, ostrukarena batik bat.
 - b) Jende askok bezalaxe goitik behera estimatzen dituela.
 - c) Istorioak kontatzeko bide egokiak gertatzen zaizkiola.
 - d) Alegirik gabe ez dagoela istorioak kontatzerik.
8. Zein izan dira alegizatasunaren lehen iturburuak?
- a) *Obabakoak* obrako kontakizunak.
 - b) Elizako otoitzak.
 - c) Eskolako zenbait irakurketa eta Elizako elementuak.
 - d) Kristautasunaren oinarriak.
9. Zein borroka mota aldarrikatzen du?
- a) Elkar errespetatzearena.
 - b) Euskara toki guztietan defendatzearena.
 - c) Hitzaldi onak ematearena.
 - d) Gauzak ongi egitearena.
10. Zer dio etorkizunaz mintzatzerakoan?
- a) Munduaren etorkizuna nolakoa, gurea halakoa izango dela.
 - b) Batzutan katastrofista eta bestetan zoriontsu sentitzen dela.
 - c) Mundua ibai bat dela eta, askotan, kanpoan geratzeko arriskua dugula.
 - d) Bere bizitza osoan ez duela mundua egun bezain zaila ikusi.

1. IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*

a) gaiaren eraketa eta garapena; b) hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna; c) zuzentasuna.

4. Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.

5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.

GAIA:

HIESari IHES EGIN EZINIK

Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) atzo Geneban aurkeztutako informe baten arabera, HIESa zabaltzen hasi zenetik, hiru milioi pertsonak izan dute gaixotasuna, eta beste hamabost milioi lagun seropositiboak izan dira

Erditze-
rakoan ere kutsa daiteke haurra.



Birusa ez da batere erraz kutsatzen. Ez da airez edo urez zabaltzen ezta janariaren bitartez ere.

Durangoko ikastetxe batean HIESaren birusak kutsatutako haur bat kanpora bota dute

DROGAZALAK	236
Birusdunak	153
%	64,8
HOMOSEXUALAK	69
Birusdunak	5
%	7,2
PROSTITUTAK	35
Birusdunak	1
%	2,8
DATURIK ZEHAZTEN EZ DUTENAK	151
Birusdunak	32
%	21,1
GLUZTIRA	491
Birusdunak	191
%	38,9

HIVaren kontrako antigorputzuen frogako datuak. Osakidetzak Eusko Lurralde Autonomoan egindako frogen datuak dira, 1985.eko azarotik 1986.eko urria bitartean jasota.

HIESa gero eta gehiago hedatzen ari dela adierazten dute datuok.

Honako

bide hauetatik hedatzen da: xiringa kutsatuen bidez, pertsona kutsatu batekin izandako harreman sexualen bitartez, odol eta odolietik ateratutako produktuen bidez eta, haurdunaldian, plazentaren bidez.

HIESari nolabait ihes egin nahian, Gipuzkoako HIESaren Aurkako Batzordearen egoitzan elkartzen dira gaitzak jota dauden zenbait lagun, Feli eta Pako horien artean. Eta gaitzaren berri eman beharraz konturatuta, hitzaldiak eta beste zenbait ekintza antolatzen dute ezjakintasunaren aitzakiapean guk, gainontzekook, bazter ez ditzagun.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (gutxienez, 300 hitz). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

1. Gaisotasunaren ondorioak.
2. Arriskuzko jokabideak.
3. Gizartearen jarrera.
4. Zer tratu eman behar zaie HIESdunei?
5. Zuk zeuk nola jokatu zenuke?
6. Zein irtenbide eman dakieke gaisotasunari eta sortzen dituen gizarte arazoiei?

Gaia: **ERRETZEA**



Gaur egun argi eta garbi dago tabakoak kalte egiten diola gorputzari, eta, legeak ezartzen duenez, hori adierazi egin behar da tabako-kaxetan.

Herrialde industrialduetan helduek, batez ere gizonezkoek, erretzeari uzten diote, baina emakumeek, eta batez ere gazteek, ez hainbeste.

Ezin da erretzaileen erretzeko eskubidea erretzen ez dutenek osasuna zaintzeko duten eskubidearen gainetik jarri. Horretan denok bat gatoz. Edo egunetik egunera gehiago gaude ados. Zorionez!

Erretzen ez dutenen osasuna zaindu egin behar da. Baina Tabacalerak urtetik urtera diru gehiago irabazten du.

Orain asko ez dela emakume bat lantokitik bota egin dute etxean erretzen zuelako. Eta jatetxeetan oso leku gutxi uzten dute erretzaileentzat.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (gutxienez, 300 hitz). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Zergatik hasten da jendea erretzen?
- Zein dira erretzearen ondorioak?
- Erretzaile aktiboak eta pasiboak.
- Legeak erretzeari geroz eta oztopo gehiago.
- Leku publikoetan ezin da erre.
- Erretzaile ez denak zer egin dezake?

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ *Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria* _____ .

1. Esaiozu Karmeleri ere ekartzeko neuri J. M. Irigoienen liburua!

_____ ekar _____ .

2. Nire arreba ezkondata ikusi nahi dut. Zer ez nuke egingo!

Edozer _____ .

3. Lapurra zela pentsatu zuen. Izugarrizko makilkada eman zion.

_____ ...lakoan.

4. Zure pintura itsusiegia zen saria lortzeko.

Hain _____ non _____ .

5. Auzokide guztiek jakingo dute guk atzo etxean egindakoa.

Ez _____
_____ ...nik.

6. Irakurketa hau interesgarria da, baina beste hori askoz interesgarriagoa.

_____ adina _____ .

7. Garai bateko idazleek elaberri mardulak idatzi ohi zituzten; baita oraingo zenbaitek ere.

_____ ezik
_____ .

8. «Ogi zatitxo bat eman iezadazu». Hori erregutu zidan eskaleak.

_____ eman _____
_____ .

9. Zenbaitek droga legeztatzea ez du bidezkotzat jotzen.

_____ deritzo.

10. Esango nuke txakur hau ez dela hori bezain gaiztoa.

_____ ematen.

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Berriz ere sukalde ondoko aretoan sartu ziren bi lagunak. Han zegoen, artean ere, lehen **begiztutako** emakumea.

Orduan izan zuen **detektibeak** hura **geldiro** aztertzeko astirik, lehenago Galaretarekiko agurrek ez baitzioten **betarik** eman.

Berrogei urte inguruko emakume **argal**, luzezka, sudurkakodun bat zen, ez **itsusi** ez eder. Jantzi txukun-txukun baina arruntak zeuzkan soinaren gainean.

Detektibeari, ordea, haren **hazpegi** eta jantzi guztiek baino **zarrazta** handiago eragin zion begitartean azaltzen zuen **nahigabe** sakon, egiazko, mugagabeak.

G. GARATE
Goizuetako ezkongaiak (moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

Gazteriari bi kalte izugarri egin zaizkio, besteak beste. Lehenik, bere duintasun praktikoari buruzko itxaropenak lapurtu zaizkio. Bigarren, iraganari buruzko mespretxurik handiena kutsatu zaio. Gazte askorentzat, aurreko belau-naldia fantasma eta txorimozorro osaturiko jende-talde arrotz eta urruna da; predikua eta ereduaren artean oreka jarraigarririk lortu ez duen infra-sujetu historikoa.

Bestetik, komunikabideen irudikatze motak daude bitartekari. Komunikabideak, profesionalki, gazteleku bihurtu dira, batetik gogorra baita fisikoki eta psikikoki lan jarraitu horretan ihardutea. Baina, horrekin batera, komunikabideek eguneroko berria mugitua eta dinamikoa behar dute, eta hori, askotan, gazteen mundutik datorkie: kirola, abentura, manifestaldia, gatazka, asanblada, greba unibertsitarioa, kontzertu jendetsuak, ibilaldi, korrikaldi eta gainerakoak. Ohizkoa da komunikabideak «mugida» horietaz gehiago arduratzea eguneroko lan jarraituan diharduen zientifiko edo intelektualaren lanaz baino.

Gazteriaren baitan dakusate mugimendua, munduaren morboa. Hori guztia kontutan hartuz, esplika iezaiozu jendeari behin Bernardo Atxagak gorai patzen zuen gizarte islamiarrekiko «jende helduei buruzko arreta eta errespetua». Mende baldeko gizartearen hierarkiazioa gaur alderantzizkoa da: gartzetasuna eta dinamika ororen gaintetik.

Idazle bat, intelektual bat, kantsola daiteke agian kulturaren kondairak utzi digun zenbait eredurekin. Argudia dezake, adibidez, horrek morala jasotzen badio, Inmanuel Kant-ek berrogeita hamar urtetik aurrera idatzi zituela bere kritikak; Goethe azken zahartzarora arte aritu zela lan intelektual jarraituan; Lichtenberg hirurogei urterekin hasi zela bere aforismo ospetsuak idazten; Theodor Fontane-k adinean oso aurrera burutu zituela *Der Stechlin* eta *Effi Briest* nobelak... etabar, etabar.

Baina exenplu kantsolagarri horiek ez diote paradoxa aldrebestuen gustu mikatza ezereztuko. Nola ote daitekeen posible, adibidez, hainbeste marxista eta hainbeste kristau zegoen lurralde batean marxistarik bat ere ez eta kristauak gutxi eta epelak egotea. Nola ote daitekeen iraultza behin betirakoak gauzatu behar zituen gure belaunaldi xeble hark hain azkar armak eta arrioak («armas y bagages») gazteei pasa izana, etsipenik handienaz gainera.

Ez. Nik gazteei ahal dudan guztia eta hoberena eskainiko nieke (heziketa, lana, hitza, gunea, xamurtasuna), gauza bakar bat izan ezik: arrazoia. Eta hori, motibo nagusi eta funtsezko batengatik: gaurko gazteak gure frakasoaren aurpegirik zurbil eta itsusiena baizik ez direlako. Gehienetan.

Oroimena oso mehea izan ohi da, eta selektiboa. Komunikabideek, gazteek, iragana ezabatu nahi dutenek oroimen eskasa edukitzea ez da harrigarria. Harrigarria, agian, belaunaldi batek bere argudioen eta ibil-urratsen aztarrenak zer nolako ahuleziaz zokoratu dituen «sentitzea» da.

Horregatik, gauza bat eskatuko nuke, gutxienez: entziklopedia orokor, egutegi, almanake, kalendera eta horrelakoetara eramaten gaituztenean, izen-abizenak, sorlekua eta data xuxen jarri ditzatela.

X. LETE
«GU, ZAHARROK». *EGUNKARIA*, 1993ko abenduak 26 (moldaturik)

1. Zein izan da gazteriari eginiko kalteetako bat?
 - a) Iraganeko huts nagusienak kutsatzea.
 - b) Norberaren nortasuna lapurtzea.
 - c) Iraganeko belaunaldiaren bertuteak ez erakustea.
 - d) Iraganarekiko gutxiespena kutsatzea.

2. Zer irizten die gazte askok aurreko belaunaldikoei?
 - a) Esanaren eta izanaren arteko orekarik gabekoak direla.
 - b) Beren burua orekadun eta eredu jarraigarriztat dutela.
 - c) Jarraigariak ez diren prediku asko ematen dituztela.
 - d) Esanaren eta izanaren artean desoreka jarraigaria eskaintzen dutela.

3. Zein da informaziobideak profesional gaztez osatuak egoteko arrazoietako bat?
 - a) Lanaren izaera gogorra.
 - b) Gazteak fisikoki eta psikikoki gogorrak izatea.
 - c) Iharduera ordu askotakoa izatea.
 - d) Zaharrek fisikoki nahiz psikikoki ahulak izatea.

4. Zer dio informaziobideen iharduerari buruz?
 - a) Ardura nagusitzat gazteen heziketa dutela.
 - b) Gazteen mundua baino ez dutela isladatzen.
 - c) Ardura nagusitzat gazteen ekintza dinamikoak dituztela.
 - d) Gazte batzuen manifestaldi, gatazka eta abarrez baino ez direla arduratzen.

5. Zer garrantzi dute intelektual nahiz zientifikoek lanek informaziobideetan?
 - a) Berri mugituek adina toki dute.
 - b) Ohizko tokia dute, ez gehiago.
 - c) Gazteen munduko berriekin alderatuz toki eskasa dute.
 - d) Gazteen mugimenduek baino oihartzun handiagoa dute.

6. Zer edo nor dago mendebaldeko gaurko joeraren aurka?
 - a) Bernardo Atxaga.
 - b) Gizarte islamiarraren pentsamendua.
 - c) Gazteek gizarte islamiarrarekiko duten mirespena.
 - d) Jende helduei Atxagak dien arreta eta errespetua.

7. Zer dio egileak Kant eta Goethe bezalako idazle eta intelektualez?
 - a) Adinean aurrera egin arte ez zuten emaitza bikainik lortu.
 - b) Zahartzaroan egin ziren ospetsu.
 - c) Adinean aurrera, emaitza bikainak eman zituzten.
 - d) Adinarekin adimen zorrotzagoa erakutsi zuten.

8. Zein joera jotzen du egileak paradoxatzen?
- a) Jende asko marxista izatetik kristau izatera pasatu izana.
 - b) Marxista eta kristau sutsu izatetik epeltasunera pasatu izana.
 - c) Gaur egun hainbeste kristau eta marxistarik bat ere ez izatea.
 - d) Marxistarik ez geratzea eta kristau ugaritasunetik eskasiara pasatu izana.
9. Iraultza gauzatu behar zuen belaunaldiak zer egin du?
- a) Gazteei leporatu die bere asmoa ez bete izana.
 - b) Gazteen esku utzi ditu berehala bere eginbeharrak.
 - c) Armak eta arrioak besterik ez dizkie utzi gazteei.
 - d) Bertan behera utzi ditu bere asmoak.
10. Nonbait agertzekotan, hauxe da Xabier Letek luzatzen duen eskaera:
- a) Entziklopedia eta horrelakoetara ahalik eta gutxien eramateko.
 - b) Norberaren datuak baino zerbait gehixeago ere azaltzeko.
 - c) Entziklopedia eta horrelakoetan aurreko belaunaldikoen zenbait datu gutxienez argitaratzeko.
 - d) Aipatzen dituztenen datuak, behintzat, errespetatzeko.

2.3.2. 1994/5/7

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Zer dio Helena Pimentak klasikoen lanak antzezteaz?
 - a) Mesederako gertatzen dela.
 - b) Kalterako gertatzen dela gaur egun.
 - c) Mesederako zein kalterako gerta daitekeela.
 - d) Bere taldeari kalterako gertatu zaiola.

2. Nola dago euskal antzerkia gaur?
 - a) «Ur» taldea da talde on bakarra.
 - b) «Ur» taldeak hemengo maila erakusten du.
 - c) «Ur» taldeak merezi baino onarpen handiagoa izan du.
 - d) Talde gehienak «Ur» taldea baino hobeak dira.

3. Nolakoa izan behar du euskal antzerkigintzak?
 - a) Besteak beste, serioa eta irekia.
 - b) Mugak ongi definitu eta gordeko dituena.
 - c) Akatsik onartuko ez duena.
 - d) Kanpotik datorren guztia bere hartan onartuko duena.

4. Zer da euskal antzerkiak behar duena?
 - a) Diru laguntzarik ez, zirkuitu egokia bai.
 - b) Zirkuitu arauturik ez, diru laguntzak bai.
 - c) Diru laguntza eta zirkuitu erregulatua.
 - d) Diru laguntzarik ez eta zirkuitu arauturik ez.

5. «Ur» taldearen arrakastaren ondorioak zeintzuk dira?
 - a) «Ur» taldea izango da zeresanik izango duen bakarra.
 - b) Paternalismo gehiago erakutsi beharko dute instituzioek.
 - c) Instituzioen esku geratuko da euskal antzerkiaren etorkizuna.
 - d) Hemengo proposamen artistikoak kontutan hartuko dira.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Euskarazko antzerkiak zer behar du?
 - a) Erdarazkoarekin lehia hastea.
 - b) Emanaldiak ugaritzea.
 - c) Instituzioek diru laguntza handiagoak ematea.
 - d) Erdarazkoen emanaldiak gutxitzea.

7. Euskal antzerkiaren sustapenerako zer komeni da?
 - a) Kanpora atera ez, bertan antzeztea.
 - b) Zirkuitua erregulatu eta finkatzea.
 - c) Helburu linguistiko garbiarekin jokatzea.
 - d) Maila konpetitiboaz ez arduratzea.

8. Zer dio Helena Pimentak gaurko krisi kulturalaz?
 - a) Euskal Herrian ari dela gertatzen, ez hemendik kanpora.
 - b) Ez dela komeni kontraesanetan ibiltzea.
 - c) Ekonomia dela, azken finean, kezkatu behar gaituena.
 - d) Baduela alde onik ere, arazoak begien bistan jartzen dituelako.

9. Zer dio Helena Pimentak telebistaz?
 - a) Antzerkia eskaini beharko lukeela.
 - b) Audientzia mailei gehiago begiratu beharko litzaiekeela.
 - c) Bera oso eroso mugitzen dela medio horretan.
 - d) Antzerkiari buruzko informazio zuzena eman beharko lukeela.

10. Teknologiak eta medio berriek jan egingo dute antzerkiaren lekua?
 - a) Bai, antzerkiak bitarteko pertsonal gehiago behar duelako.
 - b) Bai, antzerkiak modu apalagoan komunikatzen duelako.
 - c) Ez, antzerkiak komunikatzeko modu zuzenagoa duelako.
 - d) Ez, antzerkia medio horiek baino lehenago sortua delako.

IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) *gaiaren eraketa eta garapena;* b) *hizkuntz aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.*

Gaia: **AUTOMOBILA**



**MUNDUAN MILIOIKA LANPOSTU
AUTOGINTZARI ESKER.**



Milaka eta milaka
pertsona hiltzen dira
munduan urtero auto
istripuz; gerretan
baino gehiago.

Autoak gero eta
politagoak,
seguruagoak,
arinagoak,
merkeagoak,
garbiagoak... dira.



Autoa *status*
sozialaren,
maila
ekonomikoaren
edota jabearen
nortasunaren
erakusgarri ere
ba omen da.

Natura
modan
dagoela eta,
bertara
iristeko eta
berarekin
gozatzeko
autoa modu
aproposa
dela
gogoratzen
digute
iragarkiek.

Gurea automobilaren
zibilizazioa omen da.



Automobilari lotuta imajina idilikoak eskaintzen
zaizkigu. Badakizu, auto batekin zure ametsak egia
bihur daitezke.



- Autoa: beharrezkoa ala kontsumo produktu hutsa?
- Laguntza ala buruko min sortzaile?
- Nolakoak lirateke gure herri-hiriak autorik gabe?
- Auto bat edukitzea al da zure ametsa? Zertarako?
- Auto istripuren bat jasandakorik ezagutzen al duzu?
- Etorkizuneko autoak zelakoak izan daitezke?
- Aginpiderik bazenu zer-nolako neurriak hartuko zenituzke automobilaren auzian?

Gaia: **GURE KIROL SELEKZIOAK**



*Txirrindularitzan
badugu Euskadi
Taldea.*

EGUNKARIA

«Euskadiko Selekzioa Espainiakoa bezain
ona izan daiteke».

(Bittor Alkiza)

Rugbyan nazioarteko lehiaketarik
ospetsuena *Bost nazioak* izenekoa
da: Ingalaterra, Gales, Irlanda,
Frantzia eta Eskozia.



- Gure kirol selekzio nazionalak? Zergatik? Zertarako?
- Nazioarteko lehiaketen bidez herrien arteko harremanak hobetu egiten al dira?
- Kirol selekzio nazionalak herrien ordezkari al dira?
- Selekzio nazionalen arteko lehiaketak: kirol lehia hutsa ala gudu sofistikatua?
- Kirola, berez, internazionalista al da?
- Gure nazio identitatearekin zerikusirik badutelakoan zaude?

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, hitz hori osatu gabe dagoela ulertu behar da. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria _____ .

1. Telebista kate honetan lelokeriak entzun daitezke eta besteetan ere bai.

_____ ezezik _____ .

2. Egun bateko epea eman nion Karmeleri lagunei egia aitortzeko.

_____ aitor _____ .

3. Ez zenekiten? Patxi apaiz egitekotan dabil!

_____ ala?

4. Neska lirain horrek zoratu egingo luke bat bere edertasunaz.

_____ izanda, _____ .

5. Institutuko zuzendariak azaldu dien asmoa aho batez onartu dute ikasle guztiek.

Ez dago _____...tako _____ .

6. Norbait saritu nahi izanez gero, Xabi hautatuko nuke.

_____ ...kotan _____ .

7. Ezin nuen agindutako lanik egin, goizean izandako istripuaren ondorioz oso urduri bainengoen.

_____ hain
_____ non _____ .

8. Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriz gero, oso pozik geratuko nintzateke.

_____ ekarriko _____ .

9. Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango direla diote jakitunek.

_____ omen _____ .

10. Aurten adiskideek ez didate oparirik ekarri; nahigabeak ekarri dizkidate.

_____ ...nak _____ baino.

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Baina bestelakorik ere bazegoen. Felix, **adibidez**. Seguru **burla** eta mesprezua egitea besterik ez zerabilela barruan. Bera zerbait zelakoan egongo zen agian. Baina bai, bai. Ez marrotan, ez txapatan, ez korrikan, ez pelotan, ezertan ez zen nabarmentzen. Petrala eta **zitara**, horixe zen, **temoso** hutsa, kapritxoso alu bat, beti berea egin nahita etengabeko zapokerian zebilena; eta burrukarako harrotu txikiagoekin bakarrik, jakina, bere **parekoekin** ez nuen sekula **gailen** ikusi. Gainera, ondo gogoan nuen nik, askoz txikiagoak ginela, bospasei urtekoak edo, monjetan nola eszena muntatu zigun. Herrian ez zen inor egongo lehenago ere, seguru, zergatik eta oporrak bukatu zirela eta, atzera eskolara joan beharragatik halako **iskanbila** sortu zuenik. Jadanik denok eskolan geundela hasi ginen kanpotik zetozen negar hotsak entzuten. Monja kanpora, barrura, atzera kanpora: zer izan zitekeen asmatzerik ez zegoen. Eta zer izango, eta Felix zen eskolara etorri nahi ezta arrantza eta **marruka**. Ate parean ikusi genuenean, «Felix, ¡que entres!» eta bultzaka eta tarraka zekarten, ez dakit zenbaten artean. Haiek bultz eta Felixek ezetz, bi eskuekin ate ertzari heldu eta ez ziola jaregingo. Nolako marruak, eta bultzadak, eta irristadak!... Txerria hiltzen baino arrantza eta trilu handiagoa jarri zuen. Areago, ihes egitea lortu zuen gainera; frontoi atzetik gora ekin omen zion **korrika**, gero baten batzuek esan zuten. Handik pixka batera, ordea, berriro ekarri, eskolan sartu eragin, atea itxi eta hantxe utzi zuten, ez oso **mantso** baina. Geure aldamenean lurrean etzanda eduki genuen,

arrantza batean, malko eta mukitan zikin-zikin eginda, guk geure lantxoetan geniharduen bitartean, inork ordurarte, seguru nago, ezta umerik txikienak ere, inoiz eman ez zuen espektakulua emanaz.

J. Azurmendi
Josen historia
Ipuin Bakarrak, Elkar (185. or.)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

ARDOA EDANDA...

«Ardoa edanda mozkortzen naiz» hitzekin hasten da herri-kanta ezagun bat eta ardoa edanda, hain zuzen, arazoak izaten dituzte auto-gidari askok gure artean alkoholemia kontrolak direla eta. Brasilen, aitzitik, alkoholak, etanolak hain justu, automobilen motoreak piztu egiten ditu.

1970.eko hamarkadan petrolioaren krisia lehertu zenean, estatu bakoitzak bere estrategia diseinatu zuen egoerari aurre egiteko. Toki batzuetan, Herbeheretan adibidez, automobil trafikoa murriztea eta asteburuetan ez zirkulatzea aukeratu zen. Beste toki batzuetan, petrolioarekiko menpekotasuna apurtu eta bide alternatiboak bilatzeari ekin zioten. Horixe gertatu zen Brasilen. Petrolioaren krisia ahaztuta edo, eta urre beltzaren prezioek beherantz egin dutenez, Hegoamerikako erraldoiaren hamabost urteko esperientzia arrakastatsua arriskutan, amildegia ertzean dago.

Brasilgo 12 milioi automobilen herenak, azukre-kanaberatik lortutako etanola erabiltzen du erregai moduan eta beste bi herenen zatirik handiena gasohol izeneko nahasteaz (%76 gasolina eta %22 etanola) dabil. Alabaina, gobernuko hainbat bozeramalek esan duenez, etanol hutsez dabilzan automobilen produkzioa eten egingo da 2000. urtetik aurrera. Handik aurrera, etanola gasolinaren aditibo huts bilakatuko da. Ekologista eta ingurugiro-adituen ustetan, zentzugabekeria galanta izango litzateke hori.

Petrolioaren krisia piztu eta urre beltzaren prezioak itxuragabe igo zirenean, Brasilen petrolio-inportazioen kostua \$400 milioitik \$4 mila milioira igo zen bi urteren buruan. Itzelezko igoera horrek bultzatu zuen gobernuaren alternatiba bila hastera. Alkoholera aldaketak inbertsio handiak eskatu zizkien, bai ekoizleei eta bai erabiltzaileei. Alde batetik, ekoizleek kanabera-sailen emankortasuna handiagotzeko eta alkohola destilatzeko 600 destilategi eraikitzen \$9 mila milioi

gastatu zituzten. Inbertsio horiek direla eta, egun kanaberatik erdietsitako alkohola 1979.ean baino %40 merkeagoa da.

Automobil-erabiltzaileek ere hasieran kostu handiagoei egin behar izan zieten aurre, etanol hutsez dabilen automobilak motorean aldakuntzak behar dituelako (herdoiltzeari aurre egiteko bereziki). Aldaketa horien kostua automobilerako \$500ekoa da gutxi gora-behera. Etanola erretzen duen automobilaren erregai-andela estainuz estali behar da, erregai-tutuak kobre eta nikelaz eta karburadorea zinkez. Gainera, pistoiak indartu eta sendoagotu egin behar dira. Automobilok, hala ere, arazo bat daukate: eguraldi hotzean pizteko zailtasunak izatea, hain justu.

Hasieran, etanola aditibo huts moduan baino ez zen erabiltzen. Etanol hutsezko lehen autoak 1979.ean agertu ziren. Gobernuak automobilak eta erregaia subentzionatu zituen eta, ondorioz, bi urteren buruan Brasilen saldu ziren autoen %23 etanol hutsezkoak ziren. Portzentaiak gora egin zuen eta gailurra 1985.ean jo zuen, baina 1989.eko uzta eskasak eta horren ondoriozko hornikuntza-murrizketak larriki kaltetu zuten kontsumitzaileek alkoholezko autoetan zuten konfidantza. Harez gero, %30-40 inguruan dirau alkoholezko autoen merkatu-kuotak; gainerakoa gasohola da.

Puntu asko dituzte alkoholezko automobilek alde, kanpo-hornikuntzaren menpekotasuna apurtzeaz gain. Alkohola erretzea petrolioaren erretzea baino ekologikoagoa da ezberrik gabe. Etanola erretzen duen motoreak, gasolina erretzen duenak baino %20-30 karbono-oxido gutxiago sortzen du eta gainera, sufuroxidoko kantitatea oso txikia da. Euri azidorik ez, beraz. Biek antzeko erregabeko erregai-kantitatea isurtzen dute, baina etanola ez da atmosferan errektiboa eta ez du eraginik *smog* fotokimikoa eratzeko. Bestetik, etanolak sortzen duen karbono-oxidoa, kanabera berria haztean zurgatu egiten da gehiena. Ondorioz, ez dio berotegi-efektuari laguntzen. Kalkuluen arabera, %20 murriztu du Brasilek berotegi-efektua sortzen duten gasen emisioa.

Azukre-kanaberak beste mozkin batzuk ere sortzen ditu. Kanabera prentsatu eta gero gelditzen den zapakina, animaliak elikatzeke edo presio handiko lurrin-turbinetan elektrizitatea ekoizteke erabil daiteke. Bestalde, distilazioaren hondakin moduan potasio asko duen likidoa lortzen da, eta hori ongarri egokia da. Hala eta guztiz ere, alkoholak gasolinaren aldean duen abantailarik nabarmena berriztagarritasuna da. Etanola ez da azukre-kanabera hazten den bitartean agortuko. Petrolioak aitzitik, mugatuak ditu egunak.

Etanolaren kontra erabiltzen den argudiorik sendoena eta usuena kostua da. Izan ere, petrolio upelaren kostua \$23-koa den bitartean etanolarena \$30-40 bitartean dago. Alabaina, ekologistek kostu horretan petrolioak sortutako poluzioak eragindako kostuak ez direla kontutan hartzen azpimarratzen dute.

Hala eta guztiz ere, etanolaren energiari eta antzeko beste energi mota berreskuragarriari jar dakiekeen aitzakiarik handiena ez da kostua, lurraren erabilpenarena baizik. Izan ere, gizateriaren zati handi bat gosez dagoen unean,

noraino erabil daitezke elikagaiak hazteko egoki diren lurak energia hazteko? Zein oreka lortu behar da elikagai hazkuntzaren eta energi hazkuntzaren artean? Energia ekoizteko behar diren gainerako lursailak prestatzeak, zer kalte sor diezaieke ekosistema naturalei?

Inoiz etorkizuneko edozein energi iturriren lau ezaugarri nagusiak berriztagarritasuna, garbitasuna, tokikotasuna eta dibertsifikazioa direla idatzi izan dut. Horiexek dira etanolak Brasilen dituen ezaugarriak eta, beraz, energi iturri egokia da kasu horretan. Etanolaren energia irtenbide unibertsala ez da, bestetik. Brasilen beste zenbait tokitan ez bezalako baldintzak daude eta lurralde-hedadura, klima eta nekazal soberakinak ez dira txikiak. Beraz, horiexek aztertu beharko dira, aurrerapausurik eman aitzin.

Bukatzeko, Brasilgo esperientzia ez dela bakarra azpimarratu behar da, nahiz eta ezaugarri propio pisutsuak izan. Ekialdeko Afrikan eta EEBBetan ere bada-biltza automobilak gasoholez.

I. IRAZABALBEITIA

Elhuyar aldizkaria, 1993ko apirila (moldaturik)

1. Brasilgo esperientzia arriskutan dagoela dio testuak. Zergatik?
 - a) Petrolioaren prezioa gora eta gora egiten ari delako.
 - b) Petrolioaren krisia gainditua delako.
 - c) Brasilen automobil-trafikoak murriztea aukeratu dutelako.
 - d) Gasolinak beste alternatibarik ez duelako.

2. Brasilen 2000. urtetik aurrera...
 - a) ez da alkohol hutsez dabilen autorik egingo.
 - b) auto guztietan erabiliko da alkohola gasolinaren orde.
 - c) ez da gasolina erabiliko duen autorik egingo.
 - d) ez da batere alkoholik automobiletan erabiliko.

3. Nola erantzun zion Brasilek petrolioaren krisiari?
 - a) Petrolio gehiago inportatuz.
 - b) Petroliotik alkohola sortzeko inbertsioak eginez.
 - c) Petrolio destilatzeke enpresa berriak sortuz.
 - d) Petrolioaren alternatibatzat alkohola hartuz.

4. Alkohola oso egokia gertatu da Brasilen erregai modura. Zergatik?
 - a) Alkohola sortzeko inbertsio handirik egin behar izan ez delako.
 - b) Kanpotik inportatu beharrik izan ez delako.
 - c) Eguraldi hotzean autoa martxan errazago jartzen delako.
 - d) Alkohola erabilita autoa nekezago herdoiltzen delako.

5. Gobernuak hasieran zer subentzionatu zuen?
 - a) Alkohola gasolinarekin nahasia.
 - b) Alkohola bera, besterik ez.
 - c) Alkohola zerabilten autoak eta alkohola bera.
 - d) Kanabera landaketak.

6. Alkohola petrolioa baino ekologikoagoa da. Zergatik?
 - a) Petrolioa baino kutsagarriagoa delako.
 - b) Ingurugiroa berotzen laguntzen duelako.
 - c) Birziklatu daitekeen karbono-oxido ugari sortzen duelako.
 - d) Atmosferari kalte gutxiago egiten diolako.

7. Petrolioa ez da alkohola bezain egokia. Zergatik?
 - a) Agortu egingo delako.
 - b) Azukre-kanabera baino berriztagarriagoa delako.
 - c) Prentsatu eta gero zapakin berezia uzten duelako.
 - d) Ongarritarako gorde behar delako.

8. Petrolioa ala etanola da garestiago?
 - a) Petrolioa, poluzio kostu handirik eragiten ez duen arren.
 - b) Etanola, poluzio kostu handiak eragiten dituelako.
 - c) Petrolioa, baina ekologistak ez daude ados horretan.
 - d) Etanola, baina ekologistak ez daude ados horretan.

9. Alkoholaren erabileraren arazo nagusia.
 - a) Garestiegia gertatzen dela.
 - b) Elikagaiak sortzeko lurak murrizten direla.
 - c) Automobil motore desberdinak ekoiztu behar direla.
 - d) Kanabera hazkuntzak lur sail txikiak okupatzen dituela.

10. Etorkizunera begira idazlearen ustez egin beharrekoa.
 - a) Energiaren arazoari tokian-tokiko erantzuna eman.
 - b) Alkoholaren erabilera mundu osora zabaldu.
 - c) Alkohola erabiltzeari utzi eta beste irtenbide batzuk bilatu.
 - d) Brasileko esperientzia EEBBetara eta Ekialdeko Afrikara eraman.

2.3.3. 1994/10/1

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Aztertu duten laginaren konparaketa zerekin egin dute?
 - a) Umerik izan ez duten emakume gazteagoekin.
 - b) Umerik izan ez duten emakume nagusiagoekin.
 - c) Umeren bat izan duten emakume gazteagoekin.
 - d) Umeren bat izan duten emakume nagusiagoekin.
2. Zer egiten dute haurdun geratzen diren gazte gehienek?
 - a) Lana utzi.
 - b) Lanean jarri.
 - c) Lehengo egoeran segitu.
 - d) Lehengo egoera zeharo aldatu.
3. Zein tartetan gertatzen dira gehien berariazko abortoak?
 - a) 14 urtetik behera.
 - b) 14-17 urte bitartean.
 - c) 17-40 urte bitartean.
 - d) 40 urtetik gora.
4. Zailagoa da gaztetxoan haurdunaldia egokiro zaintzea. Zergatik?
 - a) Berandu adierazten dutelako.
 - b) Umeak pisu gutxiago izaten duelako.
 - c) Umea garaia baino lehen jaiotzen delako.
 - d) Gurasoek goiz jakin arren eritetxera eramaten ez dituztelako.
5. Zergatik ez dira haurdun ez geratzeko metodoak gaztetxoengana iristen?
 - a) Programarik ez dagoelako.
 - b) Anbulategietan hartzen ez dituztelako.
 - c) Hemezortzi urte izan arren gurasoen baimena behar dutelako.
 - d) Hartarako bide egokirik aurkitzen ez dutelako.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Haurdunaldia ez etetea erabakitzen duten gazteak nolakoak dira gehienak?
 - a) Ezkonduak.
 - b) Ezkongabeak eta lagunarekin bizi direnak.
 - c) Ezkongabeak eta lagunarekin bizi ez direnak.
 - d) Ezkonduak eta senarrarengandik banatu direnak.

7. Nork hartzen du antisorgailuen ardura?
 - a) Emakumezkoen erdiak.
 - b) Batez ere gizonezkoek.
 - c) Emakumezko zein gizonezkoek.
 - d) Emakumezkoek bakarrik.

8. Haurdun geratzeko arriskurik handiena dutenak nortzuk dira?
 - a) Haurdunaldia eten dutenak.
 - b) Lehenago ere umedun egonak direnak.
 - c) Inoiz umerik izan ez dutenak.
 - d) Kontsultara behin eta berriz etortzen direnak.

9. Ikasketa maila eskasa, haurdun geratzeko arrisku faktore al da?
 - a) Lan falta bai, ikasketa maila apala ez.
 - b) Neskaren ikasketa falta bai, gurasoena ez.
 - c) Gurasoen ikasketa falta bai, neskarena ez.
 - d) Bai, bai neskaren eta baita gurasoen ikasketa falta ere.

10. Zer dio ospitale publikoetatik kanpoko haur-galtzeez?
 - a) Ospitale publikoetakoak baino gutxiago direla.
 - b) Legez kanpokoak direla.
 - c) Gehienak horrela gertatzen direla.
 - d) Datuak nahastu egiten direla eta ez dagoela jakiterik asko diren.

IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) *hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.*

Gaia: **MUSIKA**



Pop. 1960ko hamarkadan Britainia Handian *The Beatles* taldearen eraginaz jaiotako musika mota, bereziki *rock & roll*-ean oinarrituz jaioa eta beste musika mota batzuen eraginez (jazz, klasikoa...) aberastua.

(*Elbuyar, Hiztegi Entziklopedikoa*)

«Stravinski, nire ustez, askoz ikonoklastagoa da *heavy metal*-eko musikari gehienak baino. *Rock*-a estereotipo bihurtu da eta merkatu irizpideetan oinarritu.» (Sting)



BOB DYLAN HIGHWAY 61 REVISITED



«Musikak bereizten ditu zahar eta gazteak. Gurasoen "Kendu zarata hori!" ohizkoaren ostean, seme-alaben "Karroza!" etortzen da ixilpean. Hamaika istilu sortzen da musika dela medio.» (A. Egaña)

- Musika klasikoa (Bach, Mendelssohn) zein modernoa (Otis Redding) erabiltzen dira publizitatean, garbikari bat edo desodorante bat saltzeko. Zer deritzozu?
- Zerk eskatzen du lan handiagoa: opera tenorea izateak ala bateria jotzeak?
- Mozart, Beethoven eta, berpiztuko balira, nola hartuko lukete gaur egun egiten den musika?
- Zer antz eta zer alde ikusten duzu 'rap' abeslarien eta bertsolarien artean?
- Zer nahiago: musika jaialdi batera joatea ala han entzungo zenituzkeen abestiak besaulkian goxo entzutea?

Gaia: INTSUMISIOA

Espainiako gazte guztiak egin behar dute soldadutza edo horren ordezkoko Zerbitzu Soziala.



Intsumisoak Iruñeko kartzelan.

Argazkia: Luis Azanza

«Kakitzat koordinadora antimilitaristak gogor salatu du Juan Alberto Belloch Espainiako Justizia

eta Barne ministroak berriki aurkeztu duen Kode Penal berriaren egitasmoa.»

- Zer iritzi duzu soldadutzaz?
- Zergatik dago hainbeste intsumiso Euskal Herrian?
- Zer dira, zure ustez, intsumisoak?: kontsekuentek, bakezaleak, insolidarioak, berekoiak, beldurtiak...
- Zein dira intsumiso izatearen ondorioak?
- Nola ikusten du gizarteak arazo hau?
- Zure esku balego, zer konponbide emango zenioke arazo honi?

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria _____ .

1. Goizeko bostak jo zituenean, kale kantoian sekulako zalapartak entzun nituen.

_____ batera _____ .

2. Norberak egiteak hainbat nekatzen du alferrak noiz egingo duen zain egoiteak.

_____ nekagarria _____ .

3. Liburu kontuan, kalterik handiena zenbait txoriburuk idazten duten guztia sinestea litzateke.

_____ ez legoke _____ .

4. Domingok bi pentsakizun bakarrik zituen buruan: dirua eta apustuak.

_____ ez zituen _____ .

5. Lagunek zuei kontatutako xeibrekeriekin zeharo harrituta geratu zineten.

_____ kontatu _____
_____ utzi _____ .

6. Leihatila atzean zeuden txoro haiek zure arazoa konponduko zutela pentsatzea ere!

Nola _____
_____ zuri _____ .

7. Ez ziren hamarrera iritsiko une hartan tabernan zeuden bezeroak.
 _____ baino _____ .
8. Zeuen karguak zuzendaritzaren esku uzteko agindu zitzaizuen azken bileran.
 _____ ...la
 _____ .
9. Etxetik aldegin, aldegin du, baina orain ez du inon bizilekurik.
 _____ non _____ .
10. Gure txirringulari ezagunak ez ziren tropelaren aurrean tinko eta erne ibili, atzean eta erdi lotan baizik.
 _____ beharrian
 _____ .

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Irantzu gelako leiho alboan eseririk uneka datorren gau izartsuaren aiduru dago. Badaki kristal unatuaren sabeletik ikusiko duen azkena dela. **Erabakia** baitu, **sendo** erabakia gainera, biharamunean ekingo diola ihesari, urrunera.

Gaurko gau beltza ez da besteak bezalakoa izango. Petrolio **usaina** dator kaiko itsasuntzi geldoetatik. Horietako batean joanen da **aurki**, haize-kirri eta bahumet **izukaitzekin** batera. Han izango du, **zain** eta begirale, marinel gazte bezain karana. Bere **aspaldiko** laguna, gaztetandiko jolaskide zuhurra. Mutil **apala**, ameslaria. Irantzu ez da bere azken gauean oheratuko; itsasoaren bisuts gazia sentitu nahi du bere gorputz ttiki biluzian. Gaur ere, betiko moduan, **inguratuko** zaizkio portuko **antxeta** beltz kutsatuak bere esku politetatik ogi-apur bustiak jatera.

K. LINAZASORO
 (1991), *Eldarnioak*
 Donostia, Erein, 191-192. orr. (moldaturik).

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

CONCEPCION ARENAL

Concepción Arenalen lana definitzerakoan, «pentsalari», «penalista», «kriminalista», «filosofo», «soziologo» edo «idazle» bezalako hitzak erabili ohi dira. Ez dago inongo okerrik izenotan. Eta hauxe da bere bizitza jori eta emankorreetan zehar beste guztien gainetik nabarmentzen den ezaugarria: bizitzea suertatu zitzaion gizartearen aurrean gutxiagotasun egoeran, diskriminatuta, baztertuta eta babesik gabe zeuden gizon-emakumeenganako kezka. Hori dela eta, halako egoera historiko zailean arazo horien larriaz jabetzen zen emakume gisa. Ez zen inoiz —batzuetan hala dirudien arren— utopien atzetik ibili, berak gauzaturik ikusi nahi zituzkeen eta ondoko hitzotan laburbil daitezkeen ideien atzetik baino: Bakea, Askatasuna, Aurrerapena, Justizia eta Egia.

Asko dira argitaratutako beraren idazlanetan —gaur egun 23 aleko bilduma oparoan jasota daude— aipatzen dituen alderdiak eta horietako batzuk behin eta berriz aipatzen ditu, gainera. Baina bere pentsakerara hurbiltzeko egindako lan labur honetan bere bizitza osoan defenditu zituen zenbait gai aipatu nahi genituzke: emakumea, bakezaletasuna eta humanitarismoa. Gaur egun, bera hil eta ehun urtera, konponbide zain jarraitzen duten hiru gai dira.

Angel Arenal militar liberalaren alaba, Concepción Arenal Ferrolen jaio zen 1820. urteko urtarrilaren 31n eta bertan bizi izan zen 1829. urtera arte. Aita 39 urterekin hil zen, bere ideiegatik baztertuta egon eta espetxea jasan ondoren. Hori dela eta, familia egoera ekonomiko kaxkarrean utzi zuen eta, ondorioz, Armañora aldatzea erabaki zuten. Concepción Pontek, gogoratzen ari garen pertsonaiaren amak, familia Madriler a eramatea pentsatu zuen alaben heziketaz kezkatu rik.

Orduan «damatxoak» prestatzeko helburua zuen neskentzako ikastetxe batean hasi zen ikasten Concepción Arenal. Bere ezinegon intelektualak ikastetxeko ikasketa-planekin eta bere eskola-lagunen asmoekin aurrez aurre jotzen zuen. Bere ama 1841. urtean hiltzean, eta bere nahiak oztopa zitzakeen inor gabe geratzean soziologo ferrolarrak bere desio sutsuenetako bat bete ahal izan zuen, zuzenbide ikasketei ekin zien. Gizonezkoz jantzirik, 1841etik 1845era artean Madrilgo Unibertsitateko klaseetara joan zen; unibertsitateko ikasgeletan sartu zen lehen emakume espainiarra izan zen. Bertan ezagutu zuen Fernando Garcia Carrasco abokatu eta kazetari liberala, eta berarekin ezkondu zen 1848an. Honenkin batera, joera liberaleko egunkari bat argitaratzeko lanetan aritu zen Oviedon eta, beranduago, gauza bera egin zuen Madrilen.

Urteotan etengabeko lanean hasi zen. Emakumezkoen espetxeen ikuskatzaile izendatu zuten (beranduago ere bere ardurapean jarriko zuten kargu hori), eta Coruña-ra joan zen bizitzera. «La Voz de la Caridad» egunkarian «Cartas a un obrero» argitaratu zuen 1871-1872 biurtekoan eta, Madrilgo Gurutze Gorriaren Idazkari Nagusi zenez, gerrate karlistan ere hartu zuen parte erizain lanetan. Gerrari buruzko bere ikuspegia «Historias de guerra» lanean aurkitzen dugu isladatua. Etengabeko jarduna da bere azken urteen ezaugarri nagusia; hori

adierazten dute bere Lan Bilduman jasotzen diren lanek, hainbat lekutan emandako hitzaldiek eta bere borroka amaigabeak.

XIX. mendearen bigarren erdian eta, batez ere, azken hiru hamarkadetan, eztabaida feminista indarrez iritsi zen Galiziara. Sortu zen eztabaidan bi jarrera somatzen dira. Bat da emakumearen zeregin tradizionalari eusten diona, «etxeko zaindari» eta erabat familiari emana izatearen aldekoa, hori baita bere benetako garaipena. Gehienez ere «apaingarri izateko heziketa» jaso dezake (musika, frantsesa, laboreak, marrazkigintza), bere betebeharr nagusia ahantzaziko ez diona: alaba, emazte eta ama izatearena. Bigarren jarrerak, gutxiengoarenak, ondoko ideia hartzen zuen oinarritzat: emakumeak badu zeregin bat gizartean, baita eskatu behar dituen eskubide batzuk ere, eta emetasunetik ez ezik izaki arrazoidun, adimendun eta oso izatetik datorkion duintasuna ere bai.

Ingurune honetan, eta bigarren jarrera honekin bat datorrela kokatu behar dugu C. Arenalen feminismoa. Langile, espetxeratu, haur, zahar eta gutxiagotasun egoeran zeuden gizarte-taldeen arduratu zen bezalaxe, emakumeak gizartean jasaten duen egoeraren arazoak bere idatzietan leku zabala hartzen du. Bere nondik-norakoak diskriminazioaz jabetzen zen emakumea zela erakusten digu, emakumearentzat diskriminagarri deritzonari aurre egiten diotenetakoa. Gogora ditzagun bere lanetan azaldutako ideietako batzuk. Esate baterako Gall medikuaren teoriak ez zituen onartzen, emakumezkoen ahalmen intelektuala gizonezkoaren azpitik zegoela ziotelako, emakumeek garunak txikiagoak dituztela eta. Ideia bitxi hauek bazuten garai hartan nolabaiteko sinesgarritasuna.

Emakumearen heziketaz eta prestakuntza intelektualaz den bezanbatean, ez zettorren bat oinarritzat eta «apaingarri izateko» kulturarekin. Kultura gizonezkoari zuzendua egonik, emakumezkoek egotzitako «alaba-emazte-ama» betebeharra gizartean emakumezkoek izan ditzaketan beste zereginekin osa daitekeela uste du, «Etxea-lana» bikotean ez baitago aurkakotasunik. Horrela, bada, ezinezko zeritzon emakumea bake eta zorientasunaren atzetik omen dabilen gizarte batetik kanpo geratzeari. Egia esan, emakumearen prestakuntzarena da C. Arenalek buruan zerabilen ideia, XIX. mendeko eztabaida feministetan behin eta berriz agertzen den gaia.

Heziketa, prestakuntza, etxetik kanpoko lana, soldata duina gizonezkoarekiko berdintasunean, betidanik gizonezkoentzat izandako lanbideak (abokatu, apaiz, mediku, farmazilari, katedradun, notario) eskuratzeko aukera, berdintasun intelektuala... bere testuetan behin eta berriz agertzen diren ideiak dira. Baina esan dezagun badirela kontraesanak ferrolarraren lanetan, baita hasierako ikuspegiarekiko aldaketak ere: emakumea berak aipatzen dituen hainbat lanbidetan jarduteko gauza bada, zer dela eta ezin da epaile izan? Horri buruz, zera idatzi zuen: «Abokatu lana egoki egingo lukeen emakumeari ez genioke epaile kargurik emango...». Urte batzuk beranduago, jarrera hau zertxobait aldatu zuen.

Emakumeari eskubide politikoak ematea eta emakumeak politikan parte hartzea ere ez zuen onartzen. Azken hau harrigarria da, emakumearen botu-

eskubideari buruzko eztabaida —alde nahiz kontrako iritziekin— prentsan baitzegoen ordurako, eta eskubide horren aldeko ahots sutsuak entzuten baitziren. Esaterako, Santiagoko Unibertsitatean katedradun zen Parga Torreiro jaunak, unibertsitate horretako 1870-71 ikasturtearen hasiera-ekitaldian «Herriaren botu-eskubidea» gaitzat hartuta irakurritako hitzaldian emakumearen botua baztertzeak inongo oinarri zientifikorik ez duela esan zuen, emakumearen eskubide ukaezina zela.

Emakunde aldizkaria, 13. zenbakia. 1993ko abendua. 38-41 orr. (moldaturik)

1. Zeren alde edo kontra aritu zen Concepción Arenal?
 - a) Justiziaren alde.
 - b) Utopiaren alde.
 - c) Gizonezkoen kontra.
 - d) Gizonezkoen alde.
2. Zer dio testuak Concepción Arenalek defenditu zituen gai nagusiez?
 - a) 23 idazlanetan biltzen direla.
 - b) Ez dutela oraindik gaurkotasunik galdu.
 - c) Lan labor batean biltzen direla.
 - d) Duela ehun urte konpondu zirela.
3. Nor zen Concepción Ponte?
 - a) Angel Arenalen emaztea.
 - b) Angel Arenalen ama.
 - c) Concepción Arenal bera, bere egiazko izena.
 - d) Concepción Arenalen alaba.
4. Ama hil arte ezin izan zuen bete bere desiorik handienetako bat.
 - a) Gizon jantzita ibiltzea.
 - b) Lan egitea.
 - c) Ezkontzea.
 - d) Abokatu ikastea.
5. Zer ez zen izan Concepción Arenal?
 - a) Soldadu, karlistadetan.
 - b) Erizain, gerratean.
 - c) Ikuskatzaile, espetxeetan.
 - d) Idazle, egunkarietan.
6. Zein zen emakumearen egoerari buruzko jarrera nagusia garai hartan?
 - a) Ez zela komeni musika, frantsesa eta halakoak ikas zitzan.
 - b) Emakume ez ezik, izaki duin eta osoa ere badela.
 - c) Emakumeak baduela zeregina gizartean, etxekoaz gain.
 - d) Emakumea etxerako dela eta horixe dela bere garaipena.

7. Zein zen C. Arenalen ikuspuntua?
- a) Emakumea gutxietsia zegoela.
 - b) Gallek esandakoa egia zela.
 - c) Emakumezkoek garuna txikiagoa zutela.
 - d) Diskriminazioa onartu beharra dagoela.
8. Zer nahi zuen emakumearentzat?
- a) «Alaba-emazte-ama» paperik ez betetzea.
 - b) Etxekoaz gain gizarte-lana ere egitea.
 - c) Etxeko lanik ez egitea.
 - d) Kultura eta prestakuntza gizonezkoen ordeaz emakumezkoek jasotzea.
9. Idazlearen arabera, zer ez zuen nahi Concepción Arenalek emakumearentzat?
- a) Mediku edo notario lana.
 - b) Abokatu lana.
 - c) Epaile lana.
 - d) Gizonezkoek bete dezaketen lana.
10. Emakumeek botu emateaz zer jarrera zegoen?
- a) C. Arenal aurka.
 - b) Parga Torreiro aurka.
 - c) Egunkarietako idazleak aurka.
 - d) Garai hartako guztiak aurka.

3. ERANTZUNAK & ENTZUTEZKO ULERMENENKO TESTUAK

3.1. ATARIKO PROBAK

3.1.1. 1993/4/3

1) a	21) c	41) d	61) d	81) b
2) c	22) d	42) a	62) c	82) d
3) c	23) c	43) c	63) b	83) d
4) a	24) c	44) b	64) c	84) a
5) b	25) d	45) d	65) b	85) c
6) c	26) c	46) b	66) b	86) a
7) a	27) d	47) b	67) d	87) a
8) c	28) b	48) d	68) c	88) d
9) a	29) a	49) a	69) d	89) c
10) c	30) c	50) a	70) a	90) a
11) b	31) d	51) a	71) a	91) b
12) c	32) c	52) c	72) b	92) b
13) b	33) b	53) a	73) d	93) c
14) a	34) d	54) b	74) a	94) c
15) a	35) c	55) d	75) a	95) a
16) b	36) d	56) c	76) d	96) a
17) d	37) a	57) a	77) d	97) b
18) a	38) a	58) b	78) b	98) b
19) d	39) c	59) a	79) c	99) a
20) c	40) c	60) b	80) a	100) b

3.1.2. 1993/4/24

- | | | | | |
|-------|-------|-------|-------|--------|
| 1) a | 21) b | 41) a | 61) c | 81) a |
| 2) c | 22) d | 42) b | 62) d | 82) d |
| 3) b | 23) c | 43) b | 63) b | 83) d |
| 4) c | 24) a | 44) d | 64) b | 84) d |
| 5) a | 25) b | 45) d | 65) c | 85) b |
| 6) a | 26) c | 46) d | 66) c | 86) a |
| 7) b | 27) c | 47) c | 67) b | 87) a |
| 8) b | 28) d | 48) b | 68) b | 88) a |
| 9) c | 29) d | 49) d | 69) d | 89) b |
| 10) c | 30) d | 50) b | 70) d | 90) c |
| 11) c | 31) d | 51) a | 71) a | 91) b |
| 12) b | 32) c | 52) b | 72) a | 92) c |
| 13) a | 33) a | 53) a | 73) a | 93) c |
| 14) a | 34) d | 54) a | 74) d | 94) b |
| 15) a | 35) c | 55) d | 75) b | 95) b |
| 16) b | 36) d | 56) a | 76) d | 96) c |
| 17) c | 37) b | 57) a | 77) b | 97) b |
| 18) b | 38) c | 58) d | 78) a | 98) b |
| 19) b | 39) c | 59) a | 79) b | 99) a |
| 20) b | 40) b | 60) c | 80) c | 100) c |

3.1.3. 1993/9/18

1) b	21) c	41) a	61) d	81) d
2) a	22) b	42) c	62) d	82) a
3) c	23) c	43) b	63) c	83) a
4) a	24) d	44) b	64) a	84) c
5) b	25) d	45) b	65) d	85) c
6) c	26) c	46) a	66) a	86) b
7) b	27) a	47) a	67) b	87) c
8) c	28) b	48) c	68) a	88) b
9) c	29) b	49) d	69) c	89) a
10) c	30) a	50) c	70) c	90) c
11) b	31) d	51) b	71) a	91) a
12) a	32) d	52) b	72) b	92) c
13) b	33) a	53) a	73) d	93) c
14) c	34) d	54) a	74) b	94) b
15) b	35) c	55) b	75) b	95) c
16) d	36) c	56) c	76) b	96) b
17) d	37) c	57) b	77) c	97) b
18) b	38) c	58) a	78) a	98) b
19) c	39) b	59) b	79) c	99) c
20) d	40) c	60) b	80) b	100) b

3.1.4. 1994/4/16

1) a	21) b	41) b	61) a	81) b
2) c	22) d	42) a	62) b	82) d
3) c	23) c	43) b	63) c	83) a
4) b	24) b	44) c	64) c	84) b
5) b	25) a	45) a	65) d	85) a
6) c	26) a	46) a	66) b	86) a
7) a	27) a	47) c	67) c	87) c
8) a	28) b	48) a	68) c	88) a
9) b	29) b	49) d	69) a	89) c
10) c	30) a	50) d	70) c	90) d
11) a	31) c	51) b	71) a	91) c
12) b	32) c	52) b	72) c	92) a
13) b	33) b	53) c	73) b	93) a
14) c	34) d	54) a	74) b	94) b
15) a	35) b	55) c	75) a	95) b
16) d	36) a	56) c	76) d	96) a
17) a	37) b	57) a	77) d	97) d
18) c	38) c	58) d	78) b	98) c
19) c	39) b	59) b	79) b	99) d
20) b	40) a	60) b	80) b	100) d

3.1.5. 1994/4/23

- | | | | | |
|-------|-------|-------|-------|--------|
| 1) a | 21) b | 41) c | 61) b | 81) c |
| 2) b | 22) c | 42) d | 62) b | 82) c |
| 3) b | 23) a | 43) b | 63) b | 83) c |
| 4) c | 24) a | 44) d | 64) c | 84) b |
| 5) a | 25) c | 45) b | 65) c | 85) a |
| 6) c | 26) c | 46) b | 66) d | 86) d |
| 7) a | 27) b | 47) d | 67) d | 87) d |
| 8) b | 28) b | 48) c | 68) b | 88) c |
| 9) a | 29) c | 49) b | 69) a | 89) c |
| 10) b | 30) d | 50) d | 70) d | 90) b |
| 11) a | 31) c | 51) a | 71) d | 91) a |
| 12) c | 32) c | 52) c | 72) c | 92) d |
| 13) b | 33) c | 53) d | 73) a | 93) a |
| 14) a | 34) a | 54) c | 74) d | 94) b |
| 15) c | 35) d | 55) b | 75) c | 95) b |
| 16) c | 36) a | 56) d | 76) d | 96) c |
| 17) a | 37) b | 57) d | 77) b | 97) a |
| 18) d | 38) d | 58) a | 78) d | 98) a |
| 19) d | 39) a | 59) b | 79) d | 99) b |
| 20) a | 40) b | 60) d | 80) c | 100) d |

3.1.6. 1994/9/17

- | | | | | |
|-------|-------|-------|-------|--------|
| 1) c | 21) d | 41) b | 61) a | 81) d |
| 2) b | 22) c | 42) b | 62) a | 82) c |
| 3) a | 23) a | 43) c | 63) b | 83) a |
| 4) c | 24) c | 44) b | 64) b | 84) c |
| 5) c | 25) d | 45) a | 65) a | 85) d |
| 6) b | 26) b | 46) c | 66) c | 86) b |
| 7) a | 27) b | 47) d | 67) d | 87) d |
| 8) a | 28) a | 48) c | 68) b | 88) a |
| 9) c | 29) b | 49) c | 69) b | 89) c |
| 10) b | 30) a | 50) b | 70) b | 90) c |
| 11) b | 31) c | 51) c | 71) b | 91) c |
| 12) a | 32) b | 52) a | 72) c | 92) c |
| 13) c | 33) b | 53) d | 73) a | 93) b |
| 14) b | 34) a | 54) d | 74) d | 94) a |
| 15) b | 35) c | 55) a | 75) d | 95) d |
| 16) a | 36) d | 56) c | 76) a | 96) a |
| 17) a | 37) a | 57) c | 77) c | 97) a |
| 18) d | 38) d | 58) d | 78) a | 98) d |
| 19) a | 39) d | 59) c | 79) b | 99) d |
| 20) d | 40) b | 60) d | 80) a | 100) c |

3.2. 1993KO AZTERKETA IDATZIEN ERANTZUNAK

3.2.1. 1993/5/8

AHOZKOAREN ULERMENA I

LAPONIA: BIZIMODU LATZ ETA GOTORREKO LURRALDEA

Laponia izeneko lurraldea Europako iparraldean dago. Ekialderantz Errusiako Kola penintsularaino zabaltzen da eta mendebaldean Finlandia, Suedia eta Norvegiako iparraldea hartzen du. Mugak, herri nomadari dagokionez behintzat, ez dira zehatzegiak. Dena den, gaur egun batez ere zirkulu polar arktikotik gorako lurraldeetan bizi dira laponiarrak (edo samiak, beraiek beren burua izendatzeko duten hitza erabiliz).

Laponiako zatirik handienean eguzkia ez da zeruan ageri neguko egun askotan. Gau polarra da. Udan berriz, eguzkia ez da egun askotan zerutik jaisten. Gauerdiko eguzkia da. Urtean zortzi hilabetez estaltzen du elurrak Laponia eta mendi altuetan elurra ez da inoiz desagertzen.

Ez da erraza laponiarrak zenbat diren jakiten, estatistikak ez baitira oso fidagarriak eta laponiar nor den definitzeko parametro desberdinak erabil baitaitezke (hizkuntza, arraza...). Dena dela, 40.000 inguru direla uste da. Horietatik ia bi heren Norvegiar bizi dira, 10.000 inguru Suedian, 4.000 inguru Finlandian eta 2.000 edo 3.000 Sobiet Batasunean.

Habitat eta ihardueren arabera, lau talde nagusitan banatuta daude. Talderik handiena kostaldeko laponiarrek osatzen dute. Norvegiako iparraldeko fiordoeetan bizi dira. Arrantzale eta nekazariak dira, sedentarioak eta Norvegiako gizarte modernoan erabat integratuta daude.

Oihanetako laponiarrena da beste talde bat. Suedian bizi dira eta ehiztari, arrantzale eta nekazari izateaz gain elur orein azienda txikiak dituzte. Ez dira nomadak, baina migrazio txikiak egiten dituzte. Gizarte modernoan integratuta daude. Talde honetan Errusiako laponiarrak, Skolt izenekoak sar daitezke.

Hirugarren taldea ibaietako laponiarrek osatzen dute. Ipar Eskandinaviako laku eta ibaien ertzetan bizi dira. Arrantza da haien iharduera nagusia, izokin arrantza batez ere. Nekazaritzan ere aritzen dira iharduera osagarri gisa. Sedentarioak dira.

Azken taldea mendietako laponiarrak dira: antzinako jatorrizko laponiarren jarraitzaileak «benetako» laponiarrak, elur oreinak zaindu eta hazten dituztenak. Elur oreinen urteroko bi migrazioek nomada izatera behartzen dituzte. Laponiar guztien %10 inguru baino ez dira eta Norvegia, Suedia eta Finlandiako barne aldeko eskualdeetan bizi dira.

A. MUJIKA
ELHUYAR, 54 zkia.
(moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

LAPONIARRAK ETA LAPONIERA

Laponiarren ezaugarri fisiko nabarmenak bi dira: txikiak izatea (batezbeste 1,55 mkoak gizonezkoak eta 10 cm gutxiagokoak emakumezkoak) eta oso buruhezur txikia eta forma berezikoa izatea. Ilea, oro har, leun eta iluna dute. Aurpegia madari itxurakoa da, masailak pixka bat irtenak eta azala olio-kolorakoa. Begiak gehienetan arreak edo marroiak. Beraz, fisikoki, bere bizilagunen, hots, eskandianaviarren antzik ez dute.

Ikusmen zorrotza dute, baita zahartzaroan ere. Bere odol sisteman arteria eta zainen arteko ezohizko loturak dituzte, horri esker tenperatura bazuak hobeto jasan ditzaketelarik. Indartsu eta biziak dira, ibilera arinekoak eta erresistentzia handikoak (1883an Amundsen esploradore norvegiarrak bi laponiar bidali zituen Groenlandiako barne lurraldeak miatzera eta 57 orduetan eski gainean 460 km-ko ibilaldia egin zutela esan zuten itzuli zirenean. Inork ez zien sinetsi, baina bietako batek Suediako lasterketa batean parte hartu eta irabazi egin zuen: 21 orduetan 220 km ibili zen!).

Laponiarren jatorria ez dago batere argi, baina badirudi k.a. 2000. urtearen inguruan iritsi zirela Eskandinaviara edo, zehatzago esan, gaur egun bizi diren lurraldeetara. Hegoaldetik iritsi ziren, beste herrien erasoetatik ihesi.

Laponiera fino-ugriar hizkuntz taldeari dagokio, talde hau ural-altaiar hizkuntz familiako adar bat delarik. Adar horretako hizkuntzarik ezagunenak suo-

miera (finlandiera) eta hungariera dira. Hiru dialekto nagusi ditu laponierak; elkarrekiko aski desberdinak. Iparraldeko dialektoa da hedatuena: hiru laponiarretatik bik egiten dute ipar laponieraz. Ekialdeko laponieraz ipar ekialdeko Finlandian eta Errusian egiten da. Azkenik, hego laponiera dago gutxien hedatua: erdi aldeko Norvegian eta Suedian egiten dute.

Laponieraren fonetika eta gramatika konplexuak dira (adibidez, 9 izenordain pertsonal dituzte: 3 singular, 3 plural eta 3 dual, hau da, gu biok, zuek biok eta haiek biak). Lexikoa, espero izatekoa denez, oso aberatsa da haien bizimoduari dagozkion gauza eta kontzeptuetan (metereologia, fauna eta elur oreinari dagozkion guztian adibidez), baina urria kontzeptu abstraktuetan.

A. MUJIKA
ELHUYAR, 54 zkia.
(moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA

1d	2c	3c	4a	5b
6a	7b	8c	9d	10d

SINONIMOAK

1. *mikaztu*: samindu, mingostu
2. *higatu*: gastatu, ahitu
3. *beharkizunak*: eginbeharrak, eginkizunak, betebeharrak, obligazioak
4. *horditurik*: mozkorturik
5. *abiatu*: irten, jalgi
6. *bazterretan*: urbazterretan, ertzetan, uhaldeetan
7. *iragan*: egin, eman, pasa, igaro
8. *oraintxe*: egun, gaur egun
9. *hertsirik*: itxirik
10. *eragotzi*: oztopatu, galerazi
11. *bidenabar*: bide batez
12. *abagunea*: aukera, parada, egokiera
13. *albisteak*: berriak, adierazpenak
14. *txunditu*: harritu, liluratu
15. *doitasunarekin*: zehaztasunarekin
16. *alde*: diferentzia, ezberdintasun, desberdintasun
17. *liskarretarantz*: burruketarantz, iskanbiletarantz
18. *goresteko*: goraiatzeko, laudatzeko
19. *edonori*: edozeini, nornahiri
20. *prest*: gertu, erne

IRAKURMENA

1c	2b	3a	4d	5a
6d	7b	8b	9a	10c

3.2.2. 1993/5/15

AHOZKOAREN ULERMENA I

JUANA ATXABAL

Juana Atxabalek 1991ko abenduan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Pedro Axular saria jaso zuen 'Narciso berriaz gogoetak' saiakerarekin. Emakume lekeitiar hau moja karmeldarra da 19 urte zituenetik. Latinoameriketara 16 urte egin ondoren Euskal Herrira itzuli zen 1980. urtean. Gaur egun filosofia eta etika irakasten ditu Basauriko institutuan.

EMAKUNDE.— Nor da Narciso berria?

JUANA ATXABAL.— Narciso berria da gaurko hiritarra, bai kalekoa, bai pentsalaria edo artista, pentsamenduaren eta ekintzaren oinarriak utzi eta biluzik, ahul, bere buruaz bakarrik arduratzen dena, oraintxe ondo bizi, ahal bada gazte eta beste guztia hor konpon. Hori da Narciso berria. Narcisoren mitoa oso zaharra da, antzinatik datorkigu, Greziatik. Denok dakigu Narciso bere buruaz maitemindu zela. Bada, funtsean, Narcisok gaurko indibidualismoa isladatzen du, indibidualismo posmodernoan, konpromezurik gabea, besteez ardura gabea... Narciso mundu aberatsekoa da, iparraldekoa noski, geure kulturakoa. Latinoameriketara eta Afrikan ez dago Narcisorik, han jendea konprometituta bizi da.

E.— Zure Narciso hori gizona bakarrik al da?

J.A.— Begira, gure hizkuntzetan gizakia aipatu nahi denean, normalean maskulinoan adierazten da, baina ez dagokio gizonari bakarrik, gizon eta emakumeari baizik. Nire Narciso hori, beraz, biei dagokie.

E.— Nondik datorkio Juana Atxabali posmodernitatearen kezka hori?

J.A.— Ni irakaslea naiz eta baditut beste harreman batzuk ere jendearekin eta, bueno, ebanjelizazioa egin behar duzu, baina beti ere kultura baten barruan. Gaurko kultura ezagutzea inportantea iruditzen zait, eta neure klasea filosofia izatean, bada... hortik datorkit kezka... analisiak egin, ondorioak atera... Hortik sortu zait interesa, neure eginkizunetik, neure konpromisutik.

E.— Azken boladan asko hitz egiten da posmodernitateaz, nola definituko zenuke zuk?

J.A.— Indibidualismoa, gorputzaren ardura, hustasuna, proiekturik eza, historiarik eza, utopien jausiera... hori guztia da posmodernitatea.

EMAKUNDE

1992ko martxoa. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

E.— Oker ez banago zure saiakera horretan feminismoa ere aipatzen duzu, nola uztartzen dira posmodernitatea eta feminismoa?

J.A.— Nik nire lanean aipatzen dut badaudela kimu batzuk, elementu baliagarriak, etikoak eta esperantzarriak posmodernitatearen ondoan. Mugimendu berri horiek, posmodernotasunaren aroan agertu direnak: ekologistak, talde kristauak, feministak... bada, mugimendu horiek funtsa posmodernoa izan gabe etorkizunerako esperantza bat dira eta feminismoa ere hortxe sartzen dut, mundua hobetuko duten proiektuen barnean dagoelako.

E.— Talde kristauak aipatu dituzu, baina hori ez ote da gertatzen gehiago Hegoameriketara?

J.A.— Nik talde kristauak ekologista eta feministekin sartzen ditudanean, ez dut esan nahi kristauak ekologismoaren barnean ez daudenik, edo feminismoaren barnean, ez; bereziki, esentzialki kristau moduan definituta daudenez ari naiz, eta horiek hemen ere badaude, parroketan adibidez. Egia da biziagoa dela mugimendu kristaua Hegoamerikan, han jendeak ardura dauka, konprometitu egiten da... ez da kasualitatea Askapen Teologia han jaiotzea, baina hemen ere Askapen Teologiak badu bere eragina, eta ari dira hemen ere. Hangoaz eta hemengoaz ari naiz, beraz.

E.— Lehen esan duzu feminismoa mugimendu esperantzarria dela, baina ez dirudi hori denik Elizaren jarrera ezta Aita Santuaren mezua ere.

J.A.— Nik esango nuke Eliza eta Elizaren hierarkia ez dela gauza bera. Gauza bat da hierarkia eta beste bat segitzaileen kopurua, eta nik nahiago nuke hitz egin segitzaile modura. Eliza historian zehar gertatu da eta Jesus bera ere kultura batekoa zen, horregatik nik uste dut, eta apalki diot nire espezialitatea ez baita teologia, Jesusek bere mezua bere erara eman zuela, garai hartan ulertzeko moduan. Baina gaur egun nik uste dut edozein kulturak onartzen duela Jainkoa amatzat ere berdin, (...) femeninotasunaren eta maskulinotasunaren iturri. Aita da eta ama da. Baina, aro hartan, Jesusek esan zuen aita zela, bestela ez zen ulertua izango eta, gero zer gertatu da? Bada, historian zehar —hori denok ondo dakigu— prozesua oso matxista izan dela, eta, noski, Eliza ez dago kulturatik aparte. Nire ustez, gizadia aurreratzen doan neurrian Eliza ere aldatuz joango da. Nik uste dut helduko dela momentu bat, seguraski nik ez dut ezagutuko, baina ziur nago, emakumeen abadetzara helduko garena, teologikoki ez baitago diferentziarik. Jainkoaren seme-alabak gara denok, eta prozesu hori, gizonezkoen agintea, soziologikoa da, ez teologikoa.

E.— Emakumeak apaiz izatearen kontua aipatu dugu; zer uste duzu apaizak ezkontzeaz?

J.A.— Ez diot nik arazorik ikusten horri. Ezkonduak apaiz izan daitezke, zergatik ez? Hori ez doa Jesusen mezuaren kontra. Jesusek gizon ezkonduak aukeratu

zituen bere jarraitzaile modura, eta, oker ez banago, zelibatoa XI. mendeko kontua da. Nik ez dut problemarik ikusten.

EMAKUNDE
1992ko martxoa. (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA

1c	2c	3d	4b	5a
6b	7b	8d	9d	10c

SINONIMOAK

1. *aztura*: ohitura
2. *paradari*: egokierari, gertaldiari
3. *patxadaz*: lasaitasunaz, soseguz
4. *gibealeko*: atzeko, atzekaldeko
5. *atera*: irten
6. *karrikara*: kalera, ibilbidera
7. *eman*: igaro, pasa
8. *dirudun*: aberats
9. *plantan*: itxuran
10. *maneran*: eran, moduan
11. *ohartu*: konturatu
12. *xedetan*: helburutan
13. *xehekiro*: xeheki, zehatz-mehatz
14. *eleketaz*: hizketaz
15. *begiramen*: begirune, adeitasun
16. *hondarra*: enpara(t)ua, gainerakoa
17. *begira*: so
18. *ireki*: zabaldu
19. *apartaren*: bereziaren
20. *igurikan*: zain, aiduru

IRAKURMENA

1b	2a	3b	4b	5d
6c	7b	8b	9a	10d

AHOZKOAREN ULERMENA I

KARLOS ARGIÑANO

ARGIA.— Construcciones y Auxiliares de Ferrocarril (CAF) enpresa utzi eta sukaldaritzan hasi zinen. Aldaketa handia izan zen.

KARLOS ARGIÑANO.— 17 urterekin txapista nintzen, baina sukaldaritza asko gustatzen zitzaidan txikitatik. 8-10 urterekin sukaldean aritzen nintzen gauzak prestatzen. Zarautzen ostalaritza eskola zabaldu zutela irakurri nuenean izena eman nuen. Oso une ona izan zen. Beasainen ikasteko balio ez zuten 17 urteko mutilak lanera abiatzen ziren, baina pertsona bakoitzak gustoko zuen lana zein zen pentsatu gabe.

A.— Garai hartan ez zen oso arrunta izango gizonezkoek sukaldaritza ikastea?

K.A.— Horiek bost axola niri, sekula ez dut horren lotsarik izan. Oso gogorra iruditzen zait egunero lan egiteko korrika ibiltzea, gosaldu eta lanera, bazkaldu eta lanera... Beasainen, edo inguruan oso jende jatorra nuen, baina 3.000 geunden lantegian eta ni hutsaren hurrengoa nintzen eta hori gauza gogorra da.

Ostalaritza eskolan sartu baino lehen ibili nintzen Acción Católica-k antolatzen zituen emakume ezkongaienezako ikastaroetan. Han ere, 60 emakumeren artean mutil bakarra nintzen. Horrek eman behar zidan lotsa handiagoa, baina ez zidan ematen.

A.— Zenbat sukaldetan ibili zara laguntzaile?

K.A.— Ostalaritza eskola utzi nuenean Zarauzko Euromar hotelean lehenengo eta gero Londres hotelean jantokiko laguntzailea izan nintzen... eta beste urtebete Maria Cristinan. Handik Zarauzko Golfera joan nintzen, baina sukaldari, eta bertan 8 urte eman nituen. Gero nire jatetxea zabaldu nuen eta dagoeneko 14 urte bete ditut; beraz, guztira, 26 urte dira mantala jarri nuenetik.

A.— Jubilatzeke asmorik bai?

K.A.— Ez daukat asmorik, gogoia akaso bai. Esaten dute lanean 25 urte egin eta gero ez duzula berdin ematen. Dagoeneko eginak ditut eta ez dakit zer gertatuko den hemendik aurrera. Ezin naiz erretiratu, seme-alaba gehiegi eta 'zulo' asko ditut. Horiek aurrera ateraz gero, akaso ezer ez egiteko gogoia sartuko zait.

A.— Zein da Karlos Argiñanoren arrakastaren sekretua?

K.A.— Ni beti izan naiz txintzarri xamarra. Bestetik, ez naiz inorekin ezkontzen, nire kasa ibiltzen naiz eta horrek zerbait esan nahi du. Hau da, gauzak ez dira kasualitatez ateratzen. Nire kasuan urte askotako lana dela uste dut. Jende asko

dabil lanean, baina nire lan asko publikoari begira izan da: hitzaldiak, irratzaioak... Hori da sekretua, lan asko egin eta aukerak agertzen direnean, zaztik nik eskua sartzen dut, inongo lotsarik gabe. Eta ez zait lotsagarri geratzea gus-tatzen; tontakeria asko esaten ditut, baina janariaren inguruko gaia asko zaindu eta maite dut. Jendeari ez diot sekula gezurrik esango eta hainbat etxekoandrek ni maite izatea horregatik da, konturatu direlako ez dudala gezurrik esaten.

ARGIA

1992ko azaroak 1. (moldaturik).

AHOZKOAREN ULERMENA II

ARGIA.— Zein metodo erabiltzen duzu «Menú del día»ko errezetak antolatze-ko?

KARLOS ARGIÑANO.— Lau lagun astean hirutan biltzen gara eta 10-15 menu desberdin pentsatzen ditugu. 3.500 errezetako zerrenda osatu dugu. Adibidez, berenjena hartu eta horrekin 20 errezeta desberdin asmatzen ditugu: egosita, frijitua, labean, laguntzaile modura... Guzti hori etxekoandreei erakusten diegu, telebistari esker.

Horrek erantzukizun handia ere badakar. Dagoeneko, ez Euskal Herrian ba-karririk, Espainia osoan nire programa ikusten dutenek nik esandakoari jarraitzen diote. Akaso aldatuko ditut jateko moduak... Oso argi dugu, gauzak oso ondo egin behar ditugula, janariaz ari garelako, ez bizikletan ibiltzen.

A.— «Menú del día»ren bitartez, euskal sukaldaritzaren saltzaile eta bozeramale bihurtu zara.

K.A.— Ni? Beno, oso talde polita gara. Euskal sukaldaritzak hartu duen abiaduraz harro sentitzen naiz. Historiak esango du, eta gu ez gara hemen egongo, baina konturatuko dira hemendik talde berezi bat pasatu zela. Lehen euskal sukaldaritzak izugarritzko arrakasta zuen, baina mugimendu honek nazioarteko maila eman dio. Garai hartan hemen dauzkagun pintore, idazle, artista mugimenduez ohartu ginen eta sukaldariak martxan jarri ginen. Emaitzak izugarriak izan dira. Nire sukaldetik 200 neska-mutil pasatu dira eta une honetan denak ari dira lanean. Nire etxetik bezala Roteta, Subijana, Arzak eta beste askoren etxeetatik. Guk 1.000 sukaldari egin ditugu azken 15 urteotan, euskal sukaldaritza munduan zehar zabaltzen duten sukaldariak eta hori oso gauza polita da.

A.— Zer pentsatzen duzu ostalaritza eskolez?

K.A.— Ez ditut eskola masifikatuak nahi, orain dauden bezala. Herri bakoitzak polikiroldegi bat du eta 3 ostalaritza eskola daude Euskadi osoan. Zer egin behar dugu? Bakoitzak ahal duen bezala ikasi eta gero besteei ahotik janaria sartu, nutrizioa, bitaminak, proteinak... zer diren inork irakatsi gabe? Hori astakeria da.

A.— Baina ateratzen direnak nola ikusten dituzu?

K.A.— Esperientzia behar dute. Lanbide hau sendagileenaren antzekoa da. Astakeria da sukaldaritza-eskolatik atera eta Valentziara joatea sukalde buru, Es-

painian sukaldari euskaldunak nahi dituztelako. Ez badaude ondo prestatuta edo praktikak ez badituzte ondo eginak, lotsagarri geratuko dira, eta ez da euren errua, antolaketa faltaren errua da.

A.— Nola sentitzen zara telebista izar, publizitate izar, sukaldari izarra izanda?

K.A.— Ni ez naiz aldatuko. Karlos Argiñano euskaldun txintzarri bat da, ez nau inork geldituko. Ibili, ikusi, ikasi eta komunikatu egin nahi dut, euskal sukaldaritzari indarra emateko. Hala ere, ez dut nire burua salduko, alokatu agian, baina saldu inoiz ez.

ARGIA

1992ko azaroak 1. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA

1c	2b	3d	4a	5a
6b	7b	8b	9d	10c

ESALDIAK BERRIDATZI

1. *Ez dago* nobelarik nola edo hala gaurko Euskal Herriari buruz mintzaten ez denik.
2. Ihes egin nahi duen eta nora joanik ez daukan *norbaiten istorioa* kontatzen digu nobelak.
3. Gaueko orduotan kalera ateratzea pentsatzea *ere* !
4. Bere jokamoldea zuzendu *ezean* ezin har zitekeen elkartekide leialtzat .
5. Umeari negar-malkoak *zerizkion*.
6. Alboan tximista kiskalgarria erori (izan) *balitzaio* bezala hartu zuen berria Joxek.
(OHARRA: «bezala, horrelaxe...» GAIZKI).
7. *Baliteke* kanpoan ere zakurrak oinutsik dabiltzala ikusteak hemengo bizi-moduari buruz duen iritzia *aldaraztea* .
8. Bizimodu berria aurkituko zuelakoan hartu omen zuen Ameriketarako bi-dea.
9. Apaltasuna adierazten zuen beti ere eztabaidetan, *baita* solasaldi gozoetan ere.
10. Aitonarekin egin ohi nituen joan-etorrietatik *datorkit* mendizaletasuna.
(OHARRA: «Nire mendizaletasuna ... datorkit» GAIZKI).
11. Zoritxarrez ez daukagu umeak zainduko dizkigunik.
12. *Zenbat* eta gehiago urrundu Zabaleta baserritik hainbat eta bizimodu nagiagoa egiten zuen gure gazteak.

13. Berrogeita zortzi orduren *buruan* jakin ahal izango da dituen zauriak zeinen larriak diren.
14. Gure umeeek musikarako joera *badute ere, ez dut uste* gainerako lanak utzi beharko lituzketenik.
15. *Hamaika* laztan eta igurtzi jasotakoa zen haur hura! (edo «jaso zituen haur hark»).
16. Hogei urterekin, zuen *aldean*, lan gogorrak egiten genituen.
(OHARRA: «gogorrak» GAIZKI).
17. Konponbidea aurkituko ote zuten *elkarri* galdetuz amaitu zuten solasaldi luzea.
18. Zuen altzari berriak modako aldizkarietan ikusten direnak *bezain* ikusgarriak dira.
19. Hori ez da lanean hasi *berria*.
20. *Badira* hamar urte «euskara-iberoa» teoriari buruz liburu berririk agertzen ez dela.

IRAKURMENA

1a	2c	3b	4d	5b
6c	7b	8d	9d	10a

3.3. 1994KO IDATZIZKO AZTERKETAK

3.3.1. 1994/4/30

AHOZKOAREN ULERMENA I

ARGIA.— *Zein da idazteko erabiltzen duzun sistema?*

BERNARDO ATXAGA.— Oso aldatuta nago. Hiru urtetan fitxak egiten joan naiz: Koprotkin-en «*Printze anarkista*»ren aipu bat, garai bateko ETAren eskupaper bat kopiatu, trenean ikusitako halako gizon betilunaren erretratua egin... Bi kua-derno bete ditut burutazioekin, kontrolik gabe. 280 ohar dauzkat. Eskuz idazten dut. Gero makina elektronikora pasatzen dut eta, azkenik, ordenagailura. Zuzenean ordenagailuan idazten duen pertsona, adibidez, oso gaizki moldatzen da pasarte edo parrafoarekin. Pasarte da idazlearen muina, arnasa, testu baten indarra hortxe dago. Hori ordenagailuz ezin da egin.

A.— *Poesiarik argitaratzeko asmorik ba al duzu?*

B.A.— Donostian ostrukari buruz eman berri dudan errezitaldia handituz joango da eta, eta denborarekin, hori izango da seguru asko nire hurrengo poema liburua. Eta izenburua ere horixe izango da: *Lezio berri bat ostrukari buruz*. Beharbada datorren urtean.

A.— *Erdaraz zerbait idazteko tentaziorik ba al duzu?*

B.A.— Erdal mundura ez pasatzeko benetako indarra eduki behar da eta ideia batzuk buruan, bestela, nik uste dut pasatuko nintzatekeela. Zergatik? Oso deigarria delako alde askotatik, ez bakarrik diru aldetik. Gozotasun gehiago jasotzen da euskal mundutik baino. Gazteentzat idatzi nuen *Behi euskaldun baten me-*

moriak liburua oso gaizki tratatu dute Euskal Herrian, eta erdal munduak oso ondo. Hemengo kritikak irakurri nituenean kolpea hartu nuen. Handik urtebetera Gallimard etxeak erosi du. Orduan zein dut anaia?

Atzo aurkitu nuen testuliburu bat. Bi liburu dira eta berrogei idazleren testuak egongo dira irakurgai bezala. Zein aukeratu ote dute nirea? Pentsatu nuen nire inozentzian, nire harrotasunean hori pentsatu nuen. Hartu, eta denak zeuden, eta ni ez. Holandan oso ondo tratatu naute, adibidez; agian komeni zait hara joatea. Askotan solaskide gehiago eta anai-arreba gehiago aurkitzen dira kanpoan. Datu bat delako esaten dut, ez eraginik duelako nire bizitzan. Euskaraz idazten jarraituko dut inongo arazorik gabe.

ARGIA,
1993-XI-7 /1456 zenb. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

ARGIA.— *Belaunaldiak falta dira euskal literaturan. Beharrezkoak al dira kultura batentzat?*

BERNARDO ATXAGA.— Literaturan funtsezkoa irakurlea da, ez belaunaldiak. Hemen fenomeno interesgarria euskaldunberriena da: jende gaztea, jende ikasia. Benetako irakurle izango diren hiru milatik gora baditugu, ez dago arazorik. Idazleen artean ideologia gehiegi dago, horrek kalte egiten dio idazleari. Idazle batek bere bizitzaren ardatz bezala nazionalismoa hartzen badu, kostatzen da egingo zaio liburu onak idaztea.

A.— *Oso alegiazalea zara. Zergatik estilo hori?*

B.A.— Tresnak ditut; kontatzeko garaian langileak behar dira. Ostruka, adibidez, oso lagun ona da, edozein gauza konta dezakezu. Erregistro bat badut alde horretatik. Jende askok hitz egiten du fabulaz goitik behera begiratuta, baina niri fabulak asko gustatzen zaizkit. Eskolan, entziklopedian, fabulak irakurtzen genituen. Aurreneko inpresio estetikoa, bestalde, elizan jaso genuen: musika, latinezko errezoak, ipuinak, Biblia... Mundu hori «Obabakoak» en laburtu nuen. Orain mundu hori atsedenean daukat eta beste batera abiatu naiz, errealistagoa, pixka bat «Etiopia»n agertzen den mundura.

A.— *Uda honetan, euskaraz dakien batentzat kalean ibiltzea tortura dela esan zenuen.*

B.A.— Euskaldunak, zakar samar hitz eginda, zakur bezala tratatzen gaituzte: ogi kozkorra ematen zaio zakurrari bakea eman dezan. Euskal Herrian jende batek euskara eta euskarazko bizitza bigarren mailako herritar bezala hartzen du praktikan. Eta asko euskaldunak dira, hizkuntzarekiko harreman faltsua dutenak. Gure bizimodua defendatu behar dugu. Borroka bakarra kalitatearena da.

Ahalik eta hitzaldi prestatu eta onena eman, dudan onena ematera joan. Gure esparru guztietan hori behar da. Errespetua behar dugu, gure lehen mailatasuna defendatu behar dugu euskaldun bezala. Edo lehen mailakoak izango gara edo ez gara izango. Aspaldi honetan kanpoan ez dut elkarrizketarik eman bi edo hiru egun aurrez prestatu gabe. Frantzian edo Estatu Batuetan euskaldunoi buruz zerbait aterako bada eta nire hori bada, asko zaindu behar dut.

A.— *Igarle fama baduzu. Nola ikusten duzu etorkizuna?*

B.A.— Munduaren neurria gure bizitza da. Bat doaz. Munduaren etorkizuna gure etorkizuna da. Ibaiaren barruan gaude, ez kanpoan. Horregatik 80 edo 90 urteko jendea oso katastrofista da eta umea, zoriontsua. Ez dut mundu erraza ikusten, seguru asko nire bizitza ere ez dudalako erraza ikusten.

ARGIA,
1993-XI-7 /1456 zenb. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA

1d	2c	3a	4b	5d
6b	7c	8c	9d	10a

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Esaiozu Karmeleri neuri ere *ekar* diezadala J. M. Irigoienen liburua.
2. *Edozer* egingo nuke nire arreba ezkondata ikustearren / ikusteagatik.
3. Izugarrizko makilkada eman zion lapurra *zelakoan*.
4. *Hain* itsusia zen zure pintura, *non* ezin zuen / baitzuen saria lortu.
5. Ez da egongo auzokiderik guk atzo etxean egindakoa ez dakienik / jakingo ez duenik.
6. Irakurketa honek ez dauka besteak *adina* interesik.
7. Garai bateko idazleek ez *ezik*, oraingo zenbaitek ere elaberri mardulak idatzi ohi dituzte.
8. Ogi zatitxo bat *eman* niezaiola erregutu zidan eskaleak.
9. Zenbaitek droga legeztatzeari gaizki *deritzo*.
10. Txakur honek ez du horrek bezain gaiztoa (denik) *ematen*.

SINONIMOAK

1. *Berriz*: berriro, ostera, atzera.
2. *begiztutako*: ikusitako, begiz jotako.
3. *detektibeak*: ikertzailea, ikerlaria.
4. *geldiro*: emeki, poliki, mantso, patxadaz.
5. *betarik*: aukerarik, abagunerik, tenorerik.
6. *argal*: mehar
7. *itsusi*: zatar, motz, ezain.
8. *hazpegi*: itxura, aurpegikera, bisaia.
9. *zarrazta*: zirrara, bihotzikara.
10. *nahigabe*: atsekabe, samin.

IRAKURMENA

1d	2a	3a	4c	5c
6b	7c	8d	9b	10d

3.3.2. 1994/5/7

AHOZKOAREN ULERMENA I

EUSKAL ANTZERKIA

Helena Pimenta Errenteriako «Ur» antzerki taldeko zuzendaria da. Oraintsu, William Shakespeareren «Sueño de una noche de verano» obraren bere bertsio berria dela eta, Espainiako Antzerki Sari Nazionala jaso du «Ur» taldeak.

ARGIA.— Antzezlanaren literaturaren klasiko batean oinarritua egoteak zerikusia izan ote du obrak izandako arrakastan? Beste era batera esanda, benetan lagundu al dizue Shakespearek?

HELENA PIMENTA.— Batzuek baietz diote. Hainbeste denbora pasatu arren, gaur egun oraindik gaurkotasuna duen obra dela. Alde horretatik, batzuen ustez, irabazteko dena genuen. Nire iritziz, tankera honetako lan bat ikuspuntu okerretik eginez gero, akats izugarria egin dezakezu, eta baita betirako hondoratu ere. Nahi eta nahi ez —kontuan har ezazu obra honen hogeit hamar bertsio ospetsu izan direla gutxienez—, konparazio erreferentzia asko izaten dira. Beraz, abantaila baino, balazta izan zitekeen, handi-mandikeriatan ari ote zaren esan baitezakete, sasi-maisutzat jo zaitzakete.

A.— Batzuek euskal antzerkia kalitate eskasekoa dela diote. Lortu duzuen arrakasta ikusirik, zuek al zarete salbuespena?

H.P.— Ez nuke esango salbuespena garenik. Ez dago euskal antzerkia gaizki dagoela esaterik, alderantziz. «Ur» hemendik atera da, eta begibistakoa da Euskal Herrian egindako antzerkia dela. Nik badakit guk lan ona egin dugula eta onarpen handia izaten ari garela, baina, nolana ere, hemen egiten den antzerkiaren erakusgarritzat jotzen dut hori.

A.— Zeintzuk dira euskal antzerkiaren egungo egoera ulertzeko klabeak?

H.P.— Ona litzateke hori definitzea. Baina oso urte gutxi dira funtzionatzen hasi ginenetik, eta denok heltzen goazen heinean, gauzak sistematizatzen hasteko ordua da. Serioak izan behar dugu, kritikoak egiten dugunarekin eta kanpotik datorrenarekin. Eta batez ere eskuzabalak eta irekiak, mugak irekitzeari eta akatsak onartzeari beldurrik izan gabe. Elkarlana premiazkoa da; instituzioak sensibilizatzea antzerkiaren garrantzia bere osotasunean uler dezaten.

A.— Baina asko dira euskal antzerkia gaixorik dagoela eta ez zaiola sendatzeko botika egokirik ematen esaten dutenak.

H.P.— Egia da, eta denok dugu hor erantzukizunik, ez dugulako oraindik formula egokirik topatu antzerkiaren bizitza osasuntsua izan dadin eta ikusleekin harreman koherentea izan dezan. Antzerkiak bitamina asko behar ditu, eta ez dut uste

diru laguntzena salbatzeko modu bakarra denik. Ni antzerki politika sistematiko on baten alde nago, zirkuitu erregulatu batean eta lan kondizio onetan arituko dena. Zirkuitu egitura ondo araututakoa balitz, eta lana serio egiteko toki egokiak baleude, ikusleek dinamika hori bereganatuko lukete eta antzerkia ohizko gertakaria bihurtuko litzateke.

A.— «Ur» taldeak halako arrakasta izanak lagundu al dezake planteamendu berri horien inguruan eztabaida sortzen?

H.P.— Sari hauek irabazi izanak, objezioak ahaztu gabe, hemengo proposamen artistikoak garrantzitsuak eta kontuan hartzekoak direla erakusten du. Garrantzitsuena antzerki politika serio batekiko konpromezua da, eta hor beharrezkoa da antzerki mundukook gure esperientziak nolakoak izan diren esatea. Baina ez dut uste hori instituzioek bakarrik egin behar dutenik. Ez naiz antzerkiaren arazoak modu paternalistan konpon diezazkiguten aldeko.

A. IRAZU

ARGIA, 1993ko irailaren 12an. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

ARGIA.— Nola ikusten duzu euskarazko antzerkiaren etorkizuna?

H.P.— Euskarazko antzerkiaren papera oso garrantzitsua da. Etorkizunik hobereena edukitzea nahiko nuke. Antzerki munduko profesional bezala, ordea, ez litzaidake egokia irudituko euskarazko antzerkiak hizkuntzaren sustapena helburu bakartzat hartuko balu. Antzerkia lengoaia da berez, hizkuntzetatik harantz doa. Zentzu horretan ez dut uste antzerki politikaren helburua hizkuntza bat sustatu, zabaldu eta babestea denik. Uste dut bi aldeak suertatuko liratekeela kalteturik. Hemen, zirkuitua erregulatu gabe, sekulako kolpea ematen ari zaie euskaraz dihardutenei. Urtean hamabost emanaldi eginda bizi behar dute. Zer egin behar dute? Goseak hil?

A.— Zirkuituan datza, beraz, giltza?

H.P.— Zirkuitu ona edukita posible da euskaraz aritzea, eta baita kanpora ateratzea ere. Gertatzen da helburua linguistikoa baldin bada soil-soilik, gerta daitekeela gero antzerkiaren maila konpetitiboa ez izatea. Hor duzu Kataluniako adibidea. Katalanerazko lanekin leku askotara ateratzen ari dira. Zirkuitua erregulatu gabe ezin zaio jendeari euskarazko antzerkia egin dezan eskatu.

A.— Bernardo Atxagak esan zuen lehengoan Euskal Herriak bere historian izandako une kultural baxuena bizi duela.

H.P.— Arrisku une batean gaudela esango nuke. Uste baldin bada herri baten garapena maila ekonomiko eta sozialean neurtzen dela bakarrik, sekulako akatsa da. Herri batek kulturazko oinarri sendoak eduki behar ditu. Zentzu horretan,

planteamendu sakonak egiteko garaian gaudela uste dut. Euskal Herriak bere oinarri kulturalak bultzatu behar ditu, dudarik ez dago. Galtzen ari denaren beldurra leku guztietan gertatzen ari dela iruditzen zait. Une arriskutsu eta erabakiorrean gaude. Munduak bere burua janda ikusten duenean defenditu nahi izaten du kultura. Krisi uneak onak dira zentzu horretan, egiak ikusi eta esan egiten direlako. Krisiak beti ondoriora eramaten zaitu. Kontraesanak aberasgarriak dira.

A.— Zer diozu telebista eta antzerkiaz?

H.P.— Ez dut uste antzerkiaren zeregina telebistan ateratzearen alde borrokatzea denik. Ni ez naiz iritzi horretakoa; telebista beste medio bat iruditzen zait. Bere zeregina, zentzu horretan, antzerkiari buruzko informazioa behar bezala ematea dela uste dut. Bestalde, ez nuke topikoan erori nahi, ez naiz ni izango telebista erabateko zaborra denik esaten hasiko dena. Baina kontrakoa ere ez dut onartzen. Telebista beldurra ematen didan medioa da. Audientzia mailei bakarrik erreparatuta egindako saioak ikusten dira, seriotasun minimorik gabeko programazioak. Ez bata eta ez bestea.

A.— 2000. urtearen atarian gaude, irudia eta teknologiaren kultura gailentzen denean. Ez al du antzerkiak hiletarako bidea hartua izango?

H.P.— Ez dut uste. Ez da izango garai batean izan zena, noski, beste mediorik ez zegoenean. Gaur egun, baina, antzerkiak beste zeregin bat du. Antzerkia, horren komunikazio zuzena izateagatik hain zuzen, ordezkazina izango da beti. Medio eta maila desberdinez ari gara, eta ez dute zertan elkar jan. Antzerkia, zuk aipatu duzun medioen kontu horregatik, egoera larrian egon daiteke, baina nork ordezkatzeko du sekula mendian buelta bat ematea ekintza bera telebistan ikusteagatik? Bi aukerak hor daude. Antzerkiak, pertsonak geratzen diren bitartean, hor iraungo du, pertsonen arteko komunikazio zuzena baita. Ordezkazina.

A. IRAZU

ARGIA, 1993ko irailaren 12an. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA

1c	2b	3a	4c	5d
6b	7b	8d	9d	10c

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Telebista kate honetan *ezezik* besteetan ere lelokeriak entzun daitezke.
2. Egun bateko epea eman nion Karmeleri lagunei egia *aitor* ziezaien.
3. Ez zenekiten Patxi apaiz egitekotan dabilela, *ala?*
4. Hain neska liraina *izanda*, zoratu egingo luke bat bere edertasunaz.
5. *Ez dago* institutuko zuzendariak azaldutako asmoa onartu ez duen ikaslerik.
6. Norbait saritzekotan, Xabi hautatuko nuke.
7. Goizean izandako istripuaren ondorioz *hain* urduri nengoen *non* ezin bainuen agindutako lanik egin.
8. Oso pozik geratuko nintzateke aurten Olentzerok eskatu diodan guztia *ekarriko* balit.
9. Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango *omen* dira, jakitunek diotenez. (OHARRA: «omen direla» gaizki dago).
10. Aurten adiskideek ekarri dizkidatenak ez dira opariak izan, nahigabeak *baino*.

SINONIMOAK

1. *adibidez*: esate batera(ko), esaterako, kasu...
2. *burla*: iseka, trufa, ihakina...
3. *zitara*: gaiztoa, txarra...
4. *temoso*: temati, setati, kaskagogor...
5. *parekoekin*: mailakoekin, berdinekin...
6. *gailen*: nagusi, garaile, irabazle...
7. *iskanbila*: istilua, buila, matraka...
8. *marruka*: orroeka, marrumaka, oihuka...
9. *korrika*: lasterka, arineketan...
10. *mantso*: lasai, apal, bare...

IRAKURMENA

1b	2a	3d	4b	5c
6d	7a	8d	9b	10a

3.3.3. 1994/10/1

AHOZKOAREN ULERMENA I

GARBIÑE SARRIUGARTE: Nerabeen haurdunaldiak

Munduko Osasun Erakundeak 14 urtetik 19ra bitarteko gazteak hartzen ditu nerabetzat. Nerabe horiek kontuan hartuta egin du ikerketa Garbiñe Sarriugarte ginekologoak. Ikerketa honetan, 1989-90 ikasturtean haurra eduki zuten Bizkaiko 307 nerabek hartu zuten parte.

HABE.— Zer ikerketa egin duzue zehazki?

GARBIÑE SARRIUGARTE.— Nerabeen egoeraren tamaina aztertu dugu lehen-dabizi, haur-galtzeak eta haur-izateak, amen alderdi sozioekonomikoari buruzko datuak bildu ditugu, lana zuten ala ez, ikasketak, senarraren (aitaren) ikasketak, garai horretan gaixotasunik izan duten,... Eta datu baliagarriak izateko, 20 urtetik gorako amekin, haurra izan duten amekin konparatu ditugu.

H.— Ikasketei erreparatzen badiegu, ze alde dago haurra ekartzen eta haurra galtzen duten nerabeen artean?

G.S.— Ikasketetan ez daukate zerikusirik. Bi mundu dira, guztiz desberdinak. Haurra galtzen duena ikasten ari da (%63,33), eta ez da ezer gertatzen, ezta familian ere; ikasten segitzen du, ez dute beren bizimodua aldatzen. Eta haurdunaldia moztzen ez duena etxekoandrea da (%56,35) eta etxekoandre jarraitzen du. Jendeak uste du haurra ekartzen duen adoleszenteak bere lana utzi egiten duela, edo ikasketak bertan behera uzten dituela. Baina ez da horrela. Guk ikusi dugunaren arabera, esan daiteke haurdun geratzerako askok eta askok lana edo ikasketak utziak zituztela. Haurra dutenen artean %54k ez zuen Oinarrizko Hezkuntza Orokorretik aurrerakorik egin, eta %24,5a lehen ikasketak egin gabea zen. Beraz, nekezago edukiko du haurra ikasketak dituenak.

H.— Nerabeen edadea kontuan harturik, zeintzuk galtzen dituzte haurrak berariaz?

G.S.— Batez ere, hamazazpi urtetik gorakoek. Denetara 188 legezko aborto izan ziren Euskal Autonomi Elkartearen 1990ean eta horietatik 20 bakarrik 17 urtetik beherakoek. Amek 20 urtetik 40 urtera bitarte dituztenean, asko ugaltzen dira berariazko eten horiek.

H.— Nolako jarrera dute gurasoenganako?

G.S.— Askotan gertatzen da etxean oso berandu esaten dutela haurdun daudela, edo ez dutela esaten, edo oso berandu etortzen direla eritetxera. Horrela oso gaitza da haurdunaldiari erreparatzea, eta arazoak errazago sortzen dira. Ama

helduekin konparatuta, normalagoa da adoleszenteen haurrak garaia baino lehen jaiotzea, eta pisu gutxiagorekin.

H.— Egia al da haurdun ez geratzeko metodoak lortzeko zailtasunak dituztela adoleszenteek?

G.S.— Haurdun ez geratzeko programak badira, eta ez da erraza izaten nerabeak programa horietan murgiltzea. Hemezortzi urte bete bitartean gurasoen baimena behar dute kontsultara joateko. Eta hemezortzi urte izanda ere, anbulategia edo dena delakoa beren auzokoa bada, erizainaren ezagunak izango dira beharbada, igoyal egiten dute topo beren aitarekin edo auskalo norekin, eta hori ez dute inolaz ere atsegin.

HABE aldizkaria
215. zenbakia, maiatza 1992. 8-11 orr. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

HABE.— Haurdunaldia etetea erabakitzen dutenak bere bikote-kidearekin bizi al dira?

GARBIÑE SARRIUGARTE.— Ez, normalean ez. 1990eko Euskal Autonomi Elkarteke datuetan ia %60k dio ez dela bikote-lagunarekin bizi. Horrezaz aparte esan behar da gehienak ezkongabeak direla. Haurra edukitzen dutenak, berriz, gehienak ezkonduak dira. Baina asko ama ezkongabe bihurtzen dira, eta horiek laguntza bereziak behar dituzte.

H.— Eta gizona zein laguntza eskaintzen dute?

G.S.— Ezin esan liteke antisorgailuak erabiltzeko ardura emakumeek bakarrik hartzen dutenik. Preserbagailuak, *coitus interruptus*-a, eta basektomia kontuan hartuta, kopuruari begiratuta, antisorgailuen erdia da hori. Gertatzen da, kezkatu gehiago kezkatzen dela emakumea ondorioak berak jasan behar dituelako.

H.— Eta nerabeen artean zeintzuk dute haurdun geratzeko arriskurik handiena?

G.S.— Ba, lehen ere haurdun geratu izan direnek. Esan daiteke, neurri batean, eskarmentuak ez duela balio. Ezagutu nuen neska bat 20 urte bete gabe hirugarren zesarea egiten ziotena. Haurra eduki —ala galdu— eta handik berrogei egunetara etortzeko esan edo agindu behar zaie, ezen asko umea jaio den egunean etortzen dira lehen eta azkeneko aldiz. Eta hurrengo egunean alde egin nahi dute eritetxetik, alta eskatzen dute. Eritetxean izan den gazte horren arrastoa ez galdu. Beharbada errazago egin liteke hori haurdunaldia eten dutenekin besteekin baino.

Bestalde, badago beste gazte-multzo bat arrisku handikoa. Neska gazte hori gutxi ikasitakoa bada, edo eskola azkar-antzean utzia, edo lana aurkitzeko esperantza urria badu, eta gurasoak ere eskola gutxikoak badira eta lanik gabeak, ez da hain zaila izango haurdunaldia ezagutzea. Batez ere bi talde hauei begira egin behar dira prebentzio kanpainak.

H.— Zenbat legezko eta legez kontrako haur-galtze daude? Badakizu hori?

G.S.— Beno, hemen gauzak nahastu egiten dira. Gauza bat da legezkoa izatea eta bestea etena zerbitzu publiko baten bidez egitea edo zentru pribatu batean. Baina guztiak dira legezkoak. Normalean pentsatzen dugu ospitaletik kanpo egiten direnak, zentru publikoetatik kanpo alegia, legez kontrakoak direla eta hori ez da horrela. Eta gehienak ospitaletik kanpo egiten dira. Ospitalean etenen %4a egingo da gutxi gora-behera.

HABE aldizkaria

215. zenbakia, maiatza 1992. 8-11 orr. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA

1d	2c	3c	4a	5d
6a	7c	8b	9d	10c

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Goizeko bostak jotzeaz (jotzearekin) *batera* kale kantoian sekulako zala-partak entzun nituen.
2. Norberak egitea bezain *nekagarria* da alferrak noiz egingo duen zain ego-tea.
3. Liburu kontuan, *ez legoke* kalte handiagorik zenbait txoriburuk idazten du-ten guztia sinestea baino.
4. Domingok bi pentsakizun besterik (baino) *ez zituen* buruan: dirua eta apus-tuak.
5. Lagunek zuei *kontatu* zizkizueten xelebrekeriek zeharo harrituta *utzi* zin-tuzteten.
6. *Nola* pentsa zenezakeen/pentsatu zenuen leihatila atzean zeuden txoro haiek *zuri* arazoa konponduko zizutela!
7. Hamar *baino* gutxiago izango ziren une hartan tabernan zeuden bezeroak.
8. Zeuen karguak zuzendaritzaren esku utz zenitzate/a agindu zitzaizuen azken bileran.
9. Etxetik aldegin, aldegin du, baina orain ez du *non* bizi(rik).
10. Gure txirrindulari ezagunak tropelaren aurrean tinko eta erne ibili *beha-rreran*, atzean eta erdi lotan ibili ziren.

SINONIMOAK

1. *Erabakia*: ebatzia, deliberatua,...
2. *sendo*: tinko, irmo,...
3. *usaina*: kiratsa, sunda, hatsa,...
4. *aurki*: laster, berehala,...
5. *izukaitzekin*: ausartekin, adoretsuekin, beldurgabeekin,...
6. *zain*: itxaroten, esperoan, aiduru,...
7. *aspaldiko*: antzinako, lehenagoko,...
8. *apala*: otzana, xumea, umila,...
9. *inguratuko*: ondoratuko, hurbilduko, hurreratuko,...
10. *antxeta*: kaio, kalatxori,...

IRAKURMENA

1a	2b	3a	4d	5a
6d	7a	8b	9c	10a

EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1. Glotodidaktika-lanak

a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner (1)*.
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika (2)*.
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi (3)*.
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz-I. Olaziregi (15)*.
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia (18)*.
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia (22)*.
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia (29)*.
- TREBATZEN. OHO.ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz (23)*.
- EUSKALKIZ EUSKALKI. *R.M. Pagola (19)*.
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. *J.M. Etxebarria. J.A. Mujika (31)*.
- OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. *I. Olaziregi (34)*.

b) Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo (6)*.
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea (9)*.
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea (14)*.
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriando (10)*.
- KONTU KONTARI. *L. Iriando (20)*.
- AMONAREN IPUINAK. *E. Genua (12)*.
- IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi-J. Lucas-Keinu-Maskarada (13)*.
- JOLASEAN. *I. Urbieta (11)*.
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta (21)*.

c) Gaitasun Agiriak

- EUSKALTZAINDIK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1993-4KO AZTERKETAK (43).
- IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK 1993KO AZTERKETAK (41).
- IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK 1994KO AZTERKETAK (42).

d) Hizkuntz testak eta ebaluazioak

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurreako). *G. Ajuria-I. Ibarra-J. Sierra (16)*.
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHoko 2. mailarako). *I. Olaziregi-J. Sierra (26)*.
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHoko 5. mailarako). *I. Olaziregi-J. Sierra (25)*.
- GALBAHE C1 Y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testuak OHoko 2. eta 5. mailerako). *J. Sierra-I. Olaziregi (27)*.
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A ereduko OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi-J. Sierra (28)*.
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amiaerako). *I. Olaziregi-J. Sierra (30)*.
- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz, erdaraz, frantsesez eta ingelesez). *J. Gabiña-R. Gorostidi-R. Iruretagoiena-I. Olaziregi-J. Sierra (H.U.I.S.-H.P.I.N.)*.
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra-I. Olaziregi (33)*.
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra-I. Olaziregi (36)*.
- EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena (OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi-J. Sierra (37)*.
- HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. *J. Sierra-I. Olaziregi (38)*.
- PRUEBAS DE LENGUA. Comprensión lectora y expresión escrita (8º de EGB). *J. Sierra-I. Olaziregi (39)*.

2. Hizkuntz prestakuntza

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. *A. Arejita-J.M. Irazola-J. Uriarte (1)*.
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J.M. Irazola (2)*.
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. *A. Arejita-J.M. Etxebarria-J.M. Irazola-J. Uriarte (4)*.
- HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA. *J.M. Berasategi-M. Zalbide-I. Olaziregi (5)*.

3. Zabalkunde lanak

a) Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1992. *B. Basterretxea-M.K. Kamino-M. Usabiaga-I. Olabarria-M. Zalbide (32)*.
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1992. *M. Usabiaga-I. Olabarria-M. Zalbide (33)*.

- EIMA. EKINTZA-PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986. (14).
- EIMA. LAGUNTZA-DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85. (10).
- HEZKUNTZA-SOFTWAREAREN BILDUMA 1993. *M. Usabiaga-I. Olabarria-M. Zalbide* (35).

b) Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea (IRALE programa)

- IIRALE. 1994-5eko AURKEZPEN TXOSTENA. (36).

c) Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. *I. Artola-J.M. Berasategi-I. Muruaga* (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. *R.M. Ardanza-I. Artola-J.M. Berasategi-L.M. Landaluze-A. Mujika-I. Muruaga* (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA. (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1994.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).
- ESKOLA HIZTUN BILA. (28).
- ESKOLA ANTZERKIA 2. *Askoren artean* (30).
- ESKOLA ANTZERKIA 3. *Askoren artean* (31).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK. *Askoren artean* (34).

d) Bestelakoak

- EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN. (20).
- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE. *M. Zalbide e.a.* (24).
- 10 AÑOS DE ENSEÑANZA BILINGÜE. *M. Zalbide e.a.* (24).
- EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA (txostena). (25).

NOTA: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.

Sig.: 811.361(079.1) ega
Tit.: EGA : 1993 eta 1994ko azterke
Aut.:
Cód.: 1017146

